

BALORA tresnaren eguneraketa

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAURRAK ETA NERABEAK ZAINTZEKO ETA
BABESTEKO UDAL- ETA LURRALDE-MAILAKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ARRISKU-
ETA DESANPARO-EGOEREN LARRITASUNA BALIOESTEKO TRESNA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

BALORA tresnaren eguneraketa

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAURRAK ETA NERABEAK ZAINTZEKO ETA
BABESTEKO UDAL- ETA LURRALDE-MAILAKO GIZARTE-ZERBITZUETAN ARRISKU-
ETA DESANPARO-EGOEREN LARRITASUNA BALIOESTEKO TRESNA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2017ko iraila

Ale-kopurua:

500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinu eta maketazioa:

Kabinetearen eta Komunikazio Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Itzulpena:

IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Inprimaketa:

Gráficas Dosbi, S.L.

L.G.:

VI 866-2017

Aurkibidea

	Orrialdea
TRESNA TESTUINGURUAN KOKATZEA	5
I. ZATIA	
ARRISKU- ETA DESANPARO-EGOERAK: DEFINIZIOA ETA LARRITASUN-MAILAK	9
II. ZATIA	
ARRISKU- ETA DESANPARO-EGOERAK: LARRITASUNAREN BALORAZIOA	15
ARRISKU- ETA DESANPARO-EGOEREN LARRITASUNA BALIOESTEKO IRIZPIDE OROKORRAK ETA PROZEDURA	16
Tresnak hartzen duen denboraldia	17
Larritasun-mailak, kalifikazioa eta esanahia	17
“Kalte esanguratsuaren” definizioa	19
Haurrak edo nerabeak kalte psikikoa ote duen eta kalte horren larritasuna nolako den ebaluatzea	20
Inguruabar bereziak (banandutako edo dibortziatutako bikoteak; balio edo ohitura bereziekin lotutako praktikak; legez emantzipatu gabe bizimodu independentea duten nerabeak)	22
Informazioa biltzeko prozedura	25
Babesgabetasun-egoera baten eta haren larritasun-mailaren balorazioan parte hartzen duten zerbitzuak eta behar diren baliabideak	26
Txostena egitea	27
Kasuak bideratzea udal-mailako eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen artean, babesgabetasun-egoera dagoen eta haren larritasun-maila nolako den zehazteko balorazioaren emaitzen arabera	28
Arrisku-egoera aitortu zaien kasuak bideratzeko prozeduraren berezitasunak	30
Arriskua aitortu osteko esku-hartzea, arrisku ertaineko eta arrisku larriko egoeretan eta desanparo-egoeran	31
ARRISKU- ETA DESANPARO-EGOEREN LARRITASUNA BALIOESTEKO TRESNA	33
Babesgabetasun-egoera motak	34
Tratu txar fisikoa	35
Zabarkeria	37
<i>Behar fisikoekiko zabarkeria</i>	37
Elikadura	37
Osasun fisikoaren zaintza	39
Jantziak	41
Higiene pertsonala	42
Etxebizitzaren higiene-baldintzak	43
Etxebizitzaren egonkortasun- eta bizigarritasun-baldintzak	44

Segurtasun-beharrekiko zabarkeria	44
Exxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa	45
Artatzea	46
Beste pertsona batzuek eragindako babesgabetasun larriko egoeren aurkako babesa	49
Prestakuntza-beharrekiko zabarkeria	50
Behar psikikoekiko zabarkeria	52
Interakzioa eta afektua	52
Estimulazioa	53
Arazo emozional larrietarako arreta espezifikoak	54
Arauek, mugak eta balio moral positiboaren transmisioa	55
Sexu-abusua	56
Tratu txar psikikoa	57
Tratu txar emozionala	57
Haur edo nerabea erabiltzea guraso-figuren arteko gatazketan zein guraso-figuren eta haur edo nerabearentzat esanguratsuak diren eta bizikidetzan-nukleoko parte diren beste senideen arteko gatazketan	60
Bikote barruko edo bizikidetzan-unitateko kideen arteko indarkeriazko egoeren eraginpean egotea	61
Eraso fisikoaren mehatxuak	62
Abandonua	63
Gurasoen gaitasunik eza haurraren edo nerabearen portaera kontrolatzeko	65
Beste batzuk	67
Jaio aurreko tratu txarra	67
Tratu desegokia	68
Janaria edo ura apropos kentzea	68
Konfinamendua edo murrizketa fisikoa	69
Etxetik bidaltzea edo etxean sartzen ez uztea	70
Galbideratzea	71
Eskekotasuna	73
Lan-esplotazioa	74
Arrisku larria edo desanparoa dakarten beste egoera espezifiko batzuk	75
 III. ZATIA. BESTE INGURUABAR BATZUK BALIOESTEKO IRIZPIDE TEKNIKOAK	77
Jaio aurreko aldian, jaio aurreko arriskurik eta babesgabetasunarekiko zaurgarritasunik detektatu den	78
Zer lankidetzan-maila dagoen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen eta haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gizarte-zerbitzuetako profesionalen artean	80
 IV. ZATIA. DOKUMENTAZIO OSAGARRIA	82
Glosarioa	83
Tresnaren laburpen-orria	86
Hautzaroko eta nerabezaroko oinarriko beharren taxonomia eta horiek ebaluatzeko adierazleak	89
Balora tresna - Gidaliburu azkarra	103

Tresna testuinguruan kokatzea

Dokumentu honetan aurkezten den tresna honako **alderdi** hauetan oinarritzen da:

- ✓ **EAEko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- zein lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek aplikatu dezaten** diseinatu da, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen (aurrerantzean 3/2005 Legea) 49., 53. eta 54. artikuluetan ezarritako eskumenak gauzatzeko, gurasoek edo tutore eta zaintzaileek haur eta nerabeak babesteko dituzten betebeharrekin lotutako arrisku- eta desanparo-egoeren ikerketa eta balioespenari dagokionez. Egoera horien larritasuna balioesteko eta dagokion erabakiak hartzeko irizpideak ematen ditu tresnak.
- ✓ **Arrisku- eta desanparo-egoeretan esku hartzeko prozedura jakin batean xertatzen da.** Bereizitako eta sekuentziazatutako zenbait fasetan egituratutako prozedura da (harrera, ikerketa, ebaluazioa, esku hartzeko planaren diseinua eta exekuzioa, planaren etengabeko berrebaluazioa, esku-hartzearen amaiera), eta fase bakoitzak helburu, metodologia eta denbora-epe propioak ditu. Hala ere, faseen bereizketa eta sekuentziazio horrek ez du zurruna edo estatikoa izan behar, eta ez da profesionalaren iritzia gainetik jarri behar; izan ere, errealitatean, fase horiek, ezinbestean, aldi berean gertatzen dira elkarrekin nahasita. Hala, esate baterako, ikerketa- eta ebaluazio-jarduerak aldi berean egiten dira askotan, eta ez dira esku hartzeko planaren diseinuaren edo exekuzioaren aurretik soilik egiten¹, planaren exekuzioaren fasean ere egiten baitira, lortu den informazio berria dela-eta kasuaren ikerketa edo ebaluazioa berriz egitea komeni dela pentsatzen bada. Are gehiago, esku hartzeko plana betetzeari lotuta doa, ezinbestean, kasua etengabe ikertzea eta berrebaluatzea. Era berean, askotan egokia edo beharrezkoa da haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuek zuzenean egitea esku-hartzeak familiarekin, ikerketa- edo ebaluazio-prozesuan bertan, eta, horrez gain, aintzat hartu behar da ikerketa eta ebaluazioa ere esku-hartzeak direla berez. Gauza bera aplikatu daiteke “esku-hartzearen barruko balorazioa” egitera bideratutako kasuetan. Haietan, ebaluazioa eta esku-hartzea aldi berean egiten dira, argi eta garbi interkonektatuta. Faseen helburua, berez, haur eta nerabeen babeserako zerbitzuen esku hartzeko prozesua antolatzea da, eta, horretarako, prozesu horretako une bakoitzeko ekintza nagusia edo lehentasunezkoa —baina ez bakarria— zein den jasotzen da.

¹ **Esku hartzeko plana:** Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen artikuluetan, honela esaten zaio esku hartzeko planari: “familia-eremuko, gizarteko eta hezkuntzako esku-hartze proiektua”, arrisku-egoerako kasuetan aplikatu behar bada, eta “banakako babes-plana”, berriz, adingabearen tutoretza edo zaintza hartzeko neurriak dituzten kasuetan aplikatu behar bada. **Dokumentu honetan, esku hartzeko plana erabiliko dugu babesgabetasun-egoeretan egiten den esku-hartze orokorra adierazteko.**

- ✓ Haren erabilera ez da mugatzen arrisku- eta desanparo-egoeretan esku hartzeko prozesuaren une jakin batera; aitzitik, **prozesuaren fase guztietan aplikatu behar da, babesgabetasun-egoeran egon daitekeen haur edo nerabe bati buruzko jakinarazpena jasotzen denetik, gizarte-zerbitzuen esku-hartzea amaitu eta espediente itxi arte.**
- ✓ Balora tresnak irizpide teknikoak eskaintzen ditu, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuetako profesionali laguntzeko, babesgabetasuna ote dagoen eta haren larritasun-maila nolakoa den balioesteko zereginean. Tresna hori, beste tresna tekniko batzuk bezala, trebatutako profesionalak erabili behar dute, ez modu zurrunean, baizik eta profesionalen iritziaren orientabidea, oinarria eta laguntza izateko, sekula ez haiek ordeztzeko.

Hurrengo orrialdeetan aurkezten diren koadroetan, arrisku- eta desanparo-egoeretan EAEko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen esku-hartzeko egungo prozedura jasotzen da modu eskematikoan, baita erabakiak hartzeko zein unetan den erabilgarria tresna hori ere.

ARRISKU- ETA DESANPARO-EGOERETAN ESKU HARTZEKO PROZEDURA

ARRISKU- EDO DESANPARO-EGOERAN EGON DAITEZKEEN HAUR EDO NERABEEI BURUZKO JAKINARAZPENAK

Partikularrek edo zerbitzuek eginak (ikastetxea, osasun-zentroa, polizia, epaitegia, fiskaltza eta abar)

UDALETAKO GIZARTE-ZERBITZUAK — UGZ

(Jakinarazpenak jasotzeko bide arrunta eta nagusia; sarritan, detekzio-lana ere egiten dute)

LURRALDE-MAILAKO GIZARTE-ZERBITZUAK — LGZ

(zenbait jakinarazpen jasotzea; esaterako, ospitaleetatik bideratutako kasu larriak, haur jaioberrien abandonua, IKEDAAk, lurralde historiko bakoitzean zehaztutako beste kasu...

KASUAREN LEHEN BALORAZIOA: BALIOESTEIA ARRISKU- EDO DESANPARO-EGOERARIK DAGOEN ETA ZER LARRIALDI-MAILAREKIN EGIN BEHAR ZAION

Ez dago arrisku- edo desanpar-egoerarik

Arrisku-egoera egon daiteke, baina ez dirudi larrialdiko kasua denik

Arrisku-egoera larria egon daiteke, eta baliteke larrialdiko kasua izatea

Badirudi edo argi dago desanpar-egoera dagoela, eta larrialdiko esku-hartzea egin behar da

Familiaren beharren araberako jarduna:

- ✓ Espedientea ixtea
- ✓ Beste zerbitzu batzuetara bideratzea
- ✓ UGZen jarraipena

UGZen ikerketa
(informazioa osatu behar bada)

Kasua hartu duen zerbitzuak egindako ikerketa
(edo lurralde historiko bakoitzeko jardunbiderako eskuliburu teknikoetan ezarritako protokoloen arabera)

LGZen ikerketa
(informazioa osatu behar bada)

EGOERAREN LARRITASUN-MAILA ZEHAZTEA

Ez dago arrisku- edo desanpar-egoerarik

Ez da egiaztatu, baina susmoak daude

Arrisku arina edo ertaina

Arrisku larria edo desanparoa

UGZen jarraipena.
Osteko jarduna, susmoak egiaztatzen diren edo ez kontuan hartuta.

UGZen esku-hartzea:

- ✓ Kasuaren ebaluazioa eta orientabidea
- ✓ Esku hartzeko plana egitea
- ✓ Esku hartzeko plana gauzatzea
- ✓ Arrisku-egoeraren administrazio-adierazpena, hala badagokio
- ✓ Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratzea, larritasun-maila areagotzen denean eta familiak lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen esku-hartzea eskatzen duenean
- ✓ Espedientea ixtea


LGZen esku-hartzea:

- ✓ Kasuaren ebaluazioa eta orientabidea
- ✓ Arrisku- edo desanpar-egoeraren administrazio-adierazpena, hala badagokio
- ✓ Desanpar-egoeretan, jardun-prozedura martxan jartzea, arrunta edo larrialdikoa, behar dena (3/2005 Legaren 58. eta 59. artikulua)
- ✓ Esku hartzeko plana egitea
- ✓ Esku hartzeko plana gauzatzea
- ✓ Udal-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratzea, larritasun-maila gutxitzen denean eta familiak udal-mailako gizarte-zerbitzuen esku-hartzea eskatzen duenean

ERABAKIAK HARTZEKO UNEAK ETA TRESNA APLIKATZEA

I. HARRERA

- Egoera horren ardura gizarte-zerbitzuen eskumenekoa da edo izan daiteke?
- Arrisku- edo desanparo-egoera bat da edo izan daiteke?
- Erantzuna baiezkkoa bada, zein zerbitzuri dagokio (UGZ edo LGZ) jakinarazpenari hasierako arretora?
- Zer larrialdi-mailatan jardun behar da?



TRESNA APLIKATZEA (1)

- ✓ Harreran jasotako informazioan oinarrituta, lehen balioespenu egin behar da —azkarra— arrisku- edo desanparo-egoerarik dagoen edo egon daitekeen zehazteko, eta, hala bada, egoeraren ageriko larritasuna zehaztu behar da, modu urgentean jarduteko, beharrezkoa bada.
- ✓ Horretarako, Balora tresna erabiliko da erreferentziatzat (ez dago laburpen-orria bete beharrik).
- ✓ Salbuespenetan izan ezik (ikus aurreko orrialdea), UGZe dagokie jakinarazpenak jasotzea.

- ✓ Eginkizun horiek udal-mailako edo lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek egingo dituzte, haurraren edo nerabearen egoeraren larritasun-mailaren arabera.
- ✓ Larritasun-mailaren aldatuta, udal-mailako eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen artean kasuak bideratzea eragingo dute, eta, beraz, eginkizun horiek betetzeko ardura duen zerbitzua ere aldatuko da.

2. IKERKETA

- Ba al dago arrisku- edo desanparo-egoerarik?
- Haurra edo nerabea arriskuan dago edo egon daiteke? Beharrezkoa da edo izan daiteke urteko babes-jardun bat?

TRESNA APLIKATZEA (2)

- ✓ Beharrezkoa bada, harreran jasotako informazioa osatuko da ikerketa-fasean, argi eta garbi zehazteko ea arrisku- edo desanparo-egoerarik badagoen, eta haren larritasun-maila zenbaterainokoa den.
- ✓ Lurralde historiko bakoitzean ezarritako zeregin-banaketaren arabera, ikerketa UGZaren edo LGZaren bitartez gauzatu beharko da.

3. EBALUAZIOA

- Harremana duten kausak edo faktoreak?
- Baliabide propioak (familia, pertsona adingabea, ingurunea)?
- Laguntza- eta tratamendu-beharrak?
- Pronostikoa?

TRESNA APLIKATZEA (3)

- ✓ Beharrezkoa bada, ikerketaren fasean bildutako informazioa edo egindako balorazioa osatuko da ebaluazioaren fasean.
- ✓ Oro har, UGZe dagokie arrisku arineko eta ertaineko kasuen ebaluazioa, eta LGZe, berriz, arrisku larriko eta desanparoko kasuen ebaluazioa.

4. ESKU HARTZEKO PLANA EGITEA

- Kasurako zerbitzua eta teknikari koordinatzailea zehaztea
- Konpondu behar diren arazoak? Helburuak?
- Sekuentzia-banaketa?
- Baliabideak?
- Denborak?

5. PLANA MARTXAN JARTZEA ETA ETENGABE BERREBALUATZEA

- Sei hilean behin gehienez ere
- Ezarritako helburuen betetze-maila?
 - Haurraren edo nerabearen egoera?
 - Aldaketak planean?

TRESNA APLIKATZEA (4)

- ✓ Esku hartzeko plana martxan jartzean, etengabe berrebaluatu behar da haurraren edo nerabearen egoera, babesgabetasunaren larritasun-mailan aldaketak egon diren balioesteko. Horrelakoetan, esku hartzeko plana aldatuko da, eta, beharrezkoa bada, kasua beste zerbitzu batzuetara bideratu.
- ✓ Oro har, UGZe dagokie arrisku arineko eta ertaineko kasuetan esku hartzea, eta LGZe, berriz, arrisku larriko eta desanparoko kasuetan esku hartzea.

6. ESKU-HARTZEA AMAITZEA ETA ESPEDIENTEA IXTEA

Hala badagokio, beste zerbitzu batzuetara bideratzea

Arrisku ertaineko, arrisku larriko edo desanparoko arrastorik egonez gero, Balora tresna osorik aplikatu behar da, laburpen-orria ere barnean dela. Zaurgarritasun-egoerako edo arrisku arineko kasuetan, erreferentziatzat erabiliko da tresna.

I. ZATIA

Arrisku- eta desanparo-egoerak: Definizioa eta larritasun-mailak

Dokumentu honen hasierako atalean adierazi dugun moduan, haurren eta nerabeen babesaren arloan egun indarrean dagoen legedian ezartzen da zer hartzen den arrisku- eta desanparo-egoeratzat.

- Hau da **desanparo-egoera**: “legeek adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak ez betetzeagatik edo ezin bete ahal izateagatik edo gaizki betetzeagatik gertatzen den egoera, betiere adingabeak behar den laguntza moral edo materialik gabe geratzen direnean”.
- **Arriskuaren** kalifikazioa, berriz, babes-betebeharrekin lotutako egoerekin lotzen da, baina ez erabat. Hain zuzen ere, egoera hauek sartzen dira arriskuaren kalifikazioan:
 - a) **Gurasoek edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak ez dituzte babes-eginbeharrak egoki betetzen, eta, desanparo-egoerara iristen ez den arren, etorkizunean gerta daiteke desanparo hori, eta, nolana ere, egoera kaltegarria da haurraren edo nerabearen garapenerako.** Administrazio publiko eskudunak esku hartu behar du kasu horietan, haurrari edo nerabeari eragiten dioten zailtasunak desagerrarazteko, murrizteko edo konpentsatzeko, haur edo nerabea desanparo-egoeran ez suertatzeko eta familia-ingurunetik bereizi behar ez izateko. Kasu horietan, haurrak edo nerabeak egokitu ezinaren sintomak izan ditzake, eta gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan egon daiteke horren ondorioz, eta
 - b) “Gizarte-zailtasuneko” egoerak ere egon daitezke, **eta, haietan, babes-eginbeharrak egoki beteta ere, beste familia-, gizarte- edo hezkuntza-inguruabar, -gabezia edo -gatazka batzuk daude, gurasoen edo tutore edo zaintzaileen kontrolpetik kanpokoak, zeinak kalteak eragiten baitituzte edo eragin baititzakete haur edo nerabearen garapenean.** Esate baterako, desiragarri ez diren identifikazio-irudiak izatea gizarte-ingurunean, zerbitzurik eza, pobrezia, delinkuentzia-indize handia, marjinazioa edo indarkeria adingabeakoaren ingurunean (ikastetxea barne hartuta) eta abar. Administrazio publiko eskudunak esku hartu behar du kasu horietan, haurrari edo nerabeari eragiten dioten zailtasunak desagerrarazteko, murrizteko edo konpentsatzeko, haur edo nerabea gizarte-bazterkeriako egoeran ez suertatzeko.

Gizarteak oro har —barnean direla bai herritarrak, bai administrazio publikoan dituzten ordezkariak— eta, bereziki, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuek tratatu egokia eman behar diete haur eta nerabeei; haien eskubideak zaindu behar dituzte, eta babesgabetasun-egoeretan eta gizarte-zailtasuneko egoeretan esku hartu behar dute, eta haurrak eta nerabeak babestu, haien garapenerako kaltegarria izan daitekeen inguruabar orotatik. Inguruabar horiek mota askotakoak izan daitezke, eta erantzun desberdinak beharko dituzte. Hala, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuek a) letran deskribatutako desanparo- eta arrisku-egoeretan esku hartzeko ildo orokorrak “gizarte-zailtasuneko” egoeretakako esku-hartzeekin zenbait alderdi komun dituzten arren, zehaztean, prozedura eta jarduteko irizpide desberdinak baliatzen dira. Alde horretatik, **Balora tresna desanparo-egoeretan eta a) letran adierazitako arrisku-egoeretan aplikatzeko diseinatu da: gurasoek edo adingabeako pertsonaren tutoretza edo zaintza duten**

pertsonen babes-betebeharrak betetzen ez dituztenean, gaizki betetzen dituztenean edo bete ezin dituztenean; hau da, pertsona horiek haur edo nerabeak pairatu duen kaltea eragin dutenean edo beste pertsona batzuen erasoetatik edo haiek egindako eskubide-urraketetatik babestu ez dutenean².

Babesgabetasunaren kontzeptuaren definizioa, haur edo nerabe baten babesgabetasuna dakarten egoera jakinen tipologia alegia, aldatu egin da denboraren eta testuinguru soziokulturalaren arabera. Kontzeptu dinamikoa da, eta denboraren joanean bilakatu da; haur eta nerabeekiko tratu egokitzat eta desegokitzat hartzen denaren arteko muga eta haur eta nerabeak zaintzeko ardura dutenen portaera jakin batzuekiko gizarte-tolerantzia aldatu egin dira, aldi historiko batetik bestera eta gizarteko ohituren eta arauen arabera. Zorionez, gurearen moduko gizarte garatuetan, gizartearen legeak eta ohiturak bilakatu egin dira haurren eta nerabeen eskubideen geroz eta babes eta estaldura handiagoa lortze aldera.

Babesa behar duten haurrei eta nerabeei dagokienez, dokumentu honetan aurkezten den definizioaren oinarria da haur eta nerabe orok oinarrizko eskubide eta premia batzuk bermatuta eta aseta eduki behar dituela bere garapen integrala sustatzeko³, direnak direlakoak izanda ere adingabe horien talde soziokulturala edo horien gurasoek edo tutoretza edo zaintza duten pertsonen talde horretan egoteagatik hartu dituzten balioak eta ohiturak. Egia bada ere haur eta nerabeen babeserako gizarte-zerbitzuek kultura bakoitzaren balioak edo ohiturak kontuan hartu eta guztiz errespetatu behar dituztela, zerbitzu horiek haur eta nerabe guztien eskubideak eta beharrak asetzen direla bermatu behar dute —emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna barnean hartuta—. Horrela ez bada gertatzen, zerbitzu horien legezko betebeharra da egoera hori zuzentzeko esku hartzea.

Hurrengo orrialdean aurkezten den koadroan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gizarte-zerbitzuen arreta behar duten egoerak biltzen dira, modu eskematikoan eta *continuum* baten parte gisa. Osteko orrialdeetan modu zehatzagoan definitzen eta deskribatzen dira.

² **Oharra:** Tresnak zenbait salbuespen jasotzen ditu, eta babesgabetasun-egoera gisa hartzen ditu haurren edo nerabearen bizikidetzan-nukleoa osatzen duten ahaideek edo gertukoek eragindakoak.

³ 3/2005 Legean jasota.

ARRISKURIK GABE	BABESGABETASUNAREKIKO zaurgarritasunA	ARRISKU ARINA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU LARRIA	DESANPAROA
<p>✓ Haurren edo nerabearen beharrekiko arreta egokia. Zaurgarritasun-faktorerik gabe.</p> <p>Egin beharreko esku-hartzea Lehen mailako prebentzioko programak</p> <p>Erakunde eskuduna Zerbitzu komunitarioen sarea</p>	<p>✓ Haurren edo nerabearen beharrekiko arreta egokia da, baina babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna dakarten zailtasun pertsonal, familiar eta sozialak daude. Etorkizunean babesgabetasuna ager daiteke. Jaio aurreko arrisku-egoerak ere sartzen dira⁴.</p> <p>Egin beharreko esku-hartzea Bigarren mailako prebentzioko programak</p> <p>Erakunde eskuduna Udaletako gizarte-zerbitzuak</p>	<p>✓ Arretan, zaintzako gabezia arinak daude.</p> <p>Egin beharreko esku-hartzea Bigarren mailako prebentzioko programak</p> <p>Erakunde eskuduna Udaletako gizarte-zerbitzuak</p>	<p>✓ Adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak egoki ez betetzea: Larritasun ertaineko babesgabetasuna, edozein motatakoa.</p> <p>Egin beharreko esku-hartzea</p> <p>✓ Familia babesteko programak ✓ Arrisku-egoeraren administrazio-adierazpena, hala badagokio</p> <p>Erakunde eskuduna Udaletako gizarte-zerbitzuak</p>	<p>✓ Adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak ezin bete ahal izatea, edo</p> <p>✓ Adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak egoki ez betetzea: Larritasun handiko edo oso handiko babesgabetasuna⁵, edozein motatakoa.</p> <p>Egin beharreko esku-hartzea</p> <p>✓ Egoera familia-ingurunean arindu daitekeenean: Familia babesteko programak. ✓ Egoera familia-ingurunean arintzea ezinezkoa denean, eta gurasoen edo adingabearen tutoretza edo zaintza betetzen dutenen lankidetzak baldin badago: Borondatezko zaintza, haur eta nerabearentzako harrera-baliabideak eta familia berrelkartzeko programak. ✓ Arrisku-egoeraren administrazio-adierazpena, hala badagokio</p> <p>Erakunde eskuduna Foru-aldundiak</p>	<p>Adingabeak behar den laguntza moral edo materialik gabe geratzen dira arrazoi hauengatik:</p> <p>✓ Adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak ez betetzeagatik, edo</p> <p>✓ Adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak ezin bete ahal izateagatik, edo</p> <p>✓ Adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak egoki ez betetzeagatik: Larritasun handiko edo oso handiko babesgabetasuna, edozein motatakoa.</p> <p>Egin beharreko esku-hartzea</p> <p>✓ Desanparo-egoeraren adierazpena egitea eta haurren edo nerabearen tutoretza bere gain hartzea, legezko aginduagatik</p> <p>✓ Aldi baterako banantzea: Familia berrelkartzeko programak eta aldi baterako harrera-baliabideak (egoitza-harrera edo familia-harrera).</p> <p>✓ Banantze iraunkorra: Harrera iraunkorrerako baliabideak (egoitza-harrera, familia-harrera, adopzioa) eta haurrentzako eta nerabearentzako laguntza-zerbitzuak.</p> <p>Erakunde eskuduna Foru-aldundiak</p>

ANPAROA				DESANPAROA
----------------	--	--	--	-------------------

⁴ Ikusi III. zatia.

⁵ Larritasun handiko edo oso handiko egoerek arrisku handia edo desanparoa eragin dezakete, honako hauen arabera: (1) egoera familia-ingurunean arintzeko gaitasuna edo ezintasuna, eta (2) gurasoen edo adingabeen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen zailtasunak konpontzeko laguntza eskatzen badiete haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuei, arazoak jabetzen direla adierazten badute, edo zerbitzu horiek egindako esku hartzeko proposamenarekin behar adina lankidetzak-maila adierazten badute.

BABESGABETASUNAREKIKO ZAURGARRITASUNA ETA ARRISKU ARINA

I. DEFINIZIOA

Haur eta nerabe horiek, oinarritzko beharrak aseta izan arren, beren gurasoek edo tutoreek edo zaintzaileek ez dute babes-betebeharrak betetzeko gaitasunik, edo ezin dituzte bete behar horiek bete; hori dela eta, haur eta nerabe horiek bizi eta moldatzen diren familia- edo gizarte-inguruneetako baldintzek kalte esanguratsua eragin ditzakete haur edo nerabeen ongizatean eta garapenean, epe labur, ertain edo luzean. Haurrak edo nerabeak oraindik ez du kalte handirik jasan, baina etorkizun laburrean horrelakorik jasan dezake.

2. EGOERAK ETA ESKU-HARTZEA

Egoerak		Esku-hartzea
A	Babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna: Familia-arazoen aurrekariak daude, edo krisiak, defizitak edo arazoak familia-egoeran. Horiek guztiak direla eta, aurreikus daiteke arazo edo egoera horiek eragin negatiboa izan ditzaketela, edo muga negatibo handiak izan daitezkeela, guraso-figurek haur edo nerabeari arreta edo zaintza egokia emateko gaitasunean. Honako hauek hartzen dira barnean, esate baterako: estres-maila altua, haurren edo nerabeen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen edo gurasoen droga- edo alkohol-kontsumoa —ezgaitzen ez duena— ama edo aita izatea nerabezaroan, gizarte-isolamendua, guraso-figuren arazo fisiko, mental edo psikologiko larriak —baina ezgaitzen ez dutenak—, edo beste haur edo nerabe batzueganako maila ertaineko babesgabetasun-aurrekariak. Jaio aurreko arrisku-egoerak ere sartzen dira.	Egoera horietan dauden haurrei eta nerabeei arreta ematea UGZe dagokie, zerbitzu komunitarioen sarearekin lankidetzan. Egin beharreko esku-hartzea prebentziokoa da, eta bigarren mailako prebentzioko programen bitartez gauzatzen da; horren helburu nagusiak adingabeengan kalte esanguratsurik ez sortzea izan behar du: <ol style="list-style-type: none">1. kalte esanguratsua eragin diezaieketen faktoreak desagerrarazi, murriztu, kontrolatu edo arinduz, eta2. familiaren barruko heziketako edo zaintza, tratu edo harremaneko ohitura desegokiak zuzenduz.
B	Arrisku arina: Gurasoek, haurren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen edo familian bizi diren pertsona helduek heziketako edo zaintza, tratu edo harremaneko ohitura desegokiak erabiltzen dituzte haurrekin edo nerabeekin . Egoera horrek ez dio kalte esanguratsurik eragin haurrari edo nerabeari (maila fisikoan, emozionalean, sozialean, kognitiboan edo sexualean), baina irauten badu, kaltea eragin diezaioke etorkizunean.	

I. DEFINIZIOA


Haur edo nerabe bat arrisku ertaineko, arrisku larriko edo desanparoko egoeran egongo da honako baldintza hauek betetzen direnean:

1. **ase gabeko oinarrizko beharrak** ditu, **osasunean, ongizatean eta garapenean kalte ESANGURATSUA eragin diotela edo eragin diezaioketela balioetsi da, eta** egoera hori **gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak babes-betebeharrak betetzeko ezgaitasuna edo ezintasuna izatearen edo** betebehar horiek **egoki ez betetzeagatiko ZUZENEKO ONDORIOA** da⁶,

EDO

2. **gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ezgaitasuna edo ezintasuna** babes-betebeharrak betetzeko **hain da larria edo latza, non epe laburrean haurraren edo nerabearen oinarrizko beharrak aseko dituztela bermatzea eragozten duen.**

Larritasun ertaineko, handiko edo oso handiko babesgabetasun-egoera dagoela zehazteko baldintzak



⁶ Kasu horietan, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak beren babes-betebeharrak modu egokian ez betetzea eragiten duten faktoreen balorazioa oso garrantzitsua da jarraitu beharreko esku-hartzea erabakitzeko, baina ez dira erabakigarriak babesgabetasuna dagoen ala ez balioesteari dagokionez.

2. EGOERAK ETA ESKU-HARTZEA

<i>Egoerak</i>	<i>Esku-hartzea</i>
<p>A Gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen aldi baterako edo behin betiko ezintasuna adingabeen zaintzarako ezarritako babes-betebeharrak betetzeko, behar den laguntza morala edo materiala galtzerainoko modukoa, honako arrazoi hauengatik: heriotza, espetxeratuta egotea, gaixotasun fisikoa, mentala edo toxikomania ezgaitzaileak, bitarteko materialen muturreko gabezia (edo antzeko kausa), eta haurra edo nerabea zaintzeaz ardura daitekeen ahaiderik ez izatea (bakarrik dauden adingabe atzerritarrak barnean hartzen dira).</p>	<p>Haurraren edo nerabearen zaintza edo tutoretza⁷ bere gain hartzea. Esku-hartzea lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen eskumenekoa izango da (foru-aldundiena).</p>
<p>B Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen adingabeen zaintzarako ezarritako babes-betebeharrak ez betetzea, behar den laguntza morala edo materiala galtzerainoko modukoa: adingabearen erabateko abandonua edo antzeko kausa.</p>	<p>Desanparo-egoeraren adierazpena eta haurraren edo nerabearen tutoretza bere gain hartzea. Esku-hartzea lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen eskumenekoa izango da (foru-aldundiena).</p>
<p>C Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen adingabeen zaintzarako ezarritako babes-betebeharrak egoki ez betetzea, behar den laguntza morala edo materiala galtzerainoko modukoa:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. larritasun ertaineko, handiko edo oso handiko babesgabetasuna (edozein motatakoa), gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen eragindakoa 2. gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ezintasuna adingabea babesteko beste pertsona batzuek —helduak edo adingabeak— eragindako larritasun ertaineko, handiko edo oso handiko babesgabetasunetik (edozein motatakoa). 	<p>Larritasunaren arabera, egoera horiek honelako kalifikazioa izan ditzakete:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Larritasun ertaineko babesgabetasuna. Esku-hartzea udal-mailako gizarte-zerbitzuen eskumenekoa izango da. ▪ Larritasun handiko edo oso handiko babesgabetasuna —haurra edo nerabea familiatik bananduta edo gabe—. Esku-hartzea lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen eskumenekoa izango da (foru-aldundiena).

⁷ Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gizarte-zerbitzuek hartutako kasuak bakarrik. Beste kasu batzuetan, esku-hartzea instantzia judizialean soilik gauzatuko da (adibidez: tutoretza-eskaera arruntak).

II. ZATIA

***Arrisku- eta desanparo-egoerak:
Larritasunaren balorazioa***

Arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko irizpide orokorrak eta prozedura

- Dokumentuaren zati honetan modu zehatzagoan definitzen dira haur edo nerabe baten arrisku- edo desanparo-egoera eragin dezaketen eta, beraz, udal- edo lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen esku-hartzea eska dezaketen egoera-motak. Dokumentuak ez du zehazten kategoria honetan biltzen diren egoeren sorta zabalak. Hain zuzen ere, egoera horietan, haurraren edo nerabearen beharren gaineko arreta egokia dagoen arren, familia-arazoen aurrekariak daude, edo zailtasun pertsonal, familiar edo sozialak, eta horiek guztiak **babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna** dakarte; **egoera horri aurre egitea ere gizarte-zerbitzuen eskumena da**. Egoera horiek tresna honetan ez sartzeak ez du esan nahi haietan esku hartzeak garrantzi txikiagoa duenik edo lehentasunezkoa izan ez daitekeenik. Esku-hartze horiek lehenbailehen hasi beharko dira, eta arreta berezia eman behar zaie adin txikieneko haurrei (sei urtetik beherakoak) eta ezintasun fisikoak, mentalak edo sentsorialak dituztenei.
- Dokumentuan **familia baten barruan gerta daitezkeen arriskuko eta desanparoko hainbat egoera-mota** biltzen da. **Zerrendak oso zehatza izan nahi du, baina hemen biltzen ez diren salbuespen-egoerak izan daitezke, eta, hala badagokio, behar bezala deskribatu beharko dira.**

Dokumentuan bildutako egoera guztiak honako ezaugarri hauek dituzte:

- a) Adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak ez betetzea, ezin bete ahal izatea edo egoki ez betetzea inplikatzeko dute.
- b) Haurraren edo nerabearen oinarrizko beharrei (fisikoak edo psikikoak) arretarik ez ematea edo arreta desegokia ematea (ekintzagatik edo ez egiteagatik) eta
- c) Adingabearengan kalte esanguratsua eragiten dute edo ziur asko eragingo dute, eta adingabeak behar duen laguntza morala edo materiala galtzerainokoa izan daiteke hori.

Tresnak hartzen duen denboraldia

- Tresna haurra edo nerabea une jakin batean jasaten ari den babesgabetasunaren larritasuna balioesteko erabili behar da, babesgabetasunaren tipologia guztiak kontuan hartuta. Informazioa jasoko da eta kontuan hartuko da tipologia horiek agertu zirenetik izandako bilakaera, nahiz eta larritasun-mailaren **balorazioan** honako hauei emango zaien **garrantzi handiena**: (1) zer ezaugarri dituen aitaren, amaren edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaerak eta (2) jokabide horiek zer eragin duten haur edo nerabearengan **balorazioaren unean** (**azken sei hilabeteak** ulertuko dira).

Larritasun-mailak, kalifikazioa eta esanahia

- **Babesgabetasun-mota bakoitzarentzat**, tresnak honako hau deskribatzen du:
 1. larritasun ertaina, handia eta oso handia (larritasun-mailarik aurreikusten ez den salbuespenezko kasuak izan ezik), eta
 2. zaintza-eginberrak betetzean gabezia arinak dakartzaten egoerak, “arrisku arina” dakartenak.

Tipologia bakoitzean, larritasun-mailaren deskribapena ematen da. Gerta daitezkeen inguruabar guzti-guztiak zehaztasunez biltzea ezinezkoa denez gero, **larritasun-mailetan adierazten ez diren egoerak gertatzen badira, antzeko inguruabarrak deskribatzen dituen mailan sailkatu beharko dira.**

Larritasun-maila bakoitzean bildutako inguruabarrak paragrafo batean deskribatzen dira. Paragrafo hori **hainbat esaldik osatzen dute, eta esaldi-multzoak egoera edo familia-harremanen mota jakin bat deskribatzen du**. Larritasun-maila bat kalifikatzeko ez da beharrezkoa izango paragrafo horietan jasotako esaldietan adierazitako **guzti-guztiak** gertatzea; nahikoa izango da esaldi horietan adierazitako funtsezko zati bat gertatzea eta paragrafoan deskribatutako egoera-motak ebaluatutako kasuan gertatzen dena islatzea edo horrekin bat etortzea. Tresnak **“ETA”** hitzaren bitartez (letra larriz eta azpimarratuta) seinalatzen du zein egoeratan eskatzen den larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko inguruabar batzuk batera gertatzea.

Jokabide edo egoera jakin bat tipologia edo eskala bat baino gehiagotan jaso daitezkeen, **horietako bakar batean soilik** kalifikatuko da: **larritasun-maila altuena** duen tipologian, hain zuzen. Eskala desberdinek larritasun-maila berdina azaltzen badute, **adierazle garrantzitsuenak biltzen dituen** eskalan kalifikatuko da.

Tipologia jakin batzuen larritasun-mailek haur edo nerabearen **adin kronologikoa** hartzen dute kontuan, **eboluzio-etapen bereizketa generikoan** oinarrituriko **tarteak** ezarriz: (1) sei urtetik behera, (2) sei urtetik hamabi urtera bitartean eta (3) hamahiru urte edo hortik gora (nerabea). Larritasun-maila kalifikatzeko, tarte horiek errespetatu behar dira.

- Tresnaren azken zatian **hiru egoera berezi** jasotzen dira (**“Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen eragindako babesgabetasun larriko aurrekariak”, “Zailtasun pertsonal larriak gurasoarengan edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonengan” eta “Gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen aldi baterako edo behin betiko ezintasuna, babes-eginberrak betetzeko”**) eta, tresnan bildutako baldintzetan badaude, **kasuaren larritasun-mailaren balorazioa “larritasun handia” izatea** ekarriko dute automatikoki. **—arrisku larria edo desanparoa—**. Egoera berezi horiek babesgabetasun-egoera batekin edo batzuekin batera edo bakarrik gerta daitezke.
- **Tipologia bakoitzaren banakako larritasun-mailaren balorazioa egin ondoren, kasuaren larritasun-mailaren balorazio globala egin behar da: ARRISKURIK GABE, ARRISKU ARINA, ARRISKU ERTAINA, ARRISKU LARRIA EDO DESANPAROA**⁸. Balorazio hori honako irizpide hauen arabera egingo da:
 - **Larritasun oso handiko edo larritasun handiko adierazle bat baldin badago, gainerako adierazleen larritasuna edozein izanik, kasuaren balorazio globala arrisku larriko edo desanparoko egoera izango da**, eta, beraz, horren gaineko esku-hartzea lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen eskumenekoa izango da. Hori horrela

⁸ Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuei dagokie larritasun handiko edo oso handiko babesgabetasun-adierazleak dituen kasu bat arrisku larriko edo desanparoko egoera den zehaztea.

izango da, familiak esku-hartzearen aurrean duen jarrera eta prestasuna edozein dela ere. Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek erabakiko dute arrisku larriko edo desanparoko egoera den ala ez, betiere haurrari edo nerabeari eta horren familiari buruz jasotako informazioa kontuan hartuta.

- **Larritasun handiko edo oso handiko adierazlerik egon gabe, gutxienez larritasun ertaineko adierazle bat baldin bada, kasu horretako babesgabetasun globalaren balorazioa arrisku ertainekoa izango da.** Behar bezala arrazoituta salbuespenetan izan ezik, larritasun ertaineko adierazle bat baino gehiago aldi berean egoteak ez du kasuaren larritasun-maila globala handitzen. **Larritasun ertaineko, handiko edo oso handiko adierazlerik egon gabe, arrisku arineko adierazleak baldin badaude, kasu horren balorazio globala arrisku arinekora izango da.** Kasu horretan ere, eta behar bezala arrazoituta salbuespenak ez badaude, larritasun arineko adierazle bat baino gehiago aldi berean egoteak ez du ekarriko kasuaren larritasun-maila globala arriskua ertainera igotzea. Kasu horietan, esku-hartzea udal-mailako gizarte-zerbitzuei dagokie.
 - Kasu baten larritasun-maila globala zehaztu baino lehen, honako elementu hauek **balioetsi beharko dira beti** —babesgabetasuneko adierazleak dauden ala ez eta horien larritasuna balioesteaz gain—: gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen beren zailtasunak konpontzeko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuei (udal- nahiz lurralde-mailakoak) **laguntza eskatu** ote dieten, **arazoak jabetzen** direla adierazi ote duten, eta zerbitzu horietan egindako **esku hartzeko proposamenarekiko zer lankidetzaren maila azaldu duten.**
- **Arrisku ertaineko edo arrisku larriko** kasuetan, **gurasoen edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen lankidetzaren aktibitate ez bada** (ikus hurrengo paragrafoa), 1/1996 Lege Organikoaren 17.5 artikuluan xedatutakoarekin bat (uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan), **haurraren edo nerabearen arrisku-egoeraren adierazpena egin beharko da —administrazio-ebazpen baten bitartez—**, gurasoei edo zaintza edo tutoretza betetzen duten pertsonen bermea izan behar duten informazioa ematen zaiela, nola jardun behar duten jakin dezaten, **larritasun-maila areagotzea eragozteko eta desanparatu-egoerako adierazpena gerora egin behar ez izateko**; azken finean, arrisku-egoeraren adierazpena **eskatzen den beharrezko lankidetzaren ematera bultzatzeko** neurri gisa ezartzen da.

Arrisku ertaineko kasuetan, udal-mailako gizarte-zerbitzuek emango dute administrazio-ebazpena, eta arrisku larriko kasuetan, berriz, lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek emango dute, aurretik gurasoei, tutoreei edo zaindariari entzunda, bai eta adingabeak izan daitezkeenentzunda ere, behar adina heldutasun badu eta, beti, hamabi urtetik gora baditu. Ebazpena behar adina arrazoitu beharko da, eta haurraren edo nerabearen arrisku-egoera zuzentzeko neurriak jaso beharko ditu, gurasoen, tutoreen, zaindariaren edo hartzaiaren eginbeharrak dagozkienak barne. Adingabearen arrisku-egoeraren adierazpena emateko administrazio-ebazpenaren aurka, errekurtsioa jartzeko aukera izango da, Prozedura Zibilarren Legearekin bat. Nolanahi ere, **arrisku-egoeraren adierazpenak, berez, ez dakar inolara ere larritasun-maila handitzea.**

Ezein kasutan, arrisku-egoeraren adierazpen bakarra egingo da, eta adierazpena egitea eragiten duten inguruabarrak (adin txikikoen babes juridikoari buruzko Lege Organikoaren 17.5 artikulua) gertatzeko unean kasuan esku hartzen ari den udal-mailako edo lurralde-mailako gizarte-zerbitzuak egin beharko du. Hala, arrisku-egoeraren adierazpena egin ondoren, esku hartzeko prozedura egin bitartean, adierazpena eragin zuten inguruabarrak aldatzen badira, eta, horren ondorioz, arrisku-egoeraren larritasun-maila handitu edo txikitu egiten bada eta gizarte-zerbitzu batetik bestera (udal-mailakoak eta lurralde-mailakoak) bideratu behar bada, jatorrizko gizarte-zerbitzuan egin zen arrisku-egoeraren adierazpenari eutsiko zaio, esku-hartzea egiteko eskudun izendatzen den gizarte-zerbitzu berriak arrisku-egoeraren adierazpen berririk egin beharrik gabe.

Arrisku-egoeraren adierazpena bertan behera utzi beharko da hura egitea eragin zuten kausak desagertzen direnean; hau da, haurrari edo nerabeari eragiten dion arrisku-egoera zuzendu denean eta, beraz, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuen esku-hartzea amaitu denean.

- Haur edo nerabearen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **eta** haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuen artean **lankidetzaren aktibitate ez dagoela jartzeko**, honako hauek behar bezala frogatu eta dokumentatu beharko dira: zer jardun profesional egin diren lankidetzaren hori lortzeko (esaterako, zer baliabide eskaini diren, zer unetan eskaini diren, zer profesionalen esku hartu duten); haurraren edo nerabearen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen esku-hartze horiek jaso dituztela edo haien berri izan dutela; haien lankidetzaren aktibitate nahikoa jaso ez dela —**lankidetzaren falta zertan gauzatu den zehaztu beharko da**—; eta egoera horrek haurrak edo nerabeak pairatzen duen babesgabetasun-egoera zuzentzea eragozten duela. Adin Txikikoen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren —aurrerantzean, 1/1996 Legea— 17.4 artikuluan xedatutakoarekin bat (Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legean emandako idazketan), hor sartzen da frogatzea haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuek ahalegin guztiak egin dituztela, garaiz eta forma egokian, familiarentzako gizarte- eta hezkuntza-erloto esku hartzeko proiektu bat martxan jartzeko edo arreta indibidualizatuko arreta-plan bat martxan jartzeko, familiaren arazoak konpontzeko, eta ahalegina egin dela gurasoek,

tutoreek, zaintzaileek eta hartzaileek proiektu edo plan hori egiteko prozesuan parte hartzeko, bai eta haur edo nerabeak parte hartzeko ere (nahikoa heldutasun badu eta, beti, hamabi urtetik gora baditu), eta ahalegin horiek guztiak eginda ere, gurasoek, tutoreek, zaintzaileek edo hartzaileek uko egin diotela plan hori izenpetzeari eta gerora ere ez direla lankidetzan aritu plana gauzatzean.

- Baldin eta haur edo nerabearen gurasoek edo zaintza edo tutoretza duten pertsonak esku-hartzearekiko lankidetzak aktibo nahikorik ematen ez badute (1), arrisku-adierazleak “arrisku ertainaren” eta “arrisku larriaren” arteko muga badaude (2), **eta** udal-mailako gizarte-zerbitzuek emandako arrisku-egoeraren adierazpenak behar den eta eskatu den lankidetzak lortzea ekarri ez badu (3), kasua “arrisku larriko” kasutzat balioetsi daiteke, baldin eta udal-mailako eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetako talde teknikoek horrekin ados badaude.
 - Larritasun handiko edo oso handiko babesgabetasuneko kasuetan, nahikoa lankidetzak aktiborik ez agertzea elementu erabakigarria da egoera “arrisku larria” edo “desanparoa” den zehazteko.
 - Esku hartzeko proposamenarekiko lankidetzak aktiboak ez du ekarriko larritasun-maila globala arrisku larritik arrisku ertainera edo arrisku ertainetik arrisku arinera jaitea.
- Garrantzitsua da kontuan hartzea arrisku ertaineko, arrisku larriko eta desanparoko egoerek kalte esanguratsua —erreal edo potentziala— dakartela haurraren edo nerabearen ongizatean eta garapenean. Alde horretatik, **egia bada ere arrisku ertaineko egoerek arrisku handiko edo desanparoko egoerek baino kalte txikiagoa eragiten dutela, ez dute inolaz ere kezka txikiagoa merezi, eta ez dute esku hartzeko premia txikiagoa eragiten.**

Bestalde, larritasun-maila bakoitza continuum bat da, eta egoera desberdinak hartzen ditu, zeinak gehiago edo gutxiago hurbiltzen baitira mailaren mutur batera edo bestera. Horrek esan nahi du, adibidez, larritasun-maila ertainean sartzen diren kasu batzuk gertuago daudela arrisku arinetik, eta beste batzuk, berriz, gertuago daudela arrisku larritik. Gauza bera gertatzen da gainerako mailetan.

- Larritasun-maila ertaineko, handiko edo oso handiko babesgabetasun-egoeretan, garrantzitsua da kontuan hartzea babesgabetasunaren larritasuna ez dela familian dauden arazoan larritasunaren edo arazo horiei aurre egiteko zailtasunaren sinonimoa, baina lotura estua dago haurrari edo nerabeari eragindako kaltearen larritasunaren eta familiako arazoan kopuru eta larritasunaren artean (zailtasun pertsonalak guraso-figurengan, gabeziak guraso-gaitasunetan, drogen edo alkoholaren abusua, isolamendu soziala, zailtasun ekonomikoak eta lanekoak eta abar). **Babesgabetasunaren larritasuna, funtsean, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaerak haurraren edo nerabearen duen eraginaren arabera ebaluatzen da, eta ez familiaren barruan eragina duten arazoan kopuruaren edo larritasunaren arabera ebaluatzea.**
- Familia baten inguruabarrak alda daitezkeen bezalaxe, babesgabetasunaren larritasuna ere alda daiteke denboraren joanean. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gizarte-zerbitzuen esku-hartzeagatik edo familiaren eta ingurunearen berezko bilakaeragatik gerta daitezke aldaketa horiek. Zerbitzu horiek gauzatutako esku-hartze mota edozein dela ere, horrek esan nahi du familia batean era honetako egoera bat detektatzen bada, etengabeko ebaluazioa egin behar du zaiola familia horri, bereziki babesgabetasun-egoeraren larritasuna ertaina, handia edo oso handia bada, haurren eta nerabeen egoerari dagokionez, horiek jasotzen dituzten zaintzak eta arreta maila egokian daudela eta aldaketak behar bezain egonkorrak direla bermatu arte.

Horren ildotik, kontuan hartu beharra dago babesgabetasunaren larritasunaren balorazioa familia eta haur edo nerabe baten bizitzaren una jakin batean egiten dela. **Iraganean gerta zitezkeen eta balorazioaren unean aurkitzen ez diren babesgabetasuneko egoerak ez dira halakotzat kalifikatuko, ezta haurraren edo nerabearen izandako ondorioek irauten dutenean ere.** Familia baten barruan iraganean izandako babesgabetasuneko egoerak ezagutzea oso garrantzitsua da, arrazoi askorengatik: gurasoak trebatzeko aukerei buruzko pronostikoa egiteko, haurraren edo nerabearen arazoan edo zailtasunen jatorria ulertzeko eta abar. Hala ere, inguruabar horrek ez du eraginik izan behar babesgabetasun-egoera dagoen edo ez balioesterakoan, ezta horrek beste une batean izan dezakeen larritasunaren balorazioa egiteko orduan ere.

“Kalte esanguratsuen” definizioa

- Haur edo nerabe bat haren gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaeraren ondorioz osasunerako, ongizaterako edo garapenerako “kalte esanguratsu” bat pairatzen ari dela edo pairatzeko arriskuan dagoela aintzat hartzea funtsezko elementua da arrisku- edo desanpar-egoera badagoen zehazteko.

Haur edo nerabe baten gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaerak haurrak edo nerabeak zenbait arlotan kalteak izatea eragin dezake:

1. **Kalte fisikoa.**

2. Kalte psikikoa. Honako arlo hauek hartzen ditu: arlo **emozionala** (batez ere, identitatearen eraikuntza; autoestimua; segurtasuna eta konfiantza izatea norberarengan eta ingurunean; emozioak identifikatzea, kudeatzea eta kontrolatzea), arlo **soziala** (beste pertsonetikiko —berdinekiko nahiz helduekiko— komunikazio- eta harreman-ereduak) arlo **kognitiboa** (egokitzapenerako abilezia-multzo bat —gaitasunak, jokabideak eta trebeziak— apurka-apurka eskuratzea; abilezia horiei esker, pertsonak bere adin kronologikoari dagozkion rolak egoki bete ahal izango ditu ohiko inguruneetan eta bere erreferentzia-taldeen)⁹ eta arlo **sexuala** (identitate eta orientazio sexuala eratzerako prozesua, sexualitatearen adierazpena eta jokabide sexuala).

- **Kalte esanguratsua continuum bat da** eta haren muturrean **kalte larria** (fisikoa edo psikikoa) dago.
- Babesgabetasuna badagoen eta haren larritasun-maila zenbaterainokoa den balioestean, kalte horren —erreal edo potentziala— intentsitatea kontuan hartu behar da, eta kalte hori esanguratsua denean edo izan daitekeenean soilik ondorioztatu ahal izango da babesgabetasuna dagoela. Alde horretatik, haur edo nerabe batek gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaeraren ondorioz pairatzen duen kaltea **kalte esanguratsua** dela jotzeko, **inguruabar hauetako batek edo batzuek** gertatu beharko dute:
 - Haurrak edo nerabeak garapen-arlo batean edo batzuetan (fisikoa, emozionala, soziala, kognitiboa edo sexuala) pairatzen duen kaltea dela eta:
 - bere adinerako eta egoerarako espero daitekeenaren mugetan jartzen da, edo funtzionamendu erabat mugatua edo nahasia du,
 - garapen-arlo bateko edo batzuetako zailtasunek irau egiten dute eboluzio-etapetan, edo
 - kalteak gutxienez bi garapen-arlori eragiten die aldi berean (arlo fisikoa, emozionala, soziala, kognitiboa edo sexuala) (*eragindako arloaren arabera, osasunaren, hezkuntzaren, psikologiaren edo psikiatriaren arloko profesional baten balorazioa beharko da*).
 - Babesgabetasunak heriotzako, ezintasun iraunkorrek edo gaixotasun eta nahaste fisiko oso larriko arriskuan jarri du haurra edo nerabea.
 - Haurrak edo nerabeak lesio fisikoak ditu gorputzaren zona jakin batzuetan (aurpegian, buruan, gorputzaren barruko lesioak, uzkie, genitaletan), edo ospitaleratzea edo tratamendu medikoa behar du tratatu txar baten ondorioz (*kasu hauetan, mediku-txostena izan beharko da*).
 - Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haurra edo nerabea abandonatu dute, itzultzeko asmorik erakutsi gabe.
 - Haurrak edo nerabeak familiaren barruko sexu-abusua pairatu du —kontaktu fisikoarekin edo gabe—.
 - Haurra edo nerabea delitu-ekintza larriak egitera edo prostituzioan aritzera induzitu dute, edo sexualki esplotatu dute.
- Haur edo nerabe batek pairatu duen edo pairatu dezakeen kaltean, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaeraz gain, eragina dute haurren edo nerabearen ezaugarri pertsonalek. Ezaugarri horiek direla eta, haurra edo nerabea bereziki zaurgarria izan daiteke. Haur eta nerabe horiek —multzo horretan sartzen dira **haur jaioberriak, sei urtetik beherakoak, edo gaixotasun edo ezintasun fisikoak, mentalak edo sentsorialak dituztenak**— haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuen arreta berezia izan behar dute.

[Haurrak edo nerabeak kalte psikikoa ote duen eta kalte horren larritasuna nolakoa den ebaluatzea](#)

Kalte psikikoaren ebaluazioaren berezitasunak

- Kalte fisikoa eta haren larritasun-maila errazago detektatzen dira kalte psikikoa baino. **Kalte psikikoaren sintomak** modu askotan ager daitezke, haurren edo nerabearen bilakaera-mailaren arabera. Horien artean dira **barneratuko arazoak** (adibidez: sintoma depresiboak, antsietatea, portaerako inhibizioa, uzkurutasuna, isolamendua) eta **kanporatuko arazoak** (adibidez: jokabide oldarkorrak, portaera asozialak, edo portaera desafiatzaileak). Sintoma psikosomatikoak, gainegokitzea edo sasi-heldutasuna ere ager daitezke. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi gainegokitzea edo sasi-heldutasuna nahitaez kalte psikikotzat hartu behar direnik, hain zuzen ere haurrak edo nerabeak bere familian izandako tratatu edo zaintza desegokia gainditu duela eta egokitzapen egokia izan duela adieraz baitezakete.

⁹ **Garapen kognitiboa eta aprobetxamendu akademikoa ez dira termino baliokideak.** Gaitasun kognitiboak garatzeak eragin handia du eskolako errendimenduan, baina faktore askok eragin dezakete errendimendu baxua izatea, eta horrek ez du ezinbestean esan nahi atzerapen edo kalte kognitibo esanguratsua gertatzen denik.

- Kalte psikikoaren presentzia eta larritasuna psikologiako edo psikiatriako profesionalak ebaluatu beharko dute, beren lanbidearen tresna propioen eta metodologiaren bitartez¹⁰; besteak beste, behaketak eta elkarrizketak, eta estandarizatutako tresnak. Estandarizatutako tresnak, hain zuzen, proba proiektiboekin osatu daitezke, beharrezkoa edo egokia dela joz gero. Estandarizatutako tresnak erabiltzen direnean, fidagarritasun eta baliozkotasun frogatua dutenak erabiliko dira, bereziki larritasun handiko kasuetan aplikatzen direnean edo gizarte-zerbitzuen esku-hartzea justifikatzeko erabiliko direnean, haurraren edo nerabearen gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak esku-hartzearen aurka egonda.
- **Oinarrizko premiak aseta ez dituen haur edo nerabe batengan kalte psikikoko sintoma behagarririk ez ikusteak ez du nahitaez esan nahi kalterik ez dagoenik.** Kaltea hor egon daiteke eta aurrerago sintoma bizien bitartez ager daiteke, edo, egoerak une honetan kalte handirik eragiten ez duen arren, gerta liteke etorkizunean kaltea sortzea, egoera zuzentzen ez bada.
- Beharrezkoa da datuak biltzea, **ez soilik** gurasoen portaerak haur edo nerabearengan **gaur egun duen eraginari buruz** (gaur egungo egoera), baita eragin horren **bilakaerari buruz** ere (nola zegoen orain dela 6, 12, edo 18 hilabete). Sintomatologiaren bilakaera (hobetzen, okertzen edo egonkortzen ari ote den) funtsezko elementua izaten da tipologia batzuetan larritasun-maila zehazteko. Sintoma nabarmenei dagokienez, garrantzitsua da intentsitate-maila zehaztea eta xehetasunak ematea (nerabe batek bere gizarte-harremanetan zailtasunak baditu, zertan adierazten diren zehaztea: ez du batere lagunik, lagunak baditu baina ez dute modu egokian tratatzen eta abar).
- Haur edo nerabe batek pairatzen duen kaltearen eta bere gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ematen dioten tratua arteko kausa-efektua ezartzea oso zaila da, batez ere fisikoak ez diren sintomen kasuan. Kasu gehienetan, lotura hori hipotesi edo probabilitate-estimazioen moduan baino ezin da adierazi, eta oso gutxitan adieraz daiteke erabateko ziurtasunez. Horrelakorik egiten denean, **behar bezala arrazoitu** beharko dira **hipotesi edo estimazio** horiek, eta haurren eta nerabeen garapenean babesgabetasun-egoerak dituzten ondorioei buruz egun eskuragarri dagoen ezagutzan oinarritu beharko dira. Irizpide berdinak aplikatu beharko dira, egoera jakin batek haur edo nerabe baten garapenean etorkizunean eragin dezakeen kalteari buruz iragarpenak egiten direnean.

Kalte psikiko larria

- Kalte psikiko esanguratsuen barruan, eta aurreko atalean adierazitakoa kontuan hartuta, hau da **kalte psikiko larriaren** definizioa: haurrak edo nerabeak **inguruabar hauetako bat edo batzuk izatea**:
 1. **nahaste psikopatologikoa**,
 2. **sintoma klinikoak**¹¹ (antsietatea, depresioa, uzkurutasuna, jokabide ukatzailea, jokabide erasotzaile edo autosuntsigarriak, edo garapeneko atzerapenak),
 3. **garapeneko eta egokitzapen pertsonal eta sozialeko prozesua larriki eragozten duten eta berehalako tratamendu espezializatua behar duten jokabide-arazo eta ondoez-sintoma larriak egotea.**
- **“Garapeneko eta egokitzapen pertsonal eta sozialeko prozesua larriki eragozten duten jokabide-arazo edo ondoez-sintoma larriak” direla-eta kalte psikiko larria dagoela jotzeko, honako hauek hartu beharko dira oinarritzat:**
 - Haurrak edo nerabeak garapen-arlo guztietan (fisikoa, emozionala, kognitiboa, soziala eta sexuala) agertzen dituen portaera-arazoen edo ondoez emozionaleko sintomen **zerrenda osoa**. Halaber, iraganeko eta gaur egungo arazoak eta sintomak sartuko dira, hauteman direnak eta garrantzitsuak izan daitezkeenak, larriak izan ez badira ere.
 - Arazoen edo sintoma nagusien **hasiera-unea eta bilakaera**, azken sei hilabeteetako egoerari arreta berezia emanda.
 - Arazo edo sintoma horiek balorazioa egiteko unean haur edo nerabearen **eguneroko bizitzan duten eraginaren** deskribapena.

Garrantzitsua da kontuan hartzea arazoen edo sintomen zerrenda bat ez dela berez nahikoa kalte psikiko larria dagoela justifikatzeko, arazo horiek haur edo nerabearen eguneroko bizitzan zer-nolako eragina duten eta zer-nolako bilakaera duten deskribatzen ez bada.

¹⁰ Adin txikiko haurren eta ezintasunak edo behar bereziak dituzten haurren ebaluaziorako, horretarako dauden irizpide, metodologia eta teknika espezifikoak erabiliko dira.

¹¹ Diagnosi-teknika objektiboak edota fidagarritasun- eta baliozkotasun-indize egokiak dituzten tresnak aplikatuz erabakiko da sintoma **klinikorik** badagoen.

Portaera-arazo edo ondoez emozionaleko sintoma larriak daudela oinarritzeko txostenean informazio hori jaso beharko da. Informazio hori argi eta garbi adieraziko da, eta arazo eta sintomek haurrengan edo nerabearengan duten eragina deskribatu beharko da. Arazo edo sintoma nagusiei buruzko informazioa lortzeko, testuinguru bat baino gehiago behatuko da (esaterako, ikastetxea, familia nuklearra, familia zabala), bai eta gutxienez bi informazio-iturri independenterekin egiaztatu ere.

- “Garapeneko eta egokitzapen pertsonal eta sozialeko prozesua larriki eragozten duten eta berehalako tratamendu espezializatua behar duten jokabide-arazoak edo ondoez emozionaleko sintoma larriak” daudela zehazteko, **irizpide** hauek erabiliko dira:
 1. Haurraren edo nerabearen sintomak argi eta garbi hautematen dira gutxienez bi garapen-arlotan (fisikoa, emozionala, kognitiboa, soziala edo sexuala), eta ez dira noizean behingo kontuak, baizik eta iraunkorrak —gerta liteke hasieran arinak izatea eta gero eta intentsitate handiagoa hartzen joatea—.
 2. Arazoak edo sintomak agerikoak dira haurraren edo nerabearen bizitzako esparruetako batean gutxienez (familia-esparrua, eskola-/prestakuntza-/lan-esparrua, esparru soziala).
 3. Arazoak edo sintomak oztopo edo muga larriak dira haurrarentzat edo nerabearentzat inguruabar hauetako batean edo batzuetan:
 - berdinkideekin eta pertsona helduekin harreman interpersonal positiboak eta eraikitzaileak izateko,
 - bere bizitzako esparruetan egokitzeko (esaterako, familian, eskolan¹² edo prestakuntza-, lan- eta gizarte-inguruneetan),
 - eboluzio-mugarriak lortzeko, autonomia-mailak erdiesteko, erantzukizunak bere gain hartzeko, edo bere adinean espero daitezkeen jarduerak egiteko,
 - bere segurtasun eta osotasun propioa edo beste pertsona batzuen babesteko,
 - bere osasun fisikoa babesteko edo oinarritzeko behar fisikoen arloan bere adinean espero daitezkeen autozaintza egiteko (esaterako, atsedena, elikadura, jarduera-maila, osasuna),
 - gizarte-arauen errespetuan (hau da, gizartearen aurkako jokabideak eragiten dituzte).
 4. Haurraren edo nerabearen portaera-mota edo -intentsitatea ez dator bat bere adinerako, sexurako eta kulturarako espero daitezkeenarekin.
 5. Berehalako esku-hartze terapeutikoa¹³ egin behar da haurraren edo nerabearen arazoak edo sintomak egonkortzeko edo zuzentzeko.

“Kalte psikiko larria” dagoela jotzeko, haurrak edo nerabeak portaera-arazo edo ondoez emozional larria duela oinarri hartuta, aurreko **best irizpideek** egon behar dute.

Inguruabar bereziak

• Banandutako edo dibortziatutako bikoteak

- Babesgabetasunaren existentziaren eta horren larritasunaren balorazioan, denboraldi nahiko luzeak eta erregularrak bizikidetzaren unitate desberdinetan igarotzen dituzten haurrak edo nerabeak barnean hartzen direnean —horixe da bikote bananduen edo dibortziatuen seme-alaben kasua—, babesgabetasun-arrastoak identifikatu diren bizikidetzaren nukleoan soilik egingo da balorazioa.

Hala ere, banandutako edo dibortziatutako bikoteen kasuetan, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuek egoera horren berri guraso baten bitartez izan badute (zaintza duen gurasoa izan edo ez), hark esan dielako beste bizikidetzaren nukleoan babesgabetasun-aztarnak daudela, erabaki egin beharko da, kasuaren inguruabarren arabera, aztarna horien ikerketa hasiko den edo, prozesu hori abiarazita edo abiarazi gabe, egokia den egoeraren berri eman duen gurasoa dagozkion instantzia judizialetara

¹² Eskola-errendimendua eta -portaera sartzen da.

¹³ Esku-hartze terapeutikoa errehabilitazioko esku-hartzea esan nahi du. Hor sartzen dira bai arreta psikoterapeutikoa edo farmakologikoa, bai laguntzarako esku-hartzeak, *counsellinga*, estimulazioa eta abar. Ez du esan nahi profesionalak haur edo nerabearekin ezinbestean esku hartu behar dutenik (esate baterako, gurasoen edo legezko arduradunen eta haur edo nerabearen arteko interakzio-ereduak aldatuz egin daiteke hori).

bideratzea (penala, deliturik egon daitekeela jakinarazi badu, edo zibila), instantzia horietan eska ditzan haurra edo nerabea babesteko neurriak (larrialdiko egoeretan, egoeraren berri eman duen gurasoari esan daskioke kautela-neurriak eska ditzakeela)¹⁴.

Banandutako edo dibortziatutako bikoteen kasuetan, bi bizikidetzan-nukleoetan babesgabetasun-aztarnak daudela susmatzen edo detektatzen bada, haurrak edo nerabeak **bizikidetzan-nukleo bakoitzean**¹⁵ zer tratu eta zainketa-maila jasotzen dituen balioetsiko dute haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuek. Hala ere, **haur edo nerabearen babesgabetasun-egoeraren eta haren larritasun-mailaren azken balorazioa bakarria izango da**. Horrek ez du kentzen, lehen aipatu bezala, bizikidetzan-nukleo bakoitzean babesgabetasuna sor dezaketen portaerak bereizi behar direla (hau da, haurrak edo nerabeak nukleo bakoitzean jasotzen dituen tratua eta zainketak), azterketa horretatik sortuko baita esku hartzeko proposamena kasu horretarako. Egokia bada, proposamen hori gurasoetako bat dagozkion instantzia judizialetara bideratzea izan daiteke, aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako.

Aurreko paragrafoetan deskribatutako inguruabarrak gertatzen direnean, kasua udal-mailako gizarte-zerbitzuen esku badago, zerbitzu horiek eskatuko diote dagokion gurasoari instantzia judizialetara jotzeko, uste badute esku-hartze horrekin eta epaitegiak hartuko dituen neurriekin egoera azkar konpon daitekeela eta babesgabetasun-egoeraren larritasuna desagerraraztea edo murriztea lortuko dela. Hori lortzen bada, kasua ez da lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratuko, eta udal-mailako gizarte-zerbitzuen esku jarraituko du arrisku arineko edo ertaineko egoera bada edo babesgabetasunarekiko zaurgarritasuneko egoera bada. Aldiz, larritasun-maila handiko edo oso handiko egoera zuzentzen ez bada, kasua lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratuko da. Epaitegiaren erantzunik ez bada izaten jardute-ezagatik (hau da, ez badago epaitegiaren inolako ebazpenik), kasuaren inguruabarren arabera erabakiko den denbora-epe jakin baten ondoren, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gizarte-zerbitzuek egin beharreko esku-hartzeari ekingo diote, ohiko prozeduraren bidez (udal-mailako gizarte-zerbitzuek egingo dute, arrisku arineko edo ertaineko kasua bada, eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek, berriz, arrisku larrikoa bada edo desanparo-egoera izan badaiteke).

- **Haurren zaintza ez duen gurasoak haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuen esku-hartzearen aurka egiten duenean egin beharreko jarduna**

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arloan eskumena duten gizarte-zerbitzuek babesgabetasun-egoeretan esku hartzeko legezko betebeharra dute. Horretarako, ekintza hauek egin behar dituzte:

- Haurrek eta nerabeek behar duten berehalako arreta ematea, bat etorrita 1/1996 Lege Organikoaren 14. artikuluekin (uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan) eta 3/2005 Legearen 50.1 artikuluekin.
- Haurrak eta nerabeak zer egoeratan dauden eta kasu bakoitzerako zer behar den balioestea, arrisku- eta desanparo-egoeretan esku hartzeko aurreikusitako jardunbide-prozedurei jarraituz. Hori guztia bat etorrita 1/1996 Lege Organikoaren 16. artikuluekin, 3/2005 Legearen 52.-54. artikuluekin —arrisku-egoerak— eta Kode Zibileko 172.1 artikuluekin (uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan), eta 3/2005 Legearen 57.-59. artikuluekin —desanparo-egoerak—.
- Detektatutako babesgabetasun-egoera zuzentzeko eta haur eta nerabeen beharren arreta bermatzeko dagozkien jardunbideak eta neurriak martxan jartzea, bat etorrita 1/1996 Lege Organikoaren 10.1, 16., 17. eta 18. artikuluetan (uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan) eta 3/2005 Legearen 52.-59. artikuluetan xedatutakoekin.
- Haurren eta nerabeen eta haien familien bilakaeraren jarraipena egitea, bat etorrita 1/1996 Lege Organikoaren 17. artikuluan xedatutakoarekin (uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan).

¹⁴ Azken kasu horretan, instantzia judizialek baloratuko dute haur edo nerabearen egoera eta gurasoengandik jasotzen dituen zainketak. Horretarako, udal-mailako eta lurralde-mailako haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuen lankidetzan eska dezakete, egokia dela uste badute. Halaber, egokitzat jotzen dituzten neurriak hartu ondoren, instantzia judizialek eskatu ahal izango dute haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuek gero esku hartzea, familiarentzako laguntza- edo errehabilitazio-zerbitzuak emateko edo kasuaren jarraipena egiteko.

¹⁵ Balorazio hori zenbait profesionalen edo udalerrit desberdinetako profesionalen egiten badute, koordinatuta egin beharko dute.

Prozedura horietan, haur edo nerabearen interes gorenaren printzipio juridikoari eman behar zaio lehentasuna, beste edozein interesen gaintik, eta gizarte-zerbitzuek aplikatzen dituzten esku-hartzeak eta neurriak zertan oinarritzen diren adierazi beharko da, 1/1996 Lege Organikoaren 2. artikuluan eta 3/2005 Legearen 4. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hori dela eta, banandutako edo dibortziatutako bikoteen kasuan, babesgabetasun-egoera detektatzen bada eta zaintza ez duen gurasoak lankidetzan jardun nahi ez badu edo babesgabetasun-egoera konpontzeko proposatu den esku-hartzearekin ados ez dagoela adierazten badu, gizarte-zerbitzuak legitimatuta daude esku hartzeko, lehen adierazitako legezko betebeharrak betetzeko, eta adingabearen interes gorenaren printzipioa gauzatzeko.

Prozedura horietan egiten diren esku-hartzeetan, gurasoen lankidetzaz izaten saiatuko da, 1/1996 Legearen 15. artikuluekin bat. Halaber, horrelako esku-hartzeetan, aitek eta amek seme-alaben zaintza ez badute ere, eta haien lankidetzaz edo aurkakotasun-maila dena delakoa izanda ere, guraso-ahalaren titular gisa eta herritar gisa dituzten eskubideak errespetatu behar dira. Besteak beste: egin diren eta aurreikusi diren ekintzen berri izateko eskubidea, entzunak izateko eta haien iritzia kontuan hartzeko eskubidea, eta auzibidean esku-hartzeen eta neurrien aurka egiteko eskubidea. Hori guztia bat etorrita Kode Zibilaren 154. artikuluekin (guraso-ahala arautzearen harira uztailearen 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketa) eta urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoaren administrazio-prozedura erkideari buruzkoan, herritarrek administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideak arautzearen harira xedatutakoekin.

Oso garrantzitsua da gurasoekin egiten diren prozedura horietako guztietako ekintzak dokumentatzea, gurasoek kolaboratu nahi ez duten edo esku-hartzeen aurka egiten duten kasuetan batik bat.

- **Balio edo ohitura bereziak dituzten praktikak**

Dokumentu honetako aurreko ataletan adierazi den moduan, tresna honek oinarritzat hartzen du adingabe guztiek, haien garapen integrala sustatzeko, oinarritzko eskubide eta behar batzuk bermatuta eta aseta izan behar dituztela, alde batera utzita adingabe horien talde soziokulturala edo adingabeon gurasoek edo tutoretza edo zaintza duten pertsonen talde horretan egoteagatik hartu dituzten balioak eta ohiturak. Egia bada ere haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gizarte-zerbitzuek kultura bakoitzaren balioak edo ohiturak kontuan hartu eta guztiz errespetatu behar dituztela, zerbitzu horiek, era berean, haur eta nerabe guztien eskubideak eta beharrak asetzen direla bermatu behar dute. Horrela ez bada gertatzen, zerbitzu horiek esku hartzeko legezko betebeharra dute, egoera hori zuzentzeko.

Praktika batzuek —talde soziokultural edo etniko jakin batzuetako praktika berezi batzuek edo talde horietan ohikoagoak diren praktika batzuek— haurren edo nerabeen funtsezko eskubideak urratzen dituzte zalantzarik gabe; hala, egoera horiek larritasun ertaineko, handiko edo oso handiko babesgabetasun-egoera gisa jasota daude tresnan. Praktika horien adibide batzuk dira honako hauek: emakumezkoen genitalak mutilatzea edo hori egiteko asmoa adieraztea —biak Zigor Kodean tipifikatuta—, haurrak edo nerabeak erabiltzea eskean aritzeko, lan-esplotazioa egitea, edo 16 urte bete aurretik eskola uztaraztea bestelako zeregin batzuetan aritzeko —hau ere tipifikatuta dago Zigor Kodean—. Hala ere, badira **balorazio indibidualizatu eskatzen duten beste egoera batzuk** ere, hala nola hitzartutako ezkontza goiztiarrak (16-18 urte izanik) egitea, edo neska nerabe batek gizon heldu batekin harremana edo kontaktua egin dezan sustatzea, etorkizuneko ezkontza bat prestatzeko helburuarekin. Balorazio horretarako, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- (1) adingabeak zer neurritan jasotzen duen tratu egoki bat, tresna honetan jasotako babesgabetasuneko egoerarik jasan gabe,
- (2) gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen egiten dutenaren ondorioz, adingabeak zenbateko arriskua duen etorkizun hurbilean beste pertsona batzuen eskutik esplotazioa, abusua edo tratu txarra pairatzeko,
- (3) adingabearen heldutasun-maila eta egoeraren onarpena, eta
- (4) adingabeak kaltearen sintomak edo ondoez emozionala izatea.

Arlo horietako batean edo gehiagotan zailtasunak identifikatzen direnean soilik izango da egokia haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuen esku-hartzea.

- **Legez emantzipatu gabe bizimodu independentea duten nerabeak**

Legez emantzipatu gabeko nerabe bat bere gurasoekiko edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonetikiko modu independentean bizitzeak (bakarrik bizi daiteke, pertsona heldu batekin bikote gisa, beste nerabe batzuekin, eta abar) ez du nahitaz esan nahi babesgabetasuneko egoeran bizi denik. Halakoetan, aurreko paragrafoan adierazitako irizpideak aplikatuko dira.

Informazioa biltzeko prozedura

- Babesgabetasuna badagoen eta zer larritasun-maila duen balioesteko orduan, **berrikusi** egin beharko da zer mailatako arreta ematen dieten gurasoek edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak haur edo nerabearen oinarritzko behar fisiko, emozional, kognitibo eta sozialei, bai eta behar horiek nola asetzen dituzten ere. Horrek esan nahi du **kasu guztietan** aztertu behar direla **—balorazioa egiteko arrazoiak hauraren edo nerabearen arreta-arlo jakin batek nozitutako kaltea izan arren— balizko zabarkeria** (zabarkeria-eskalak behar fisikoen eta psikikoen zein segurtasun- eta heziketa-beharren arloetan) eta **tratu txar emozionala**. Gainerako tipologiak (adibidez, tratu txar fisikoa, sexu-abusua, eskeketasuna, lan-esplotazioa), berriz, horrelakorik dagoela pentsarazteko moduko aztarnarik dagoenean baino ez dira aztertuko. Kontuan hartu beharra dago kasu gehienetan babesgabetasunak eremu batean baino gehiagotan duela eragina, eta, beraz, tipologia bakar bat agertu ordez, hainbat tipologia ageri direla aldi berean, eta denak ez direla nahitaz larritasun-maila berekoak.
- **Babesgabetasuna dagoen eta haren larritasuna zer mailatako den zehazteko balorazioa familia baten barruan bizi diren haur eta nerabe guztietara zabalduko da, horietako bati buruzko jakinarazpen batengatik hasi den kontuan hartu gabe.** Haur edo nerabe bakoitzaren egoeraren balorazioa egingo da, banan-banan, batik bat anaia-arrebetako bat arrisku- edo desanparo-egoeran baldin badago, eta arreta berezia emango zaie beti adin txikiko haurrei eta ezintasun fisiko, mental edo sentzorialak dituztenei.

Hala ere, kontuan izan behar da familia-talde bereko kide izateak edo guraso-figurengandik tratu edo zainketa berdina jasotzeak ez duela esan nahi horrek eragin berdina izango duenik haurraren edo nerabearen garapenean eta ongizatean. Adingabe baten babesgabetasunak duen eragina guraso-eginkizunak betetzen dituzten pertsonak ematen dioten tratu edo zaintzaren mende egoteaz gain, beste faktore batzuen mende ere badago, hala nola zer adin duen gaur egun haurrak edo nerabeak eta zer adin zuen babesgabetasuneko egoera hasi zenean, edo babesgabetasuneko edo zaurgarritasuneko beste faktore batzuk ote dauden.

- Oro har, **babesgabetasunaren larritasunaz** jabetzeko, honako hauek hartzen dira kontuan: **(a) haurraren edo nerabearen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaera**, baina **funtsean**, **(b) portaera horrek adingabearen osasun, ongizate eta garapenean duen edo izan dezakeen inpaktua**.¹⁶ Horren ildotik, kontuan hartu beharra dago oso gutxi direla gure testuinguruan babesgabetasuneko egoera baten ondorioz haurrak edo nerabeak ondorio fisiko esanguratsuak pairatzen dituen edo paira ditzakeen kasuak (muturreko kasuak dira edo adin txikiko haurrei eragiten diete). Kasu gehienetan, haurraren edo nerabearen gaineko inpaktu psikikoak eta garapen emozional, sozial, kognitibo edo sexualean duen eraginak zehazten du kasuaren larritasuna. Horregatik, **larritasunaren balorazioan funtsezkoa da kontuan hartzea familiako harremanen osagai afektiboak eta babesgabetasunak haurraren edo nerabearen garapen fisikoan eta psikikoan egun duen edo izan dezakeen inpaktua.**
- **Gaixotasun edo ezintasun fisiko, mental edo sentzorialak dituzten haurren eta nerabeen** arrisku- eta desanparo-egoeren balorazioa arreta bereziarekin egin behar da. Haur eta nerabe zaurgarriagoak dira, eta arrisku handiagoa dute horrelako egoerak pairatzeko, egoera horien ondorioz ondorio negatiboak izateko, eta ondorio horiek larriagoak izateko. Arrazoi horiek direla eta, haien egoera balioestean, sentzibilitate eta zehaztasun handiagoz jokatu beharko da, bai kaltearen sintomei dagokionez —gerta liteke ezkutatu da egotea edo hain begi bistakoak ez izatea—, bai kalte hori gertatzeko eta larria izateko arrisku handiagoa egoteari dagokionez.

¹⁶ Oro har, babesgabetasuna eragiten duten edo horrekin lotuta dauden inguruabarrak edo faktoreak ez dira erabakigarriak babesgabetasunaren existentzia eta horren larritasun-maila balioesteko unean, baina erabakigarriak izango dira geroago, egin beharreko esku-hartzea erabakitzeke unean. Larritasun-maila ertaineko, handiko edo oso handiko babesgabetasun-kasu gehienetan, haurraren edo nerabearen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dute beren portaerarekin edo jarrerarekin kalterik eragiteko asmorik. Kasu gehienetan, behar bezala kontrolatu ezin dituzten inguruabarren eraginpean daude (adibidez: alkoholismoa edo toxikomania, nahaste psikologikoak, heziketa-trebeziaren defizitak, haurraren edo nerabearen beharrak zein diren ez jakitea), eta, ondorioz, ez dituzte behar bezala betetzen beren zaintza-zereginak.

- Larritasun-maila ertaineko, handiko edo oso handiko babesgabetasun-egoera¹⁷ dagoela susmatzen bada, adingabearen edo nerabearen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaerari buruzko informazioa biltzeaz gain, zuzenean adingabearen portaerari buruzko informazioa ere bilduko da. Ahal den guztietan, babesgabetasun-egoeraren balorazioa egin behar duten profesionalak gutxienez elkarriketa bat egingo dute adingabearekin. Horretarako, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen baimena izan beharko dute —larritasun handiko edo oso handiko kasua izan daitekeela susmatzen denean izan ezik eta “haurraren edo nerabearen interes gorenak” gomendatzen duenean izan ezik—. Ezinezkoa baldin bada, haurra edo nerabea ezagutzen duten hirugarren pertsona kualifikatuek (adibidez: irakasleak) emandako informazioa baliatuko da.
- Familiako kideen bitartez zuzenean eskura daitekeen informazioaz gain, haur edo nerabe baten babesgabetasun-egoera eta haren larritasun-mailaren balorazioan, arreta ematen dieten osasun- eta eskola-arloko profesionalekin hitz egingo da beti, eta baita familiarekin esku hartzen duten bestelako zerbitzu garrantzitsuetako profesionalekin ere (adibidez: psikiatriako arreta-zerbitzuak). Mediku-txostena izatea ezinbestekoa da haurraren edo nerabearen eragindako kalte fisiko larrien justifikaziorako.
- Pertsona heldu edo adingabe batek nahaste psikopatologiko bat, adimen-urritasuna edo nahaste emozionalak dituela susmatzen bada, eta psikologiako edo psikiatriako profesionalak ezin badute horren balorazioa edo hori egiaztatzeko diagnostikoa behar den sakontasunarekin egin —esate baterako, eragindako pertsonaren lankidetzaz ez izateagatik—, “susmoak” daudela ondorioztatu ahal izango da soilik, eta hori adieraziko da dagokion txostenean. Gomendagarria den arren, ez da beharrezkoa osasun mentaleko sare publikoko profesionalen txosten idatzi bat izatea inguruabar horietako bat edo batzuk egiaztatutaz hartzeko. Gizarte Zerbitzuetan eta horientzat lan egiten duten psikologiako profesionalen balorazioa nahikoa da, betiere behar bezalako sakontasunarekin eta teknika egokiekin egiten bada.
- Babesgabetasun-egoeraren eta haren larritasun-mailaren balorazioan, haurren eta nerabeen eta horien familien intimitatean beharrik gabe sartzea saihestuko da.
- Arestian adierazi dugunez, **babesgabetasun-egoerarik dagoen eta zer larritasun-mailatakoa den zehazteko balorazioa egiteko erabiltzen den informazioak osatua, eguneratua eta behar bezala egiaztatua izan beharko du**. Ez da inoiz arrisku edo desanparoko egoera bat dagoela egiaztatutaz edo frogatutaz hartuko baldintza horiek betetzen ez dituen informazioan oinarrituta. Hala ere, **kasu batzuetan ezinezkoa izango da informazio osatua biltzea** (esate baterako: okerra izan daitekeen iturri bakar bat erabil daitekeelako eta beste iturri batzuk baliatzea ezinezkoa delako; familiaren etxebizitza bisitatzeko edo familiako kideren batekin zuzenean hitz egitea ezinezkoa izan delako, hori ezinbestekoa izanik informazio jakin batzuk lortu edo egiaztatzeko; zeharkako iturrietako informazioa soilik baliatu ahal izan delako; edo informazio jakin bat eman duten profesionalak ez direlako arlo honetako espezialistak eta beharrezkoak izango liratekeen espezialistekin aritzea ezinezkoa izan delako). Inguruabar horiek gertatzen direnean, **arreta eta zuhurtzia bereziz jokatu da balorazioaren ondorioak ateratzean, dagokion txostenean argi eta garbi adierazita “susmoak” direla, “behar bezala egiaztatu ez den informazioa” dela, “behar beste informaziorik gabe” edo “informaziorik gabe” egin dela**.
- Babesgabetasun-egoeraren eta haren larritasun-mailaren balorazioa egiteko prozesuan, hori egiteaz arduratzen den zerbitzuak (dela udal-mailako gizarte-zerbitzuak, dela lurralde-mailakoak) **haur edo nerabearen babesa eta ongizatea ziurtatzeko behar diren jarduera** guztiak egingo ditu **eta, hala badagokio, laguntza emango die familiako kideei**.
- Udal-mailako gizarte-zerbitzuak kasu baten ikerketa edo ebaluazioa egiten ari direnean, arrisku larria eragin dezaketen adierazleak detektatzen badira eta, kasuan esku hartzen ari den profesionalaren ustez, esku-hartze baten bidez zuzendu badaitezke (esaterako, heziketa-beharrekiko zabarkeria-kasuak, eskola-absentismoaren ondorioz), udal-zerbitzuek ez dute balorazio hori amaitutzat joko, gertaera hori egiaztatu arte. Hala, babesgabetasunaren larritasun-maila zehaztu ahal izango da, eta horren arabera erabakiko da zer erakunderi dagokion esku-hartzeaz arduratzea.

Babesgabetasun-egoera baten eta haren larritasun-mailaren balorazioan parte hartzen duten zerbitzuak eta behar diren baliabideak

- **Kasu gehienetan, babesgabetasuneko egoera baten existentziaren eta horren larritasunaren hasierako balorazioa udal-mailako gizarte-zerbitzuen zeregina izango da;** hala ere, zenbait kasu lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratuko dira, eta haietan balioetsiko dira, dela ezaugarri bereziak dituztelako —lurralde historiko

¹⁷ Ikusi lurralde historiko bakoitzeko jardunbide-eskuliburu teknikoak.

bakoitzean zehaztuak—, dela babesgabetasun larriko edo desanparo-egoera nabarmeneko adierazle argiak daudelako eta hori konpontzeko urgentziarako esku-hartzea egin behar delako (3/2005 Legearen 53. eta 54. artikulua). Balorazio hori gizarte-zerbitzu-taldeen edo hitzartutako taldeen egin ahal izango dute, egokiagozat jotzen denaren arabera eta lurralde, mankomunitate edo udal-erri bakoitzak dituen baliabideen arabera. Kasuaren larritasunaren azken balorazioa egitea eta egin beharreko jardunaren gaineko erabakia hartzea Administrazio Publikoari dagozkie beti, horretarako ezarritako prozeduren bitartez.

- Babesgabetasuneko egoera dagoen eta haren larritasun-maila zenbatekoa den balioesteko prozesuak baditu zailtasunak. Irizpide tekniko sendoak eta objektiboak edukitzeaz gain, balorazio hori egiteko beharrezkoa den informazioa bildu eta interpretatzeko, udal- nahiz lurralde-mailako gizarte-zerbitzuak honako hauek izan beharko dituzte: prestakuntza espezializatua duten profesionalen osatutako diziplina anitzeko taldeak, bi zerbitzuen arteko koordinazio egokia, eta haurrekin edo nerabearekin eta haren familiarekin harremanetan dauden zerbitzu komunitarioen sarearen lankidetzak aktiboak. Era berean, baldintza horiek ezinbestekoak dira arrisku- eta desanparo-egoeran dauden haur eta nerabeekin eta horien familiarekin prebentzioko edo errehabilitazioko esku-hartze eraginkorra garatzeko.
- **Udal-mailako zein lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan babesgabetasun-egoerarik badagoen eta haren larritasun-maila zenbatekoa den zehazteko balorazioa egin behar duten taldeak** ezaugarri hauek izan beharko dituzte:
 - **Diziplina anitzekoak** izatea —gutxienez gizarte-langileak eta psikologoak izan beharko dituzte— eta haurren eta nerabeen babesaren arloko **prestakuntza espezifikoa** duten profesionalen osatutako taldea.
 - Balorazio-prozesuan **balioesten diren kasuetan esku hartzen duten gizarte-zerbitzuetako beste profesional batzuk barnean hartzea**, honako hauek bereziki: gizarte-hezitzaileak (familia-hezitzaileak, egoitza-zentroetakoak eta kalekoak), familian esku hartzeko taldeak edo familia-harreraren jarraipenerako eta babeserako taldeak.
 - Haurrekin edo nerabearekin eta haren familiarekin harremanetan dauden **zerbitzu komunitarioen sarea** balorazio-prozesuan **inplikatzeko eta sare horren lankidetzak aktiboak bilatzea**.
 - Balorazio-prozesua modu arinean osatzea, lurralde historiko bakoitzaren jardun-protokoloetan horretarako ezarritako **epeetan**.

Txostena egitea

- Babesgabetasun-egoera baten eta haren larritasun-mailaren balorazioa egiteko prozesua amaitzean, dagokion **txostena** idatziko da, **eta kasuaren espedientean edo historian sartuko da**. Txostenean kasurako garrantzitsutzat jotzen den informazio oro sartuko da. Kasuaren balorazio globala egingo da, bildutako informazio guztia kontuan hartuta, eta une horretan sartuko da profesionalen iritzia.
- Txostena **kasu guztietan egingo da, balorazioaren ondorioak edozein izanik** (arrisku- edo desanparo-egoera egiaztatu edo ez). Horretarako, lurralde historiko bakoitzeko jardunbiderako eskuliburu teknikoetan ezarritako irizpideei jarraituko zaie. Txostenarekin **batera tresnaren laburpen-orria** aurkeztu beharko da (ikusi **IV. zatia**).
- Aurretik adierazi den moduan, txostenean gurasoek edo tutoretza edo zaintza duten pertsonen haur edo nerabearen oinarriko behar fisiko, emozional, kognitibo eta sozialak zer mailatan zaintzen eta asetzen dituzten berriak izan beharko da. **Larritasun-maila ertaineko, handiko eta oso handiko egoerak identifikatzen badira, txostenaren alderdi deskribatzailean zehaztasun handiagoak emango dira defizitarioagozat hartzen diren arloetan; hau da, kasuan agertzen diren babesgabetasun-tipologietan**. Tipologia batzuk ez badira aztertu (tipologia jakin bat ager zitekeenik pentsarazteko moduko adierazle edo daturik ez zegoelako), ez da beharrezkoa izango txostenean horri buruzko aipamenik egitea (hots, ez da beharrezkoa izango “ez dago sexu-abusurik”, “ez dago eskeketasunik”, “ez dago ...” eta abar aipatzea) baina tresnaren laburpen-orrian adierazi beharko da, “Ez dago” edo “Ez dago arrastorik” laukian.
- **“Balorazioa”** izenburuko txostenaren azken atalean, **kasuan agertzen diren babesgabetasun-tipologiak jorratuko dira**. Ez da beharrezkoa izango agertzen ez diren tipologiak aipatzea, garrantzitsutzat hartzen denean izan ezik (adibidez, gerora egiaztatu ez den tipologia jakin baten susmoaren jakinarazpena izan duten kasuak).

Kasuak bideratzea udal-mailako eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen artean, babesgabetasun-egoera dagoen eta haren larritasun-maila nolakoa den zehazteko balorazioaren emaitzen arabera

- Udal-mailako eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen artean kasuak bideratzea **esku hartzeko prozesuaren zenbait unetan gerta daitezke:**
 - Kasua jaso ondoren, lehenengo informazioek larritasun- eta urgentzia-mailari buruzko behar adina datu ematen dituztenean, eta esku-hartzea beste zerbitzu bati dagokiola balioestera bultzatzen dutenean.
 - Ikerketaren ondoren, kasuaren larritasuna egiaztatzen denean.
 - Ebaluazioan edo ebaluazioaren ondoren, lortutako datu berrien ondorioz haurren edo nerabeen egoeraren larritasun-maila birkalifikatu behar bada.
 - **Esku hartzeko prozesuan zehar**, kasuaren larritasunean aldaketak gertatzen direnean (larritasun-maila igo edo jaitsi delako), edo haurren edo nerabeen egoerari buruzko datu berriak lortzen direnean eta haien ondorioz larritasun-maila birkalifikatu behar denean.

Adierazitako inguruabar horietan guztietan eta, bereziki, azken puntuan adierazitakoetan, kontuan hartu behar da bideratzea ez dela berehala egiten den administrazioko ekintza hutsa, baizik eta **prozesu oso bat. Prozesu horren hasierako fasea oso garrantzitsua da. Hain zuzen ere, fase horretan koordinazioa eta baterako analisia egiten dira; akordioak hartzen dira udal-mailako eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen artean, eta familiak prestatzen dira. Fase horrek denbora behar du, eta kontu handiz planifikatu eta gauzatu behar da.** Soilik era horretan lortu ahal izango da egokiro bideratzea eta esku-hartze eraginkorra ahalbidetzea.

- Arestian adierazi dugun moduan, **kasu gehienetan babesgabetasuneko egoera baten existentziaren eta haren larritasun-mailaren balorazioa udal-mailako gizarte-zerbitzuei dagokie eta haiek egin beharko dute, eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratuko dute kasua, arrisku larriko egoera edo desanparo-egoera dagoela jotzen denean. **Hala ere**, udal-mailako gizarte-zerbitzuen balorazioko edo esku-hartzeko prozesuan zehar desanparo-egoera bat identifikatzen bada eta **urgentziaz babesteko esku-hartzea** behar dela erabakitzen bada, lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratuko da kasua berehala, **jaso den informazioarekin.** Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen erantzunak ere berehalakoa izan beharko du, eta, beharrezkoa izanez gero, urgentziako esku-hartzea egingo da, 3/2005 Legearen 59. artikuluan araututakoarekin bat. Kasu horretan, bi zerbitzuek erabakiko dute gero esku hartzeko prozesuarekin jarraitzeko eta balorazio-prozesua osatzeko estrategia, eta prozesua lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen esku geratuko da.**
- **Urgentziakoak ez diren egoeretan**, kasuak honako egoera honetan bideratuko dira udal-mailako gizarte-zerbitzuetatik lurralde-mailako zerbitzuetara: babesgabetasun-egoeraren eta haren larritasun-mailaren balorazio-prozesua edo udal-mailako gizarte-zerbitzuen esku-hartzea egitean, arrisku larriko edo desanparoko egoera dagoela balioesten denean. Honako hau izango da **jarraitu beharreko prozesua:**
 - Bideratzea beti txosten idatzi baten bitartez egingo da, kasuari buruz jasotako informazio zehatza eta hari esleitutako larritasun-mailaren justifikazioa adierazita. Txostenarekin batera, tresnaren laburpen-orria aurkeztuko da. Ahal den guztietan, bilera bat egingo da ondoren bideratze-txostenean jasotako informazioa eta balorazioa azaldu eta zabaldu ahal izateko, eta kasuaren baterako analisia egin ahal izateko.
 - Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek hilabeteko gehieneko epean erabakiko dute kasuaren esku-hartzea onartzen duten ala ez, eta udal-mailako gizarte-zerbitzuei erabakiaren berri emango diete, idatziz. Kasuren bat beren eskumenekoa ez dela uste badute, erabaki hori arrazoitu egin beharko dute.
 - Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek kasua beren eskumenekoa dela erabakitzen badute, beste hilabete bat gehiago izango dute —eta salbuespen gisa bi hilabete, betiere bi erakundeen arteko adostasuna baldin badago— kasuan eskatutako baliabideak martxan jartzeko. Denbora horretan familiarekiko esku-hartzeak udal-mailako gizarte-zerbitzuen ardurapean jarraituko du, eta horiek esku-hartzerako beharrezkoak diren baliabideei eutsiko diete.

Arrisku ertaina baino **egiaztatu** ez bada **baina larritasun-maila handiagoko babesgabetasuna dagoelako susmoak baldin badaude**, kasua udaleko gizarte-zerbitzuen ardurapean geratuko da, susmo horiek egiaztatzen diren arte. Salbuetsita daude familia barneko sexu-abusuaren susmoak; izan ere, kasu horietan lurralde historiko bakoitzean ezarritako prozeduren arabera jardungo da. Halaber, arrisku larriko egoeraren susmo sendoak egon eta egoera hori egiaztatzeko zailtasunak sortzen duten inguruabarrak badaude **ETA**, horrez gain, balidazio-prozesuan aurrera egiteko aukera izan baino lehen haurren edo nerabearen osotasun fisikorako arrisku-egoeraren bat berehala sor daitekeela pentsarazteko moduko elementuak badaude eta elementu horiek babes-neurriak berehala martxan jarrazteko modukoak badira, kasu horiek tratamendu berezia izango dute. Kasu horietan, kasua beste zerbitzu batera bideratzen duen zerbitzuak egoera berezi hori justifikatuko du bideratze-txostenean. Ondoren, kasua bideratzen duen zerbitzuak eta hartzen duen balorazioa eta esku-hartzeko prozesuak egiten jarraitzeko estrategia adostuko dute.

- **Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan jorratutako kasu baten larritasun-maila maila arinera eta ertainera jaitsi dela jotzeko eta udal-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:**

1. Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek gutxienez hamabi hilabeteko esku-hartzea eta jarraipena egin izatea¹⁸.
2. Larritasun-mailaren jaitsierak eta haurraren edo nerabearen zaintzari dagokionez familian lortu diren aldaketek sendotuta eta egonkor iraun dute lau hilabeteko epean gutxienez (lau hilabete horiek esku-hartzearen gutxieneko hamabi hilabeteen barruan egon daitezke).
3. Aldi baterako banantze baten ondoren familia berrelkartzen den kasuetan, lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek haurraren edo nerabearen egoeraren jarraipena egin izatea familiaren etxebizitzan sei hilabetez gutxienez, eta aldi horretan egiaztatzea arrisku larriko edo desanparoko egoera berriz agertu ez dela eta familia-ingurunean lortutako aldaketak sendotu eta egonkortu direla.

Inguruabar horiek gertatzen direnean eta familiak udal-eskumeneko laguntza-zerbitzuak behar dituela jotzen denean, lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek udal-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratuko dute kasua, honako modu honetan:

- Familiak zerbitzu horiek martxan jartzea onartzen duenean egingo da bideratzeko prozesua. Konpromiso hori dokumentu bidez formalizatu beharko da. Hori lortzen ez bada, beste alternatiba batzuk proposatuko dira (adibidez, udal-mailako gizarte-zerbitzuek egitea jarraipena). Alderdi horiek ebatzen diren arte, kasuaren gaineko esku-hartzeak lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen ardurapean jarraituko du.
- Bideratzea beti txosten idatzi baten bitartez egingo da. Txostenean honako hauek laburbilduko dira: kasuan egindako esku-hartzea, familiaren eta adingabearen egungo egoera, eta esleitutako larritasun-mailaren justifikazioa. Txostenarekin batera, tresnaren laburpen-orrria aurkeztuko da. Ahal den guztietan, bilera bat egingo da ondoren bideratze-txostenen jasotako informazioa eta balorazioa azaldu eta zabaldu ahal izateko, eta kasuaren baterako analisisa egin ahal izateko.
- Udal-mailako gizarte-zerbitzuek hilabeteko gehieneko epean erabakiko dute kasuaren esku-hartzea onartzen duten ala ez, eta erabakiaren berri emango diete lurralde-mailako gizarte-zerbitzuei, idatziz. Kasuaren bat beren eskumenekoa ez dela uste badute, erabaki hori arrazoitu egin beharko dute. Kasua bideratzeko arrazoiak ez da sekula baliabide-falta izango.
- Udal-mailako gizarte-zerbitzuek kasuaren gaineko arreta beren eskumenekoa ez dela erabakitzen badute, beste hilabete bat gehiago izango dute —eta salbuespen gisa bi hilabete, betiere bi erakundeen arteko adostasuna baldin badago— kasuan eskatutako baliabideak martxan jartzeko. Denbora horretan familiarekiko esku-hartzeak lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen ardurapean jarraituko du, eta horiek esku-hartzerako beharrezkoak diren baliabideei eutsiko diete.

Arrisku larriko edo desanparoko kasu batean larritasun-maila jaitsi dela balioesten denean eta **familiak udal-eskumeneko laguntza-zerbitzuak behar ez dituzenean, baina jarraipena behar duenean**, kasua udal-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratuko da dagokion txosten idatziaren bitartez eta, ahal den guztietan, bilera egingo da ondoren.

Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek balioesten badute **familiak udal-mailako gizarte-zerbitzuen laguntzarik nahiz jarraipenik behar ez duela**, esku-hartzea amaitu dela jakinaraziko dute, soilik familia udal-mailako gizarte-zerbitzuetatik bideratua izan bazen edo zerbitzu horietan espediente irekia baldin badu edo duela gutxi izan badu. Bestela, ez da beharrezkoa izango udal-mailako gizarte-zerbitzuei kasuaren egoerari buruzko jakinarazpenik ematea.

- Udal-mailako eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen artean desadostasunak badaude babesgabetasun-egoeraren existentziari edo haren larritasun-mailari buruz, eta, horren ondorioz, desadostasuna badago kasuaren gaineko erantzukizun nagusia nori dagokion zehazteko, bilera egin beharko dute bi zerbitzuek, kasua zehaztasunez aztertzeko eta jarraitu beharreko esku-hartzeari buruzko akordio bat lortzeko. Behar diren bilera eta kontaktu guztiak egingo dira akordio bat lortu arte. Bilera horiek egin baino lehen, beste

¹⁸ Ulertzen da puntu honetan eta hurrengoan esku-hartzerako edo jarraipenerako adierazitako epeak beti bete behar direla, baldin eta familia-egituraren funtsezko aldaketarik ez badago. Aldaketa horiek gertatuz gero (esaterako, haurraren edo nerabearen zaintza-erregimenaren aldaketa izatea eta hura guraso babesle batekin bizitzera joatea), babesgabetasun-egoeraren eta haren larritasun-mailaren beste balorazio bat egin beharko da. Balorazio horren emaitzaren arabera (arrisku larriko edo desanparoko kalifikazioari eustea, arrisku arineko edo ertaineko kalifikaziora jaitea, babesgabetasun-egoerako kalifikazioa kentzea), lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek beren esku-hartzea egiten jarraitu beharko dute, edo hura amaitu beharko dute, eta udal-mailako gizarte-zerbitzuetara bideratuko dute edo haiei jakinaraziko diete, hurrengo paragrafoetan jasotakoaren arabera.

bilera batzuk egin ahal izango dira bi zerbitzuek bidezkotzat hartzen dituzten sareko beste pertsona edo profesional batzuekin. Nolanahi ere, lurralde historiko bakoitzak bere prozedura teknikoa garatu ahal izango du, lehen aipatutako ekintzak egin ondoren akordiorik lortzen ez denerako.

- **Lurralde historiko bakoitzean, udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek bete beharreko prozedura tekniko bat ezarriko da, familia berean haur batzuk arrisku arineko edo ertaineko egoeran eta beste batzuk arrisku larriko edo desanparoko egoeran daudenerako.** Prozedura tekniko horrek esku-hartzeko koherentea, koordinatua eta integrala bermatu beharko du. *Oro har:*
 - Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek familia bateko haur edo nerabe batekin edo gehiagorekin jatorrizko familiara itzultzeko aurreikuspenik gabeko banantze iraunkorreko babes-neurri bat ezartzen dutenean eta arrisku arineko edo ertaineko egoeran dauden beste anai-arreba batzuk daudenean, azken horiekin egingo den esku-hartzea — beharrezkoa bada— udal-mailako gizarte-zerbitzuek koordinatuko dute, eta banantze iraunkorreko neurria duten anai-arreben gaineko esku-hartzea, aldiz, lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek koordinatuko dute. Bi zerbitzuek kasuan beharrezkoa den koordinazio-mailari eutsi beharko diote.
 - Familia bateko haur edo nerabe bat edo gehiago arrisku larriko edo desanparoko egoeran daudenean eta lurraldeko gizarte-zerbitzuen esku-hartzearen helburua familiari eustea edo familia berrelkartzea denean, eta arrisku arineko edo ertaineko egoeran dauden beste anai-arreba batzuk daudenean, lurralde historiko bakoitzean jardun-prozedura bat ezarri beharko da; prozedura horretan udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuek beren gain hartu behar dituzten zereginak eta horien arteko koordinazio-prozedura ezarriko dira. Arestian adierazi dugun moduan, prozedura horrek jardun integral eta koherente baten garapena bermatu beharko du, eta baita koordinazio arin eta iraunkorra ere bi zerbitzuen artean. Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek familia-etxebizitzan garatuko diren esku-hartze psiko-sozio-hezitzaileak koordinatuko dituzte, eta, kasuarentzat komenigarriagoa izateagatik udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek bestelakorik erabakitzen dutenean izan ezik, familiari eusteko edo familia berrelkartzeko martxan jartzen diren programa espezifikoak lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen mendekoak izango dira, eta haiek koordinatuko dituzte.

Arrisku-egoera aitortu zaion kasuak bideratzeko prozeduraren berezitasunak

Udal-mailako edo lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek arrisku-egoeraren administrazio-adierazpena egin duten kasuetan¹⁹, aitak, amak edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak ez dutelako eman esku hartzeko planean jasotako lankidetzaz, esku hartzeko prozesuan arrisku-egoeraren adierazpena eragin zuten inguruabarretan aldaketarik gertatuz gero eta, horren ondorioz, arrisku-egoeraren larritasun-mailak gora edo behera egingo balu, udal-mailako eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen artean kasuak bideratzeko, prozedura hau bete beharko da:

- Kasua bideratzeko eskaerarekin batera, txosten tekniko bat eman beharko da. Txostenean honako hauek adierazi beharko dira, zehaztasunez: kasuaren aurrekariak eta harekin lotuta eskuragarri dagoen informazioa, familiaren eta adingabearen egungo egoera, eta arrisku-egoeraren adierazpenaren ondoren egindako jardunak eta haien emaitza (bereziki azpimarratu behar dira hasieran emandako larritasun-mailaren egoera edo jaitsiera justifikatzen dutenak).

Ahal den guztietan, bilera bat egingo da ondoren bideratze-txostenean jasotako informazioa eta balorazioa azaldu eta zabaldu ahal izateko, eta kasuaren baterako analisisa egin ahal izateko.

- Eskeraren hartzaile diren udal-mailako edo lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek jasotako dokumentazioa aztertuko dute, eta kasua bideratu duen gizarte-zerbitzuari eskatu ahal izango dizkiote kasuari buruzko erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen dituen informazio edo datu osagarriak.

Nolanahi ere, gehienez hilabeteko epean, kasua bideratu duen gizarte-zerbitzuari jakinarazi beharko diote, idatziz eta espresuki, kasuan esku hartzea onartzen duten ala ez. Halaber, kasua ez onartzeko erabakia hartzen bada, bere eskumenekoa ez dela-eta, horren ondorioz, esku-hartzea egitea ez dagokiola jo delako, behar adina arrazoitu beharko da erabaki hori.

- Udal-mailako edo lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek kasuaren gaineko arretaren eskumena berea dela erabakitzen dutenean, beste hilabete bat gehiago izango dute —eta salbuespen gisa bi hilabete, betiere bi erakundeen arteko adostasuna baldin badago— kasurako behar diren neurriak eta baliabideak martxan jartzeko. Denbora horretan, arrisku-

¹⁹ Kasuari esleitutako larritasun-mailaren arabera.

egoeraren adierazpena egin duten gizarte-zerbitzuen ardurapean jarraituko du familiarekiko esku-hartzeak, eta martxan izango dituzte esku-hartzerako beharrezkoak diren baliabideak.

- Kasua bideratzeko eskaera onartu dela espresuki jakinarazi ondoren, eta kasua bideratzen duen gizarte-zerbitzuarekin adostu ondoren bai zer datatan sartuko den indarrean aldaketa, bai neurri berriak eta behar diren baliabideak martxan jartzeko baldintzak, kasua bideratu duen gizarte-zerbitzuak arrisku-egoeraren adierazpenarekin batera hartu zituen neurriak geldiaraziko ditu, eta esku-hartzearen eskumena dagokion gizarte-zerbitzuari bidaliko dio kasua²⁰.

Bestalde, esku-hartzea bere gain hartzen duen gizarte-zerbitzuak kasuan aplikatzeko esku hartzeko plan berri bat onartuko du, kasuaren larritasunaren arabera. Plan horretan, adingabearen arrisku-egoera konpontzeko esku hartzeko neurri berriak zehaztuko dira eta, hala badagokio, baita aplikatu beharreko baliabideak eta gurasoen, tutoreen, zaintzaileen edo hartzaileren eginbeharrekin lotutako neurriak ere.

Bi egintzak (neurriak bertan behera uztea eta esku hartzeko plan berria onartzea) jakinarazi behar zaizkie gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei, eta eragindako adingabeak, behar adina heldutasuna badu eta, beti, hamabi urtetik gora baditu, 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat.

- Kasua bere gain hartu duen udal-mailako edo lurralde-mailako gizarte-zerbitzuaren esku-hartzea amaitu ondoren, arrisku-egoeraren adierazpena eragin zuten kausak desagertu direlako eta, horrekin batera, arrisku-egoera konpondu delako, gizarte-zerbitzu horrek esku-hartzearen amaiera jakinarazi behar dio arrisku-egoeraren administrazio-adierazpena egin zuen eta kasua bideratu zion gizarte-zerbitzuari, arrisku-egoeraren orduko administrazio-adierazpen hura bukatutzat eman eta indargabetu dezan.

Arriskua aitortu osteko esku-hartzea, arrisku ertaineko eta arrisku larriko egoeretan eta desanparo-egoeran

- Arrisku ertaineko, arrisku larriko edo desanparoko egoera bat atzeman ondoren eta, azken kasu horretan, haurraren edo nerabearen oinarritzko osasuna eta osotasuna babesteko beharrezkoak diren babes-neurriak ezarri ondoren, udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek —kasuaren arabera— analisi zehatz bat egin beharko dute familiaren egoerari buruz (ebaluazio-fasea), honako hauek barnean hartuta:
 - familiar eragina duten eta babesgabetasuneko egoeraren sorrerarekin edo iraunkortasunarekin zerikusia duten arazoak²¹,
 - familiaren baliabide propioak eta familia-funtzionamenduaren alderdi positiboak,
 - guraso-gaitasunei buruzko pronostikoa, eta
 - haurraren edo nerabearen eta horren familiaren laguntza- eta tratamendu-beharrak

kasu bakoitzean beharrezkoak diren laguntzako eta errehabilitazioko baliabideak kontuan hartzen dituen esku-hartze plan bat²² diseinatzeko eta abian jartzeko.

- Bat etorrita 1/1996 Lege Organikoaren 17.4 artikuluekin (uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan), arrisku-egoerarako esku hartzeko plana egiteko prozesuan haurraren edo nerabearen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak parte har dezaten sustatuko da. Nolanahi ere, haien iritzia entzungo da, eta kontuan hartuko da, plan hori adosten saiatzeko. Aldeek plana sinatu beharko dute, eta horretarako modu ulergarrian eta erraz eskuratzeko formatuan emango zaie. Halaber, haurrari edo nerabeari jakinarazi eta kontsultatuko zaio, behar adina heldutasun badu eta, beti, hamabi urtetik gora baditu.

²⁰ Kasuari egun esleitutako larritasun-mailaren arabera.

²¹ Honako hauek barnean hartuta: sinesmenak edo balio kulturalak (adibidez: zigor fisikoarekiko edo bestelako diziplina-estrategia desegokiekiko permisibitatea, generoan oinarritutako bereizkeria), faktore sozio-ekonomikoak (adibidez: zailtasun ekonomikoak, lanekoak), sozialak (adibidez: marjinazioa, isolamendu soziala), familia-harremanen ezaugarriak (adibidez: indarkeria edo bikoteko zailtasunak, harreman-arazoak familia zabalarekin, rolen banaketa), gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen historia eta ezaugarri pertsonalak (adibidez: haurtzaroko edo nerabegaroko babesgabetasuneko historia, arazo fisikoak, psikologikoak edo osasun mentalekoak), eta haurren edo nerabeen ezaugarri pertsonalak (adibidez: arazo fisikoak, portaerako arazoak).

²² **Esku hartzeko plana:** Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen artikuluetan, honela esaten zaio esku hartzeko planari: “familia-eremuko, gizarteko eta hezkuntzako esku-hartze proiektua”, arrisku-egoerako kasuetan aplikatu behar bada, eta “banakako babes-plana”, berriz, adingabearen tutoretza edo zaintza hartzeko neurriak dituzten kasuetan aplikatu behar bada. **Dokumentu honetan, esku hartzeko plana erabiliko dugu babesgabetasun-egoeretan egiten den esku-hartze orokorra adierazteko.**

- Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan, xedatutakoarekin bat, udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek baliabide nahikoak, malguak eta dibertsifikatuak izan beharko dituzte, haur eta nerabe bakoitzak eta haren familiak behar dituzten zerbitzuak jaso ahal ditzaten, behar duten unean eta behar duten intentsitatearekin. Alde horretatik, arrisku ertaineko kasuetarako babes-baliabideen hornidura arrisku larriko edo desanparoko kasuetarako hornidura bezain garrantzitsua da, eta haien antzeko konplexutasun- eta zailtasun-maila izan dezake. Arrisku ertaineko kalifikazioak ez du esan nahi berehalako esku-hartze konpontzaile bat garatzeari edo esku-hartzea gauzatzeko profesional espezializatuak izateari garrantzi txikiagoa eman behar zaionik.
- Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan kudeatutako kasuetan, udal-mailako gizarte-zerbitzuekin koordinatuko dute familia bakoitzarentzat behar diren baliabide komunitarioen hornidura. Udal-mailako gizarte-zerbitzuek kasu bakoitzean dagokion inplikazio- eta koordinazio-mailari eutsiko diote. Horrek garrantzi berezia dauka esku-hartzearen helburua familiari eustea edo familia berrelkartzea denean.

Arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko tresna

BALORA

I. BABESGABETASUN-TIPOLOGIAK²³**TRATU TXAR FISIKOA****ZABARKERIA**

- A. Behar fisikoekiko zabarkeria (honako hauek barnean hartuta: elikadura, osasun fisikoaren zaintza, jantziak, higiene pertsonala, etxebizitzaren higiene-baldintzak eta etxebizitzaren egonkortasuna eta bizigarritasun-baldintzak)
- B. Segurtasun-beharrekiko zabarkeria (honako hauek barnean hartuta: etxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa; artatzea; beste pertsona batzuek eragindako babesgabetasun larriko egoeren aurkako babesak)
- C. Prestakuntza-beharrekiko zabarkeria
- D. Behar psikikoekiko zabarkeria (honako hauek barnean hartuta: elkarreragin- eta afektu-beharrak; estimulazioa; arreta espezifiko arazo emozional larrirentzat; arauak, mugak eta balio moral positiboaren transmisioa)

SEXU-ABUSUA**TRATU TXAR PSIKIKOA**

- A. Tratu txar emozionala
- B. Haurra edo nerabea baliatzea guraso-figuren arteko gatazketan zein guraso-figuren eta haur edo nerabearentzat esanguratsuak diren eta bizikidetzaren nukleoko parte diren beste senide batzuen arteko gatazketan
- C. Bikote barruko edo bizikidetzaren unitateko kideen arteko indarkeriazko egoerekiko esposizioa.
- D. Eraso fisikoaren mehatxuak

ABANDONUA**GURASOEN GAITASUNIK EZA HAURAREN EDO NERABEAREN PORTAERA KONTROLATZEKO****BESTE BATZUK**

- A. Jaio aurreko tratu txarrak
- B. Tratu desegokia (honako hauek barnean hartuta: janaria eta ura nahita ez ematea, konfinamendua edo murrizketa fisikoa, etxetik bidaltzea edo etxean sartzen ez uztea)
- C. Galbideratzea
- D. Eskekotasuna
- E. Lan-esplotazioa

II. ARRISKU LARRIA EDO DESANPAROA DAKARTEN BESTE EGOERA ESPEZIFIKO BATZUK²⁴

- A. GURASOEN EDO TUTORETZA EDO ZAINZTA BETETZEN DUTEN PERTSONEN ERAGINDAKO BABESGABETASUN LARRIKO AURREKARIAK**
- B. ZAILTASUN LARRIAK AITARENGAN, AMARENGAN EDO TUTORETZA EDO ZAINZTA BETETZEN DUTEN PERTSONEN**
- C. GURASOEN EDO TUTORETZA EDO ZAINZTA BETETZEN DUTEN PERTSONEN ALDI BATERAKO EDO BEHIN BETIKO EZINTASUNA BABES-BETEBEHARRAK BETETZEKO**
- D. INOREN KARGURA EZ DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRAK (IKEDAA)**

²³ Babesgabetasun-mota bakoitzarentzat, honako hauek deskribatzen ditu tresnak:

- 1. larritasun-maila ertaina, handia eta oso handia (larritasun-mailarik aurreikusten ez den salbuespeneko kasuak izan ezik), eta
- 2. zainzta-eginbeharrak betetzean gabezia arinak dakartzaten egoerak, "arrisku arina" dakartenak.

²⁴ Arestian adierazitako babesgabetasun-tipologiaren bat dagoen ala ez alde batera utzita, haurren edo nerabearen oinarriko osotasunerako edo bizitzarako arrisku larriko muturreko inguruabar batzuk dituzten egoerak hartzen dira barnean, familia-ingurunean kontrolerako nahikoa baliabiderik izan gabe. Inguruabar horien presentziak kasu larritasun handikotzat sailkatzea ekarriko du automatikoki. Esku-hartzea lurralde-mailako gizarte-zerbitzuen esku egongo da, eta horiek zehaztu beharko dute arrisku larriko edo desanparoko egoera bat den.

TRATU TXAR FISIKOA

Haurrak edo nerabeak kalte fisikoa pairatu du edo pairatzeko arriskua dauka, aitaren, amaren edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen erasoen zuzeneko ondorio gisa.

Oharra:

Tipologia horrek soilik alderdi fisikoa hartzen du barnean, bai gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaerari dagokionez, bai haurraren edo nerabearen dituen ondorioei dagokienez. Era horretako gainerako tipologiaren kasuan bezala, babesgabetasuneko beste tipologia batzuen presentzia ebaluatu beharko da beti, bereziki “tratu txar psikikoa” kategorian barne hartutakoen presentzia.

- ⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa, funtsean, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaerak haurraren edo nerabearen eragin dituen edo eragin ahal izan dituen lesioen edo kalte fisikoaren larritasunean oinarritzen da.

I. Oso larritasun handia

- **Indar fisikoaren gehiegizko erabilera²⁵, eta haren ondorioz, oso lesio larria eragin zaio** haurrari, edo oso lesio larria pairatzeko arriskuan jarri da. Oso lesio larria bada, horrek esan nahi du haurrak edo nerabeak berehalako mediku-arreta behar duela, askotan modu urgentean (adibidez: hezur luzeen hausturak, gorputzaren barruko lesioak, hematoma subdurala, astindutako haurraren sindromea —24 hilabetetik beherako haurraren—, hirugarren mailako erredurak, begietako lesioak). Erritu-ekintzen ondoriozko tratu txar fisikoa barnean hartzen da.
- Sei urtetik beherako edo ezintasunen bat duen urte gehiagoko haurra, kolpeen markekin aurpegian, buruan (kendutako ile-xerloak barnean hartuta), sudurrean, genitalan edo abdomenean.
- Sei urtetik beherako edo ezintasunen bat duen urte gehiagoko haurra, farmako potentzialki arriskutsuak, drogak edo alkohola medikuaren agindu nahiz gomendiorik gabe kontsumitu izanaren sintomekin, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen emanda, haurra lotan edo pareko moduan gera dadin eta aztora ez diezaien²⁶.
- **Meadow-en sindromeak²⁷** haurra edo nerabea **lesio edo gaixotasun larria** pairatzeko **arriskuan** jartzen du (hau da, berehalako mediku-arreta behar izateko egoeran).

Egoera horiek larritasun oso handiko gisa kalifikatzen dira, baita behin bakarrik gertatu direnean ere.

²⁵ “**Gehiegizko indarra**” terminoaren definizioa: eraso fisikoaren intentsitateak kalte fisiko handia eragin du haurraren edo nerabearen, eta argi dago gehiegizkoa dela haurraren gorpuzkerarako edo ezaugarri fisikoetarako, edo bidegabe luzatzen da.

²⁶ Medikuen agindu nahiz gomendiorik gabe, haurrei edo nerabeei drogak, alkohola edo farmako potentzialki arriskutsuak ematea edo atal honetan adierazten ez diren helburuekin erabiltzea onartzea “**Galbideratze**” tipologian biltzen da.

²⁷ **Meadow-en sindromea:** Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen etengabeko mediku-azterketak egitera bidaltzen dituzte haurrak edo nerabeak, sintoma fisiko patologiko faltsuak edo berek modu aktiboan eragindakoak (substanzien inokulazioaren bitartez, adibidez) alegatuta.

2. Larritasun handia

- **Indar fisiko gehiegizkoa erabiltzea, eta haren ondorioz, lesio larria eragitea** haurrari, edo lesio larria pairatzeko arriskuan jartzea. Lesio larri batek ez du arriskuan jartzen haurraren edo nerabearen bizitza eta ez da uste ezintasunik eragingo duenik, ezta medikuaren arreta ematen ez denean ere (adibidez: bihurturak, kommozio arinak, hortz hautsiak, lehen eta bigarren mailako erredurak, jostura behar duten ebakiak, hezur txikien hausturak eta abar).
- **Ezintasunik gabeko seitik hamabi urtera bitarteko haurra**, kolpeen markekin aurpegian, buruan, sudurrean, genitaletan edo abdomenean.
- **Ezintasunik gabeko sei urtetik gorako haurra edo nerabea**, farmako potentzialki arriskutsuak, drogak edo alkohola medikuaren agindu nahiz gomendiorik gabe kontsumitu izanaren sintomekin, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen emanda, haurra edo nerabeak aztoratzen ez diezaie, edo lotan edo antzeko egoeran gera dadin.
- **Meadow-en sindromea**, haurra edo nerabea **lesio edo gaixotasun larria** pairatzeko **arriskuan** jartzen du edo hori izateko arriskua eragiten du (hau da, ez du haurraren edo nerabearen bizitza arriskuan jartzen, eta ez da uste ezintasunik eragingo duenik, ezta medikuaren arreta ematen ez denean ere).

Egoera horiek larritasun handiko kalifikazioa dute, baina behin bakarrik gertatu direnean ere.

- Susmatzen denean edo jakina denean neskato baten edo neska nerabe baten gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen haren **genitalak mutilatzeko asmoa** dutela (Espainian zein atzerrian). **Garrantzitsua:** Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek emakumezkoen genitalen mutilazioari buruz legean adierazten dena eta horren ondorioak **jakinarazi ondoren** ere, gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **beren asmoari eusten badiote**, kasuaren larritasuna **“oso handia”** izatera aldatuko da.

3. Larritasun ertaina

- **Gehiegizko indar fisikoa erabiltzea ohituraz edo sarritan, azaleko lesioak eraginez. Horren salbuespena dira aurreko ataletan adierazitako hamahiru urtetik beherako haurrak.** Azaleko lesioak zona batean edo bitan daude, eta azaleko urratuak eta gorriuneak dituzte. Odol-jario txikia egon daiteke (sudurretik, adibidez).
- **Gehiegizko indar fisikoa erabiltzea ohituraz edo sarritan, lesioak eragin gabe.** Indarra eta zigor-mota gehiegizkoak dira. Haurrak edo nerabeak ez du lesio fisikorik pairatu, baina erasoek min handia eragin diote denbora luzez, eta etorkizunean lesio fisiko bat gertatzeko arriskua egon daiteke.
- **Meadow-en sindromea, haurraren edo nerabearen lesio edo gaixotasun larriarik edo oso larriarik eragin gabe edo horrelakorik izateko arrisku-egoeran jarri gabe.**

4. Arrisku arina

- **Indar fisikoa ohituraz edo sarri erabiltzea, baina gehiegizkoa izan gabe, lesioak eragin gabe edo azkar desagertzen diren gorritasunak bakarrik eraginda.** Zigor-mota ez da egokia (adibidez: esku irekiarekin belarrondokoa ematea, belarritik tira egitea, zimikoak), gehiegizko indar fisikoa erabili ez den arren. Haurrak edo nerabeak ez du lesio fisikorik nahiz indar fisiko handi eta luzerik pairatu, eta lesio fisiko bat pairatzeko arriskurik ez dago. Helburu nagusia da gaitzespena adieraztea edo haurraren edo nerabearen jokabidea kontrolatzen saiatzea, eta ez haurra edo nerabea kaltetzea edo hari kalte handirik sortzea.

5. Arriskurik ez

- **Indar fisikoa noizbait erabiltzea, baina ez gehiegizko moduan, lesioak eragin gabe edo azkar desagertzen diren gorritasunak soilik eraginda.** Zigor-mota ez da egokia (adibidez: esku irekiarekin emandako belarrondokoa, belarritik tira egitea, zimikoak), gehiegizko indar fisikoa erabili ez den arren. Haurrak edo nerabeak ez du lesio fisikorik nahiz indar fisiko handi eta luzerik pairatu, eta lesio fisiko bat pairatzeko arriskurik ez dago. Helburu nagusia da gaitzespena adieraztea edo haurraren edo nerabearen jokabidea kontrolatzen saiatzea, eta ez haurra edo nerabea kaltetzea edo hari kalte handirik sortzea. Normalean, fisikoak ez diren edo indarkeriarik baliatzen ez duten diziplina-estrategiak erabiltzen dira.
- Haurra edo nerabea ez da inoiz fisikoki zigortzen edo erasotzen. Fisikoak ez diren eta indarkeriarik erabiltzen ez duten diziplina-metodoak erabiltzen dira (adibidez: pribilegioak kentzea, ahozko gaitzespena). Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ez dute uzten beste pertsona batzuek fisikoki eraso edo zigor ditzaten.

ZABARKERIA

Haurrak edo nerabeak kalte fisiko edo psikiko bat pairatu du edo pairatzeko arriskua dauka, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ezin dietelako arreta egokia eman haren behar fisikoei segurtasun-beharrei, prestakuntza-beharrei eta behar psikikoei²⁸

A. BEHAR FISIKOEEKIKO ZABARKERIA

- ⇒ Aitak, amak edo haur edo nerabearen tutoretza edo zaintza duten pertsonak haurren edo nerabearen behar fisikoak zaintzeko moduari dagokionez, haien jardunak haur edo nerabearengan kalte esanguratsua eragiten duenean edo eragin dezakeenean izango da soilik babesgabetasun-kasua. Eskala eta larritasun-maila jakin batzuetan mediku-irizpena beharko da. Irizpen hori bereziki garrantzitsua izango da elikadura-ohitura minoritarioak, medikuntza alternatiboak eta abar biltzen dituzten egoerak balioesten direnean.

- ELIKADURA (janaria eta edaria) -

- ⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurren edo nerabearen elikadura-beharren arretan ikusitako gabezien larritasuna, eta (2) osasunean edo garapen fisikoan duten inpaktua.

1. Oso larritasun handia

- Haurra edo nerabea **desnutrizio edo deshidratazio larriko egoeran** dago (pisu gehiegi galdu du, anemia dauka eta abar), eta horregatik **ospitaleratu** egin behar da.
- Haurrak edo nerabeak **intoxikazio** bat izan du (sukarra, gorakoak eta abar), gizakien kontsumorako ez diren edo hondatuta zeuden elikagaiak jateko eman zaizkiolako edo jaten utzi zaiolako, eta horregatik **ospitaleratu** egin behar da. Etxean era horretako elikagaiak hornitzea edo edukitzea **ohiturazko edo sarritan** gertatzen den gauza da familian.
- Medikuen balorazioaren arabera, haurrak edo nerabeak obesitatea du, nagusiki **gehiegizko elikagaiak eta elikagai desegokiak** ematen dizkiotelako, eta egoera horrek beste osasun-arazo larri batzuk eragin dizkio haurrari edo nerabeari, eta **ospitaleratu** behar izan dute arazo horientzatik.
- **Haurtxo** bati edoskaldiak emateari utzi zaio edo diluitutako esnea ematen zaio ohituraz, eta, **desnutrizio edo deshidratazio sintomak** ditu —baita errehabilitazio dieta bakarrik behar badu eta ospitaleratuaz izatea behar ez badu ere—.

2. Larritasun handia

- Haurrak edo nerabeak **desnutrizio, deshidratazio edo intoxikazio sintoma kliniko** batzuk ditu, edo **gehiegizko pisua dauka**, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak emandako elikadura desegokiaren ondorioz. **Mediku-arreta eta/edo errehabilitazio dieta** behar du, baina ez du horregatik ospitaleratzetik behar. Medikuen balorazioaren arabera, inguruabar horiek **osasunerako arrisku larria** dakarte —baina ez bizitarako arriskua—, betiere zuzentzen ez badira.
- **Haurtxoari** bularra ematen zaio edo beste elikadura-mota bat du, eta, medikuen **balorazioaren arabera, esne edo osagarri elikagarriak** behar ditu, baina ez zaizkio ematen.

3. Larritasun ertaina

- Haurren edo nerabearen **elikadura ez da nahikoa kantitatearen aldetik, edo desegokia da elikagarriei dagokienez**, baina **ez** dauka horren ondoriozko **gaixotasunik, ezta kalte handirik bere osasunean eta garapen pondoestaturalean eta fisikoan ere**. Ohiturazko kontua ez bada ere, sarritan, behar beste elikatzeko moduko otordu bat ere ez zaio ematen egunean. **Dieta zuzentzeko beharra** oso argia da, eta **medikuak gomendio esplizitu** bat eman du horri dagokionez. Adibideak: otordu batzuk ematen ez zaizkion haurra (ez haurtxoa) edo nerabea; etxean janari gutxi dago, eta haurrak edo nerabeak agian janaria lapurtu edo eskatu du kanpoan; agian, haren adinerako egokiak ez diren elikagaiak ematen zaizkio; elikagarriei dagokienez egokiak ez diren produktu gehiegi du haren elikadurak.

²⁸ Nahita, jakintzarik ezagatik, haurren edo nerabearen egoeraren balorazio desegokiagatik eta/edo motibaziorik ezagatik.

4. Arrisku arina

- **Otordu irregularrak eta askotan prestatu gabeak**, baina normalean **behar adina elikatzen duen otordu bat ematen zaio egunean**. Noizean behin, otordu batzuk egin gabe uzten dira.
- Elikadura **nahikoa**, baina pixka bat **desorekatua nutrizioaren ikuspegitik**.
- Sarritan, haurrak edo nerabeak janaria bere kabuz hartzen du, baina **batzuetan elikaduraren aldetik desegokia den janaria baino ez dago edo ez dago janari-kopuru egokia**. Inguruabar horietako bat edo gehiago gertatzen diren arren, **ez dute** haurraren edo nerabearen **osasun-egoeran eta -adierazleetan ondorio negatibo handirik eragin, medikuak esandakoaren arabera. Dieta edo elikatzeko ohiturak aldatzea gomendatzen da.**

5. Egokia

- Haurrak edo nerabeak kantitate egokiko elikadura erregularra eta adinerako egokia jasotzen du, eta normalean oinarritzko elikadura-beharrak betetzen ditu.
-

- OSASUN FISIKOAREN ZAINTZA (osasuna eta atsedena) -

- ⇒ Larritasun-maila jakin bat kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurraren edo nerabearen osasun-, higiene-, eta atsedena-beharren arretan ikusitako gabezien larritasuna (haurdunaldiko zaintzak barne), eta (2) gabezia horiek osasunean eta errendimenduan eta inguruko pertsonen osasunean duten edo izan dezaketen inpaktua.

<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurrak edo nerabeak lesio, zauri, gaixotasun —sortzetikoa edo ez— edo ezintasun bat du, eta ez dute tratamendu medikoan jarri, edo beranduegi jarri dute, edo, tratamenduan jarri den arren (bai gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ekimenez, bai osasun-arloko edo ikastetxeko profesionalen jarraibideei jarraituta), agindutako tratamendu medikoa ez da onartzen edo ez da behar bezala egiten. Behar bezala tratatu gabe uzten bada, arazoa arrisku bihur daiteke haurraren edo nerabearen bizitzarako, larritasun handiko kalte iraunkor bat eragingo dio, edo inguruan dauden pertsonen osasunerako mehatxu larri bat izan daiteke.• Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dituzte oinarrizko higiene- eta osasun-arauak errespetatzen (adibidez: biberioia, platerak, mahai-tresnak, edalontziak, eta abar desinfektatzea toxikoak izan daitezkeen gaiekin erabiliak izan ondoren, kutsatutako elementuak baztertzeari, hala nola xiringak), eta hori mehatxu larria da haurraren edo nerabearen bizitzarako edo osasunerako.• Familia-etxebizitzan bizi den pertsona batek gaixotasun kutsakor larria dauka, edo, larria ez izanda ere, haurraren edo nerabearen ondorio larriak izan ditzake, hain zuzen ere haurrak edo nerabeak zaugarritasun-baldintza bereziak dituelako. Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak neurri zorrotzak hartu beharko lituzkete ez kutsatzeko, baina ez dituzte hartzen. Egoera hori mehatxu larria da haurraren edo nerabearen bizitzarako edo osasunerako.• Oro har, haurraren edo nerabearen gurasoek edo tutoretza betetzen duten pertsonak ez dituzte haren eguneroko bizitza eta etxebizitzaren baldintza fisikoak antolatzen, haurrak edo nerabeak bere adinari eta beharrei dagozkion atsedena- eta lo-beharrik ase ahal izateko moduan. Egoera horrek bizitza mehatxatzen duten osasun-arazo larriak, loaren nahaste larriak edo narriadura iraunkor larria eragin dizkio, eta berehalako tratamendu espezializatua eman behar zaio eta/edo ospitaleratu egin behar da arazo horiei aurre egiteko.
<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurrak edo nerabeak gaixotasun edo ezintasun bat dauka —sortzetikoa edo ez—, eta gaixotasun horrek larriki oztopatzen du haren funtzionamendu normala. Ez da medikuaren zaintzarik ez azterketarik eskatu, edo eskatu dira, baina beranduegi, edo, eskatu diren arren (bai gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ekimenez, bai osasun-arloko edo ikastetxeko profesionalen jarraibideei jarraituta), agindutako tratamendua ez da behar bezala egiten. Tratamenduarekin, arazoa zuzendu ahal izango litzateke edo kontrolatu behintzat. Hala ere, tratamendu egokirik gabe gaixotasunak edo ezintasunak okerrera egingo du (baina ez du haurraren edo nerabearen bizitza mehatxatzen).• Honako egoera hauek hartzen dira barnean: haur edo nerabe batek denboraldi batean sintoma fisiko larri batzuk izan ditu (adibidez: min handia edo gaixotasun kutsakor larri baten aztarnak, bizitza mehatxatu gabe), baina ez dute medikuarengana eraman, beranduegi eraman dute edo, eraman duten arren, medikuaren jarraibideak ez dira bete.• Ohituraz edo sarritan, haurraren edo nerabearen aitak, amak edo tutoretza betetzen duten pertsonak ez dituzte haren eguneroko bizitza eta etxebizitzaren baldintza fisikoak antolatzen, haurrak edo nerabeak bere adinari eta beharrei dagozkion atsedena- eta lo-beharrik ase ahal izateko moduan. Egoera horrek osasun-arazo garrantzitsuak edo loaren nahasteak eragin dizkio, eta horiek konpondu egin behar dira, baina horretarako ez da berehalako tratamendu espezializatua izateko eta/edo ospitaleratzeko beharrik, eta/edo haurra edo nerabea gaixotasun larri bat pairatzeko arriskuan jartzten da.
<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurra edo nerabea ez da mediku-zaintzarik jasotzen ari normalean tratamendua behar duen lesio, zauri edo gaixotasun batengatik, beranduegi eraman dute medikura edo, medikura eraman duten arren (bai gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ekimenez, bai osasun-arloko edo ikastetxeko profesionalen jarraibideei jarraituta), tratamendua ez da behar bezala egiten. Haurraren edo nerabearen egoera, ziur asko, bere kabuz hobetuko da, baita mediku-zaintzarik gabe ere. Hala ere, tratamenduak zailtasunak izateko arriskua murriztuko luke, mina arinduko luke, sendatzea azkartuko luke, edo kutsatzeko arriskua murriztuko luke.• Familiaren etxebizitzan gaixotasun kutsakorren bat duen pertsona bat bizi denean, ohikoa da gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez hartzea kutsatzeko probabilitatea murrizteko edo saihesteko beharrezkoak diren higiene- eta osasun-neurriak. Haurra edo nerabea gaixo egon da zenbaitetan arrazoi horregatik, eta atsedena edo tratamendu medikoa behar izan du, baina ez ospitaleratzeari. Egoera hori ez da mehatxu larria izan haurraren edo nerabearen bizitzarako edo osasunerako.• Aitak, amak edo haur edo nerabearen tutoretza edo zaintza duten pertsonak ezarritako ohitura edo ordutegiak ez dute ahalbidetzen haur edo nerabeak bere adina eta beharren arabera behar duen atsedena hartzea edo behar adina lo egitea. Horren ondorioz, haur edo nerabea nabarmen nekatuta dago, eta portaera-nahasmenduak ditu (adibidez, suminkortasuna, pasibotasuna eta kontzentratzeko zailtasunak). Haur edo nerabea eskola-adinean bada, bere errendimendu akademikoan eragina duela ikusten da.

4. Arrisku arina

- Haurrak edo nerabeak ez dauka ase gabeko tratamendu-premia medikorik. Hala ere, **hobetu egin beharko lirateke prebentzioko osasun-zaintzak** (adibidez: hortzen zaintza, parasitoen prebentzioa edo tratamendua). Haurra edo nerabea tratamendu medikoan dagoenean, jarraibideak behar bezala betetzen dira.
- **Haurtxo osasuntsua**, arazo fisikoen adierazlerik gabea, ohiko kontrol medikoetara eramaten ez dutena, eta **jarraipen pediatrikorik gabea**.
- Justifikatu gabeko zenbait alditan, haurraren edo nerabearen aitak, amak edo tutoretza betetzen duten pertsonak ez dituzte haren eguneroko bizitza eta etxebizitzaren baldintza fisikoak antolatzen, haurrak edo nerabeak bere adinari eta beharrei dagozkion atsedean- eta lo-beharrak ase ahal izateko moduan. Horrek ez du inolako ondorio negatiborik izan haurraren edo nerabearen osasunean, baina, aldi horietan, ikusi da **nekatuta zegoela, lo falta, eta arreta jartzeko eta kontzentratzeko arazoak zituela**.

5. Egokia

- Haurrak edo nerabeak ez dauka tratamendu medikoa behar dezakeen zauri, gaixotasun edo ezintasunik. Gaixotasun baten sintomak agertzen direnean, berehala eramaten dute medikuarengana, eta medikuaren jarraibideak behar bezala betetzen dira. Bere adinerako egokiak diren prebentzioko osasun-zaintzak jasotzen ditu.
 - Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak beharrezkoak diren prebentzio-neurriak hartzen dituzte familia-etxebizitzan bizi den pertsonen batek gaixotasun kutsakor bat duenean, kutsatzeko arriskua ahalik gehien murrizteko.
-

Oharra: Jarraipen pediatrikoa eta txertatzea ez dira nahitaezkoak; gomendioak baino ez dira

- JANTZIAK -

- ⇒ Larritasun-maila jakin bateko kalifikazioa izateko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurrak edo nerabeak behar adina jantzi —egoera onean, eta eguraldirako egokiak— izatearen inguruko beharrekiko arretan ikusitako gabezien larritasuna, eta (2) gabezia horiek osasunean eta eguneroko jardueretako parte-hartzean duten edo izan dezaketean eragina.
- ⇒ Tipologia horretan ez dago larritasun oso handiko edo handiko kalifikaziorik.

1. Larritasun ertaina

- Haurrari edo nerabeari **oinarrizko eta funtsezko jantzi asko falta zaizkio**. Hain arropa gutxi dago, edo hain arropa egoki gutxi dago, non **batzuetan ezin dituen egin jarduera normalak eta beharrezkoak** (adibidez: kalera atera, eskolara joan). Kasu batzuetan, **arropa ez da nahikoa edo desegokia da fenomeno atmosferikoetatik babesteko**. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez diote arropa egokia ematen haurrari edo nerabeari, ezta horretarako baliabideak dituztenean ere.

2. Arrisku arina

- Haurrari edo nerabeari **funtsezko jantzi bat edo bi falta zaizkio**, edo jantzi horietako batzuk hain **egoera txarrean** daude, non ez lituzkeen jarri behar. Eskura dituen jantziak egokituta moldatzen da (adibidez: berokia jarri orde, beste jertse bat gehiago jarrita).
- Gerta liteke haurra edo nerabea **modu desegokian jantzita** joatea jarduera normal eta beharrezko batzuetara (adibidez: eskolara), **baina modu egokian parte hartu ahal izatea jarduerotan**.

Edozein kasutan, **arropak haurra edo nerabea babesten du fenomeno atmosferikoetatik**.

3. Egokia

- Haurrak edo nerabeak funtsezko arropa dauka, baina baliteke aldatzeko arropa gutxi edukitzea edo urtarorako jantzi egoki batzuk ez izatea. Gerta liteke jantziak oso higatuta egotea eta askotan pasaratuak egotea, baina urratuta, hautsita eta zikin egon gabe. Baliteke jantzi batzuk ez egokitzea ondo gorputzera (adibidez: mauken luzera gaizki edukitzea, botoiak itxi ezin izatea).
- Haurrak edo nerabeak funtsezko jantzi guztiak ditu. Arropa egokia da ordurako, tokirako eta eguraldi atmosferikorako. Urtarorako arropa egokia dauka (gabardina, eskularruak, jantzi arinak). Arropa behar adina alda daiteke txukun eta garbi joateko. Agian, arropa ez da berria, baina egoera onean dago eta ongi dauka.

- HIGIENE PERTSONALA -

- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) higie pertsonalari dagokionez, haurraren edo nerabearen premien gaineko arretan ikusitako gabezien larritasuna, (2) egoera horrek osasunean duen edo izan dezakeen eragin-maila, eta (3) berdinekin eta beste pertsona batzuekin dituen harremanetan horrek duen edo izan dezakeen eragin-maila.
- ⇒ Tipologia honetan ez dago larritasun oso handiko kalifikaziorik.

<p>1. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Higie falta oso nabarmena dago (adibidez, haurra edo nerabea ez da dutxatu edo bainatu zenbait astetan; ahoaren edota hortzen osasunari ez zaio arreta eman, oso modu larrian; hartxoari ez zaizkio pixoihalak aldatzen, ohituraz edo sarritan). Horren ondorioz, haurrak edo nerabeak tratamendu medikoa behar duen gaixotasun edo nahaste fisiko bat dauka, edo beste pertsona batzuen kexak egon dira (adibidez, eskolan) haren higieari buruz. Ikaskideek ez dute berekin jolasten eta ez dute gertu egon nahi, eta, horren ondorioz, gaitzespen sozial handia jasaten du, eta berdinekiko harremanetan gabezia edo murrizketa larriak ditu.
<p>2. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none">• Higie falta oso nabarmena dago (adibidez, haurra edo nerabea ez da bainatu edo dutxatu zenbait astetan gutxienez, gorputzeko edo ahoko usain txarra dauka, hortzak lertzo estaliak, horixkak edo orbanek beteak ditu, arropa zikinak eta ziur asko kendu ezin diren orbanek beteak ditu, ilean janari- edo kaka-arrastoak ditu), baina haurrak edo nerabeak ez dauka horren ondoriozko gaixotasun edo nahaste fisikorik. Beste pertsona batzuen kexak egon dira (adibidez, eskolan) haurraren edo nerabearen higieari buruz. Egoera horren ondorioz haurrak edo nerabeak berdinekiko harremanetan gabezia edo murrizketa larriak izan ez duen arren, ondorio negatibo batzuk izan ditu (murrizketaren bat) arlo horretan.
<p>3. Arrisku arina</p> <ul style="list-style-type: none">• Ohituraz, haurra edo nerabea ez da erregulariki garbitzen, bainatzen edo dutxatzen, ezta behar duenean ere, eta ilea zikina dauka, gorputzeko usaina izan dezake edo agian hats gaiztoa dauka, arropa nahiko zikina du eta ez du zenbait egunetan aldatzen. Horren ondorioz ez du gaixotasun edo nahaste fisikorik izan, eta ez du bazterkeriarik edo gabeziarik edo murrizketarik izan berdinekiko harremanetan.• Lantzean behin, haurra edo nerabea ez da garbitzen, bainatzen edo dutxatzen, ezta behar duenean ere, eta ilea zikina eta nahasia dauka, gorputzeko usaina izan dezake edo agian hats gaiztoa dauka, arropa nahiko zikina dago eta ez du aldatzen. Horren ondorioz ez du gaixotasun edo nahaste fisikorik izan, eta ez du bazterkeriarik nahiz gabeziarik edo murrizketarik izan berdinekiko harremanetan.
<p>4. Egokia</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurra edo nerabea egunero edo bi edo hiru egunetan behin garbitzen da. Ilea orraztuta eta garbi dauka. Arropa erregulariki aldatzen du, nahiz eta itxuraz zikina ez egon. Barruko arropa garbia janzten du egunero.

- ETXEBIZITZAREN HIGIENE-BALDINTZAK —

- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) etxebizitzaren higiene-baldintzetan ikusitako gabezien larritasuna, eta (2) haurraren edo nerabearen osasunean duten edo izan dezaketen inpaktua. Era berean, gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak egoera zuzentzeko duten prestasuna ere kontuan hartzen da.

<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Etxe zikin-zikina; higiene falta larriko zenbait baldintza²⁹ biltzen dira, eta arrisku larria dakarte haurraren edo nerabearen osasunerako. Baliteke haur edo nerabe bat gaixo jarri izana arrazoi horregatik (adibidez: heste-nahastea, intoxikazioa), eta tratamendu medikoa behar izatea.
<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Higiene falta larriko baldintza batzuk daude, baina ez dakarte arrisku larririk haurraren edo nerabearen osasunerako. Haur eta neraberik ez da gaixo jarri eta ez du tratamendu medikorik behar izan horregatik. ● “Larritasun ertainekotzat” jotako inguruabarrak daude eta gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez diete erantzun udal-mailako gizarte-zerbitzuek egoera zuzentzeko emandako jarraibideei.
<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Zikinkeria handia dago etxebizitzan, baina ez, oro har, deskonposizio-egoeran dagoena hondakin organikorik. Adibideak: alfonbra, moketa eta baldosak zikinak daude, alfonbrak usaina dauka; hautsa eta zikinkeria dago alde guztietan eta izkinetan metatuta; etxeak hezetasun- eta ustel-usaina dauka; bainugelak zikin-usain handia dauka; izkina edo gela batzuk zaborrak edo trasteak pilatzeko erabiltzen dira; platerak denak zikinak daudenean soilik garbitzen dira; janari galkorra dago hozkailutik kanpo eta batzuetan ustelduta dago; egunean zehar intsektuak ageri dira zoruan, baliteke saguak egotea (ez arratoiak); paretak, ateak eta bainugelako instalazioek kolorea galdu dute eta zikin- eta koipe-orbanak dituzte; arropa zuria zikina egonda ere erabiltzen da (baina pixa, kaka edo hondakin organikorik gabe). Baliteke zabor pixka bat pilatuta egotea, behar den maiztasunarekin ateratzen ez delako, baina poltsetan sartuta dago. Hori ohiko egoera da, baina haur eta neraberik ez da gaixo jarri edo ez du tratamendu medikorik behar izan horregatik.
<p>4. Arrisku arina</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Etxea ez dago txukun, eta hautsez beteta dago; baliteke gauzak etxe osoan zehar sakabanatuta egotea, eta ikusteko moduko zikinkeria-arrastoak egotea ateetan, leihoetan, zoruan eta abarrean, baina zabor-pilarik ez dago eta produktu galkorrak hozkailuan gordetzen dira. Egoera hori noizean behinekoa edo ohikoa izan daiteke, baina haurrak edo nerabeak ez dira gaixo jarri edo ez dute tratamendu medikorik behar izan arrazoi horregatik, eta egoera horrek ez du arriskurik eragin haien osasunerako.
<p>5. Egokia</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Etxea normalean garbi eta ordenatuta dago; alfonbrari, moketei eta zoruari erratza maiz pasatzen zaie, eta beharrezkoa denean garbitzen dira (hala ere, ileak, hariak eta paper-puskak izan ditzakete); hautsa erregulariki kentzen da (altzarien gainean hauts-geruza mehe bat baino ez dago); usain atseginak edo neutroak; etxea ordenatuta dago (baina egunero erabiltzen diren objektu desordenatuak egon daitezke, edo eseki gabeko berokiak); zaborra ontzi egoki batean biltzen da; platerak garbitu edo, gutxienez, harraskan uzten dira otordu bakoitzaren ondoren; elikagaiak modu egokian gordetzen dira; arropa zuria garbi dago, hondakin organikorik nahiz zomorrerik gabe.

²⁹ **Higiene falta larria**: Higiene falta larriak, **funtsean, barnean hartzen du etxebizitzan deskonposizio-egoeran dauden hondakin organikoak metatzea**; oro har, intsektuen, parasitoen eta/edo karraskarien presentzia dakarte. Era berean, higiene faltaren ondorioz haurrengan eta nerabeengan lesio larriak eragin ditzaketen edo gaixotasunak transmiti ditzaketen intsektuen, parasitoen edo bestelako animalien kontrolik gabeko izurriteak agertzen diren egoerak ere barnean hartzen dira. **Higiene falta larriko baldintzen adibide batzuk**: Moketa, alfonbrak, paretak, ateak, zorua, bainugelak eta etxeko hornidura (platerak, oheko arropa eta abar) janari-hondakin, zabor edo hondakin txertatu askorekin; zikinkeria edo koipe geruza lodia nonahi eta izkinetan pilatua; parasitoak, intsektuak edo arratoiak; altzariak edo koltxoak pixez busti-bustiak; kaka zoruan; botatzen ez den janari usteldua; zaborra gainezka edo pilatua etxeko hainbat tokitan; usain jasanezinak (pixa, kaka, hondakinak); gizakien edo animalien hondakinak.

- ETXEBIZITZAREN EGONKORTASUN- ETA BIZIGARRITASUN-BALDINTZAK -

- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurrak edo nerabeak egonkortasuneko, segurtasuneko, espazioko eta bizigarritasuneko gutxieneko baldintzak dituen etxebizitza bat izatea, **eta** (2) gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak zer mailatan jabetzen diren horren garrantziaz eta zer neurritan adierazten duten jokabide arduratsua alderdi horretan.

1. Oso larritasun handia <ul style="list-style-type: none">Familia bizi den etxebizitza hondamen-egoeran dago edo erortzeko arriskua dakarten baldintzetan. Baldintza horiek arrisku argia dakarte haurren edo nerabearen segurtasunerako, baina familiak ez du etxea utzi nahi, arrisku hori dagoela jakinarazi zaion arren.
2. Larritasun handia <ul style="list-style-type: none">Familiak ez du etxebizitzarik, galdu egin du edo galtzeko zorian dago kaleratzeagatik edo errenta ez ordaintzeagatik, eta ez dauka nora joanik edo joan daitekeen lekuak ez ditu gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen. Udal-mailako gizarte-zerbitzuek egin beharreko gestioak egin dituzte familiak baldintza egokietan dagoen alojamendu bat izan dezan, baina ezinezkoa izan da hori lortzea³⁰.Familia kanpin-denda, furgoneta, auto, karabana, eraikin ezegonkor edo antzeko leku batean bizi da, gutxieneko ekipamendu eta zerbitzurik gabe urari, berokuntzari, argindarrari, sukaldeko ekipamenduari, espazioei eta/edo higiene pertsonalerako (WC) elementuei dagokienez. Baliteke etxebizitza okupatua izatea edo beste familia edo pertsona batzuekin partekatua, eta pertsona horiek ezezagunak izan daitezke. Baliteke familiak intimitate-momentuetarako eta interakzio lasaia izateko espaziorik ez izatea. Haurrak edo nerabeak ez dauka espazio propioirik gutxieneko intimitatea izateko ez eta eskolako lanak egiteko ere. Familia era horretako baldintzetan bizi ohi da, eta gizarte-zerbitzuek eman dizkieten laguntza ekonomikoei edo etxebizitzeari uko egin diete edo gaizki erabili dituzte. Baliteke kokalekua edo etxebizitza maiz aldatzea, baina beti antzeko baldintzetan.
3. Larritasun ertaina <ul style="list-style-type: none">LARRITASUN HANDIKO BIGARREN EPIGRAFEAREN GAUZA BERA: Familia kanpin-denda, furgoneta, auto, karabana, eraikin ezegonkor edo antzeko leku batean bizi da, gutxieneko ekipamendu eta zerbitzurik gabe urari, berokuntzari, argindarrari, sukaldeko ekipamenduari, espazioari eta/edo higiene pertsonalerako elementuei (WC) dagokienez. Baliteke etxebizitza okupatua izatea edo beste familia edo pertsona batzuekin partekatua, eta pertsona horiek ezezagunak izan daitezke. Baliteke familiak intimitate-momentuetarako eta interakzio lasaia izateko espaziorik ez izatea. Haurrak edo nerabeak ez dauka espazio propioirik gutxieneko intimitatea izateko ez eta eskolako lanak egiteko ere. Gurasoek edo haurren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak udal-mailako gizarte-zerbitzuen laguntza onartu dute, baldintza hobetan dagoen alojamendu bat izateko.
4. Arrisku arina <ul style="list-style-type: none">Etxebizitzak oinarrizko ekipamendua dauka —gabezia arinak egon daitezke—, baina ez ditu baldintza egokiak haurrak edo nerabeak behar duenean intimitatea izateko, edo espaziorik/ekipamendurik eskolako lanak egiteko.
5. Egokia <ul style="list-style-type: none">Familiak etxebizitza egonkorra dauka —alokatua edo jabetzan—, bere premientzako behar adina oinarrizko ekipamendu eta espazioekin, eta funtzionamendu-baldintza onetan. Haurrak edo nerabeak behar adinako intimitatea dauka, eta baita eskolako lanak egiteko espazioa/ekipamendua ere.

B. SEGURTASUN-BEHARREKIKO ZABARKERIA

³⁰ Haurren eta nerabeen arreta eta zaintzari dagokionez zailtasun materialak soilik dituzten familien kasuan, eta, zehazki, etxebizitzarik ez duten, berehala galduko duten edo bizigarritasuneko gutxieneko baldintzetan dagoen etxebizitzarik ez duten familien kasuan, udal-mailako gizarte-zerbitzuek dagokion jardunak egingo dituzte familia horiek aldi baterako alojamendua eskura dezaten sustatzeko —dela laguntza-sare propioaren bitartez edo administrazio publikoen baliabideen bitartez—, familia-unitateari eusteko aukera emanez, eta behar diren laguntzak kudeatuko dituzte familiak etxebizitza egonkor bat eskuratu ahal izateko, haurren eta nerabeen ongizatea bermatuko duten baldintzetan. Alojamentu hori lortzea ezinezkoa denean soilik justifikatu ahal izango da babesgabatasun handiko egoeraren balorazioa ematea eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek dagokion esku-hartzea egitea. Kasu horretan, zerbitzu horiek baloratuko dute haurren edo nerabearen zaintza beren gain hartzea dagokien ala ez, kalte larri bat izatea saihestera bideratutako **aldi baterako** neurritzat hartuta. Neurri honen iraupena mugatua izango da, eta familiaren arazo materialak eta etxebizitzakoak konpontzeko behar den denborara murriztuko da (**oharra:** kasu horretan ez da beharrezkoa izango lurraldeko gizarte-zerbitzuek gutxienez hamabi hilabetez esku-hartzea familiarekin). Horretarako, lurralde-mailako eta udal-mailako gizarte-zerbitzuek modu koordinatuan lan egingo dute beren baliabide propioekin eta familiaren laguntza-sare naturalek lor daitezkeen baliabideekin, eta baita arlo horretan eskumena duten administrazio publikoen beste sektoreen mendeko baliabideekin ere.

- **ETXEBIZITZAREN SEGURTASUN FISIKOA ETA ARRISKUEN PREBENTZIOA** -

- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) segurtasuneko gabeziak egotea etxebizitzan, (2) gurasoen edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza duten pertsonen jokabide zuhurtziagabeen maila edo maiztasuna; (3) gabezia horiek haurraren edo nerabearen osotasun fisikoarentzat suposatzen duten mehatxu-maila, eta (4) ama, aita edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak horren garrantziaz zer neurritan jabetzen diren eta jokabide arduratsua erakusten duten horri dagokionez.

<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Zalantzarik gabe arriskutsuak diren baldintza bat edo batzuk daude etxean duela denbora asko. Arrisku nabarmen bat dago haurraren edo nerabearen bizitzarako eta etxean bizi diren pertsona helduek ez dute adierazten horretaz jabetzen direla, ez dituzte hori konpontzeko neurriak hartu, eta ez dute arazoa behar adina begiratzen. Baliteke familiako haur edo nerabe batek kalte edo lesio fisikoren bat jasan izana eta medikuaren arreta behar izana horregatik.• Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak jokabide ausartegiak egin dituzte haur edo nerabearekin (adibidez, ausarkeriaz gidatzea, hordituta edo drogen eraginpean haurtxo bat eramatea) eta haien bizitza arriskuan jarri dute jokabide horien ondorioz. Ez dira egoera horretaz jabetzen, eta, beraz, uste da egoera hori berriz gertatzeko probabilitatea oso altua dela. Baliteke familiako haur edo nerabe batek kalte edo lesio fisikoren bat jasan izana eta medikuaren arreta behar izana horregatik.
<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Baldintza arriskutsu bat edo batzuk daude aspalditik etxean. Haurrak edo nerabeak kalte handia jasateko arriskuan dira; eta bizitza arriskuan jartzeko probabilitatea txikia bada ere, istripu larri bat gerta liteke. Etxean bizi diren pertsona helduek ez dute adierazten haurrak edo nerabeak duen arriskuaz jabetzen direla, ez dituzte hori konpontzeko neurriak hartu, eta ez dute behar adinako arretaz jokatzeko. Baliteke familiako haur edo nerabe batek kalte edo lesio fisikoren bat jasan izana eta medikuaren arreta behar izana horregatik.• Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak haur edo nerabeak kalte handia pairatzeko moduko arriskua eragin duten jokabide ausartegiak izan dituzte sarritan haur edo nerabearekin. Egoera hori berriz ere gertatzeko probabilitatea oso altua dela uste da, eta haurraren edo nerabearen bizitza arriskuan jartzeko probabilitatea txikia bada ere, istripu larri bat gerta liteke. Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak ez dute erakusten egoera horretaz jabetzen direnik. Baliteke familiako haur edo nerabe batek kalte edo lesio fisikoren bat jasan izana eta medikuaren arreta behar izana horregatik.
<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none">• Baldintza arriskutsu bat edo batzuk daude aspalditik etxean. Zenbait momentutan, pertsona helduek ez dute behar bezala begiratzen haurra edo nerabea, eta horren ondorioz haurrak edo nerabeak kalte larria pairatzeko arriskua dauka, eta bizitza arriskuan jartzeko probabilitatea txikia bada ere, istripu larri bat gerta liteke. Familiako haurrek nahiz nerabeek ez dute kalte edo lesio fisikorik pairatu horren ondorioz.• Behin baino gehiagotan aitak, amak edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak haur edo nerabearentzat kalte handia pairatzeko arriskua eragin duten jokabide ausartegiak izan dituzte haur edo nerabearekin. Egoera hori berriz ere gertatzeko probabilitatea oso altua dela balioesten da, eta haurraren edo nerabearen bizitza arriskuan jartzeko probabilitatea txikia bada ere, istripu larri bat gerta liteke. Familiako haurrek nahiz nerabeek ez dute kalte edo lesio fisikorik pairatu horren ondorioz.
<p>4. Arina</p> <ul style="list-style-type: none">• Etxean baldintza arriskutsu bat edo bi daude. Etxebizitzan bizi diren pertsona helduek modu egokian begiratzen dute, baina haurraren edo nerabearen kalte larria eragin dezakeen etxeko istripu bat izateko arriskua dago. Familiako haurrek eta nerabeek ez dute kalte edo lesio fisikorik pairatu horren ondorioz.
<p>5. Egokia</p> <ul style="list-style-type: none">• Ez dago baldintza arriskutsu nabarmenik etxean.• Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dute inoiz zuhurtziagabeko jokabiderik izan haurrekin edo nerabearekin.

Baldintza arriskutsuen adibide batzuk: Gas-ihesa izan da berogailuetan edo sukaldean; sutea gertatu da duela gutxi gela batean edo eraikinean; erradiadoreetatik ur beroa edo lurruna ateratzen da; gai arriskutsuak (adibidez: produktu kimikoak, sendagaiak) edo objektu arriskutsuak (armak, aiztoak, guraizeak) daude apalategi baxuetan edo giltzaz itxi gabeko armairuetan, harraskaren azpian edo begien bistan gordeta; ez dago babesik leihoetan eta irekita daude; leihoak hautsita dute beira edo ez dute beirarik; eskailerek ez dute babesik.

- ARTATZEA -

KOADRO ORIENTAGARRIA

Haur edo nerabe baten artatze-beharren balorazioa egiteko irizpideak

Haurraren edo nerabearen babes, segurtasun eta ongizatearen gaineko erantzukizun nagusia aitarena eta amarena edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonena da, pertsonalki begiratzeko bertan dauden ala ez kontuan hartu gabe.

Adina ez da haurraren edo nerabearen artatze-beharren balorazioa egiteko kontuan hartu beharreko faktore bakarra. Kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk dira heldutasun-maila edo arazo emozionalak edo muga fisiko edo intelektualak dauden ala ez. Hurrengo koadroan jasotzen diren irizpide orientagarriak, beraz, autonomian eragina duten mugen presentziaren eta larritasunaren arabera egokitu beharko dira, eta baita haurraren edo nerabearen garapen-mailaren arabera ere.

<i>Haurraren edo nerabearen adina</i>	<i>Bakarrik egoten da bi orduz edo gutxiagoz</i>	<i>Bakarrik egoten da 2-4 orduz</i>	<i>Bakarrik egoten da etxean gauz</i>	<i>Etiket kanpo egoten da pertsona heldurik gabe</i>	<i>Bakarrik egoten da autoan denbora mugatu batez</i>	<i>Beste haur edo nerabe batzuk zaindu ditzake</i>
0-4 urte	EZ	EZ	EZ	EZ	BAI, hotz edo bero handia egiten duenean izan ezik; pertsona heldu baten bistan dela eta bere aulkian lotuta; autoak giltzak kenduta eta esku-balazta jarrita dituela	EZ
5-6 urte	EZ	EZ	EZ	BAI, jolas-eremuan edo lorategian pertsona heldu bat gertu duela (artatze bisualarekin edo haurrarekin hitz egiteko edo hari entzuteko aukera ematen duen distantzian)	BAI, hotz edo bero handia egiten duenean izan ezik; pertsona heldu baten bistan dela eta bere aulkian lotuta; autoak giltzak kenduta eta esku-balazta jarrita dituela	EZ
7-8 urte	EZ	EZ	EZ	BAI, pertsona heldu bat gertu duela	BAI, hotz edo bero handia egiten duenean izan ezik; autoak giltzak kenduta eta esku-balazta jarrita dituela	EZ
9 urte	BAI, egunez	EZ	EZ	BAI	Bai, autoak giltzak kenduta eta esku-balazta jarrita dituela	EZ
10-11 urte	BAI, pertsona heldu batekin harremanetan azkar jartzeko aukerarekin (telefonoa)	BAI, pertsona heldu batekin harremanetan azkar jartzeko aukerarekin (telefonoa)	EZ	BAI	Bai, autoak giltzak kenduta eta esku-balazta jarrita dituela	EZ
12-14 urte	BAI	BAI	EZ	BAI	BAI	BAI, jarraibide argiekin
15-17 urte	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

“BAI” adierazten den kasu guztietan, gurasoek edo haurren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak egoera zehatza balioetsi behar dute, eta jazo daitekeen edozein gertakari edo ustekabe prebenitzeko neurriak hartu behar dituzte. Kontuz ibili behar da 15-17 urteko nerabeak pertsona heldu arduratsu bat gabe gauez bakarrik uzteko orduan.

- ⇒ “Abandonuaren” eta “artatze-zabarkeriaren” arteko aldea honako honetan oinarritzen da: aitak, amak edo haurren edo nerabearen tutoretza edo zaintza duten pertsonak haur edo nerabeaz arduratzera itzultzeko asmorik baduten edo ez (esplizitua edo ikus daitekeena). “Abandonua” gertatzen den kasuetan, itzultzeko asmorik ez dago, epe laburrera behintzat.
- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da). Haurren edo nerabearen egungo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haur edo nerabearen artatze-defiziten presentzia eta maiztasuna, familia-etxebizitzaren barruan nahiz kanpoan, eta (2) defizit horiek zer mailatako mehatxua dakarten haurren edo nerabearen osotasun fisikorako. **Garrantzitsua da haurren edo nerabearen ezaugarri partikularrak kontuan hartzea (adina, adimen-gaitasuna eta abar) artatze-beharrak ezartzerakoan.**

1. Oso larritasun handia

- **Ohituraz**, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **ez dute artatze jarraitua egiten —edo ez dute bermatzen beste pertsona egoki batek egingo duela— sei urtetik beherako haurren** gainean. Gutxi begiratzen dute haurra etxe barruan eta/edo etxetik kanpo. Artatze egokirik gabe egon daiteke oso eremu arriskutsuan (adibidez: auto batek harrapatzeko, leiho batetik erortzeko edo erretzeko probabilitate handiko arriskuan) edo elementu arriskutsuak dauden segurtasunik gabeko eremu batean (adibidez: puskatutako kristalak, produktu kimikoak edo aparatu elektrikoak gertu dauden eremuak).
 - Ohituraz edo noizean behin, **begiratu** gabe utzi da **sei urtetik beherako haur bat denbora-tarte luzeegian** (ikus aurreko orrialdeko taula) **edo arduratsua ez den pertsona baten zaintzapean** (adibidez: hamabi urtetik beherako beste haur bat, argi eta garbi arduratsua ez den nerabe bat, horretarako gaitasuna ez duen pertsona heldu bat), eta, egoera hori izanik ere, gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez daude edo baliteke ez egotea haurri oinarritzeko premiak sortzen zaizkion unean (adibidez: elikagaiak edo ura hartzeko beharra, istripu bat eragozteko beharra, larrialdi batean laguntza eskatzeko beharra, komunera joateko beharra).
 - **Ekintza arriskutsu edo suntsikor larriak egin dituen haur edo nerabe bat** (adibidez: ideia suizidak, suteak eragitea) behar bezala artatu gabe utzi da.
 - **Aldez aurretik beste haur edo nerabe batzuekiko indarkeria edo sexu-abusuak egin dituen pertsona baten** ardurapean utzi da haur edo nerabe bat, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **inguruabar horren berri** izanda.
 - **Behin baino gehiagotan** haurra edo nerabea **bere bizitza arriskuan jartzen duen egoera** batean utzi da, edo benetan arrisku larrietatik aldentzeko prebentzio-neurri egokiak ez dira ezarri (adibidez: hamabi urtetik beherako haurra su-armak edo elementu benetan arriskutsuak eskura dituela; hiru urtetik beherako haurra begiratu gabeko igerileku batetik gertu; haurtxoa bainuontzian zaintzarik gabe).
 - **Hamabi urteko edo hortik beherako haur** batek etxetik **ihes egin** du. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dakite non dagoen edo ez dakite ziur, **eta ez dute ezer egin eta ez dute ezer egitea pentsatu ondo dagoela ziurtatzeko.**
- Baliteke haurrak edo nerabeak kalte fisikoren bat pairatu izana edo beste pertsona batek eraso izana, egoera horietako baten ondorioz. Hori gertatzeko arrisku nabarmena dago, edo estres handiko egoera baten eraginpean egotekoa.**

2. Larritasun handia

- Ohituraz, **begiratu** gabe utzen da **sei urtetik hamabi urtera bitarteko haur bat denbora-tarte luzeegian** (ikus aurreko orrialdeko taula) **edo arduratsua ez den pertsona baten zaintzapean** (adibidez: beste neska-mutil txiki bat, argi eta garbi arduratsua ez den nerabe bat, horretarako gaitasuna ez duen pertsona heldu bat). Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak gutxi zaintzen dute etxean eta/edo etxetik kanpo. Artatze egokirik gabe egon daiteke oso eremu arriskutsuan (adibidez: auto batek harrapatzeko, leiho batetik erortzeko edo erretzeko probabilitate handiko arriskuan) edo elementu arriskutsuak dauden segurtasunik gabeko eremu batean (adibidez: puskatutako kristalak, produktu kimikoak edo aparatu elektrikoak gertu dauden eremuak). Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dakite non dagoen edo zer egiten duen egunean zehar, baina gauez etxean dagoela ziurtatzen dute edo badakite non dagoen. Beren gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak gauez non dauden edo noiz itzuliko diren ez dakiten haur koskortuak edo nerabeak daude, baina larrialdi batean laguntza eskatzeko gai dira. Baliteke haurra edo nerabea leku ezezagunetan ibiltzea. Oro har, **neurri handiegian utzen da bere segurtasunaren ardura haurren edo nerabearen gainean.** **Baliteke haurrak kalte fisikoren bat pairatu izana edo beste pertsona batek eraso izana, egoera horien ondorioz. Hori gertatzeko edo estres-egoera nabarmen baten eraginpean egoteko arrisku argia dago.**
- **Nerabeak (13 urte edo gehiago):** Askotan nerabeak etxetik kanpo igarotzen du gau osoa, **bere gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak non dagoen edo noiz itzuliko den jakin gabe. Normalean ez dakite zer egiten duen, eta ez dute ezer egiten hori jakiteko.** Hala etxean nola etxetik kanpo egiten duenaren gaineko interes gutxi adierazten dute, edo batere ez, betiere arazorik sortzen ez badiete. Esan dezakete ezin dutela kontrolatu, edo nerabearen independentzia defendatu (“bere kabuz ikasi behar du mundua nolako den”). Gurasoek

edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez diote beren buruari galdetzen nerabeak etxetik kanpo eskuratzen dituen objektuei edo diruari buruz, edo pertsona heldu ezezagun edo desegokiekin edo egokitzapen-arazo larriak dituzten beste nerabeekin maiz egoteari buruz. **EDO**
Nerabeak etxetik **ihes** egin du. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dakite non dagoen edo ez dakite ziur, **eta ez dute ezer egin eta ez dute ezer egitea pentsatu ondo dagoela ziurtatzeko.**

3. Larritasun ertaina

- **Sei urtetik beherako haurrak:** Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **zailtasunak dituzte haurrari erreparatzeko etxean eta/edo etxetik kanpo. Nahiko ohikoa da haurraz behar adina ez arduratzea eta zer egiten ari den ez jakitea**, ikus-eremutik galduta, baina non dagoen jakin badakite. Baliteke haurra egin behar ez dituen gauzak egiten egotea. Hala ere, ez du lesio edo kalte fisiko larriarik pairatu horren ondorioz, eta gurasoak edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak **zentzuzko denboran irits daitezke harengana larrialdi bat gertatzen bada.**
- **Sei urtetik hamabi urtera bitarteko haurrak:** Haurra kalean jolasten da etxe ondoan. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **non dagoen jakin dezakete, baina ez dute behar den maiztasunarekin egiaztatzen.** Neurri handi batean, beste pertsona batzuen esku dago haurra behatua egotea edo ez. Gerta liteke haurra jolasten ari den lekura azkar iritsi ezin izatea, horren beharra sortuz gero. **Batzuetan, gaitasuna ez duen pertsona baten zaintzapean utzi da haurra** (adibidez: beste haur txiki bat, zaintzeko gaitasuna ez duen pertsona heldu bat). Hala ere, haurrak ez du inoiz lesiorik pairatu horren ondorioz.
- **Nerabeak (13 urte edo gehiago):** Nerabeak jarduera desegokietan parte hartzen du, sarritan, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak jakin gabe; **sarritan, ez dakite non dagoen. Batzuetan ez dute behar adinako ahalegina egiten nerabea noraino irits daitekeen jakiteko, edo ez dituzte beharrezko zigorrak jartzen arauak hausten direnean. Egoerari buruzko kezka adierazten dute.** Zailtasunak dituzte nerabearen errespetua lortzeko, baina ez dute guztiz galdu. Sarritan gerta daiteke gauean bakarrik uztea etxean.

4. Arrisku arina

- **Sei urtetik beherako haurrak: Ohikoa ez den arren,** kasu batzuetan gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **zailtasunak dituzte haurrari behatzeko etxean eta/edo etxetik kanpo.** Momentu batzuetan ez daude haurrari begira eta ez dakite zer egiten ari den, ikus-eremutik kanpo izanik, baina non dagoen badakite. Baliteke haurra egin behar ez dituen gauzak egiten egotea. Hala ere, ez du lesio edo kalte fisiko larriarik pairatu horren ondorioz, eta gurasoak edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak **zentzuzko denboran irits daitezke harengana larrialdi bat gertatzen bada.**
- **Sei urtetik hamabi urtera bitarteko haurrak:** Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **zailtasunak dituzte haurrari behatzeko etxean daudenean.** Normalean ez dira haurraren gainean egoten, eta ez dakite beti zer egiten ari den, baina beti dakite non dagoen. Sarritan, egin behar ez dituen gauzak egiten egoten da haurra. Batzuetan jolas bortitzetan parte hartzen du. Hala ere, ez du lesio edo kalte fisikorik pairatu horren ondorioz, eta gurasoak edo tutoretza edo zaintza duten pertsonak **zentzuzko denboran irits daitezke harengana larrialdi bat gertatzen bada. Etxetik kanpo haurraren jarduerak begiratzeaz arduratzen dira.**
- **Nerabeak (13 urte edo gehiago):** Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **arauak jartzen** dizkiote nerabeari eta **normalean betearazten dituzte.** Baina nerabeak batzuetan konbentzitzen ditu **beren iritziaren kontrako jarduera jakin batzuk baimentzeko edo onartzeko** (adibidez: etxera beranduegi iristea, behar adina informazio gabeko lekuetara joatea, edo nerabeaz arduratuko den inor ez dagoen lekuetara joatea).

5. Egokia

- Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak behar bezala eta dagokion uanean begiratzen dituzte haurraren edo nerabearen jarduerak etxean eta etxetik kanpo. Badakite non dagoen eta zer egiten duen, norekin dagoen eta noiz itzuliko den. Muga zehatzak eta egokiak jartzen dira haren jardueretan. Ez daudenean, pertsona heldu arduratsu baten zaintzapean uzten dute haurra edo nerabea, edo pertsona heldu baten zaintza behar ez izateko behar adina heldua den nerabe bat da.

- BESTE PERTSONA BATZUEK ERAGINDAKO BABESGABETASUN LARRIKO EGOEREN AURKAKO BABESA -

Haurra edo nerabearen aurka tratu txarrak, abusuak³¹, erasoak edo mehatxuak egin dituen pertsona (adingabea edo adin nagusikoa) gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak izan ez direnean soilik aplikatzen da egoera hau. Ezkongai-harremanetako biktimizazioa ere sartzen da.

- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da). Ebaluatzen den haurraren edo nerabearen egungo egoeratik gertuen dagoen larritasun-maila kalifikatuko da.
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haurrari edo nerabeari gertatzen zitzaiona jakitea, (2) hori gertatzen ari zela adierazten zuten seinaleak hautemateko gaitasuna, eta (3) egoerari erantzuteko modua³².
- ⇒ Hirugarren pertsona batek eragindako tratu txarrak, erasoak edo abusuak larriak izan ote diren zehazteko, tresnaren bitartez deskribatutako larritasun handiko edo oso handiko irizpideak hartuko dira kontuan.
- ⇒ “Tratu txarra, eraso edo abusua” izendapenean tipologia guztiak sartzen dira (fisikoak, psikikoak, sexualak, bai eta egitez edo ez-egitez eragindakoak ere).
- ⇒ Tipologia honetan ez dago arrisku arineko kalifikaziorik.

<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurrak edo nerabeak hirugarren pertsona baten tratu txarrak edo eraso larriak edo abusua pairatu ditu. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak horren berri zuten arren, jokabide pasiboa izan zuten, haur edo nerabea babestu gabe edo gertakari berri ez zutelako itxurak egin zituzten. Ez zuten neurririk ezarri hori bukatzeko edo gertakariak berriz ez gertatzeko. Baliteke tratu txarra, eraso edo abusua ukatzea eta haurrak edo nerabeak bizi zuten arriskua ez aitortzea. Baliteke errua haurrari edo nerabeari egozte. Ez zuten salatu eta ez zuten berehalako laguntza bilatu.
<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurrak edo nerabeak hirugarren pertsona baten tratu txarrak edo eraso larriak edo abusua pairatu ditu. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez zuten sen ona izan egoera hori prebenitzeko (adibidez: hirugarren pertsona horrek murrizketarik eta mugarik gabe zuten aukera haur edo nerabearengandik gertu egoteko); ez zituzten hauteman tratu txarra, eraso edo abusua gertatzeko arriskua adierazten zuten seinaleak —begi-bistakoak ziren seinale horiek, aburu profesionalaren ustez—. Ez zuten gertatzen zenaren berri izan. Ebidentzien arabera, gertatutakoaren berri izatean, geldiarazten saiatu ziren baina ez zuten lortu. Ez zituzten azkar ezarri behar adina neurri, eta ez zuten mugatu tratu txarraren, erasoaren edo abusuaren erantzuleak haur edo nerabearekin kontaktua izateko aukera. Kezka erakutsi dute, baina ez dute behar adinako jokabide aktiboa edo eraginkorra hartu tratu txarra, eraso edo abusua berriz ez gertatzeko, begi bistan utzita hori egiteko gaitasun txikia duela.
<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurrak edo nerabeak hirugarren pertsona baten tratu txarrak edo eraso larriak edo abusua pairatu ditu. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez zuten sen ona izan egoera hori prebenitzeko (adibidez: hirugarren pertsona horrek murrizketarik eta mugarik gabe zuten aukera haur edo nerabearengandik gertu egoteko); ez zituzten hauteman tratu txarra, eraso edo abusua gertatzeko arriskua adierazten zuten seinaleak —begi-bistakoak ziren seinale horiek, aburu profesionalaren ustez—. Ez zuten gertatzen zenaren berri izan. Azkar eta zentzuzko moduan jardun zuten gertakariaren aurka (adibidez: arduraduna salatu edo laguntza eskatuta), eta gizarte-zerbitzuek eskainitako laguntza onartu dute.
<p>4. Arriskurik ez</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurrak edo nerabeak hirugarren pertsona baten tratu txarrak, eraso edo abusu larria pairatu du, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak sen ona izan zuten arren. Ez zirudien tratu txar, eraso edo abusu bat gertatu zela adierazten zuten alde aurreko adierazlerik zegoenik, eta/edo zentzuzko neurriak hartu zituzten haurra edo nerabea edozein tratu txarretik babesteko. Gertatutakoaren berri izan ondoren, tratu txarraren, erasoaren edo abusuaren erantzuleen eta haurraren edo nerabearen arteko kontaktua behar bezala murriztu eta kontrolatu dute. Beharrezkoa izan denean, haurrari edo nerabeari laguntza profesional egokia ematen saiatu dira.

³¹ Kontuan izan **bizikidetz-unitatea osatzen duten ahaideek edo gertukoek eragindako sexu-abusuak ez** direla **eskala horretan** kalifikatu behar, **sexu-abusuari** dagokion eskalan baizik.

³² Eskala horretan, hau soilik baloratuko da: ea aitaren, amaren edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen erantzuna egokia den haur edo nerabearen babeserako, erantzun horren eraginkortasuna dena delakoa izanda ere.

C. PRESTAKUNTZA-BEHARREKIKO ZABARKERIA

- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen arreta-maila eta artatze-maila haurraren edo nerabearen prestakuntza-beharrei dagokienez, eta (2) haurrak edo nerabeak arlo horretan izan ditzakeen arazoekiko eta ikastetxearen eskakizun eta orientabideekiko erantzuna.
- ⇒ Tipologia honetan ez dago larritasun oso handiko kalifikaziorik.

1. Larritasun handia

- Haurra edo nerabea derrigorrezko eskolatzeko adinean dago (6-16 urte) eta ez dago inongo ikastetxe ofizialean izena emanda eta ez da horrelakorik egitea aurreikusten, eta aita, ama edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ez diote bere hezkuntza-beharretarako hezkuntza-programa individualizatu bat ematen³³.
- Haur edo nerabeak eskolatzeko 16 urte bete aurretik utzi du; matrikulatuta egon arren, ez ditu faltak justifikatzen (justifikatu gabeko faltak % 100 dira), edo denboraldi batzuetan ez da eskolara joaten zenbait aste osotan, edo eskolara joan baino gehiagotan egiten du kale. Egoera hori justifikatzen duen kausarik gabe gertatzen da, eta gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen onartu, ezkutatu edo horretarako bidea ematen dute. Haurrak edo nerabeak errekupeazio-lan luzea behar du eskolan egunean jartzeko. Ikastetxeak kexa asko helarazi dizkie gurasoei edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen baina inolako emaitzarik lortu gabe.
- Haurrak edo nerabeak zailtasun larriak ditu eskola-testuinguruan (esaterako, % 50etik gorako absentismoa, arau-hausteengatik arazo larriak, eskola-atzerapen larria, erasoak edo mehatxuak ikaskideei), eta amak, aitak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ez diete erantzuten ikastetxearen eskaerei ETA erabateko arduragabetasuna erakusten dute haurraren edo nerabearen arazoekiko eta hark eskola-ingurunean duen eboluzioarekiko, edo funts gutxikoak dira erabat (hor sartzen da, eskola-atzerapen larria duten haurren edo nerabeen kasuan, etxerako eskola-lanetan inolako laguntzarik ez ematea eta haiek ez begiratzea, baldin eta aurretik aipatutako inguruabarren batekin batera gertatzen bada). Baliteke zentroari egozte haurraren edo nerabearen arazoak.

2. Larritasun ertaina

- Haurra edo nerabea modu irregularrean joaten da eskolara; hilean eskola-egunen % 20-50ean huts egin du, edo etengabe egin du kale eguneko ordu jakin batzuetan, edo irakasgai jakin batzuetan huts egin du, gutxienez astean bi aldiz. Egoera hau justifikatzen duen kausarik gabe gertatzen da, eta gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen onartu, ezkutatu edo horretarako bidea ematen dute. Horrek eragin negatiboa izan du haurraren edo nerabearen eskola-errendimenduan. Ikastetxeak kexa batzuk helarazi dizkie gurasoei edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen baina inolako emaitzarik lortu gabe.
- Haurrak edo nerabeak zailtasun nabarmenak ditu eskola-testuinguruan (adibidez: eskolara irregularki joatea, arauak betetzeko arazoak, irakasleekiko eta ikaskideekiko errespetu falta, eskola-atzerapena, kontzentrazio- eta arreta-arazoak), eta gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ez diete behar bezala erantzuten ikastetxearen eskaerei (barnean hartzen da eskolako lanen gaineko gertuko arreta eta laguntza). Kezka adieraz dezakete, baina ez dituzte neurri egokiak eta sendoak hartzen.
- 16 urtetik gorako nerabeak, nahitaezko eskolatzeko aprobetxamendurik gabe edo gutxirekin amaitu ondoren, lan baterako prestatuta ez daudenak edo ikasten jarraitu nahi ez dutenak, prestakuntzako edo laneko jarduerarik egiten ez dutenak eta egin nahi ez dutenak, eta, gainera, horien gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ez dute horri buruzko kezka adierazten, eta ez dira saiatzen prestakuntzako edo laneko jardura batean parte har dezaten. Larritasun-maila ertaineko kalifikazioa emateko, gazteak beste desegokitze-adierazle batzuk ere izan behar ditu.

3. Arrisku arina

- Haurra edo nerabea beste ikasle batzuk baino sarriagotan ez da joaten eskolara, baina ez dirudi eskola-errendimenduan ondoriorik izan duenik. Ikastetxea noizbait kexatu zaie gurasoei edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen horri buruz, baina ez da bestelako neurririk kontuan hartu.
- Haurra edo nerabea jokabideko, egokitzapeneko edo errendimenduko zailtasunen azarnak erakusten hasi da ikastetxean, edo puntualtasun-arazoak izaten ditu, eta, eskolako arduradunen balorazioaren arabera, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ikastetxearekin harreman estuagoa izanda jardun beharko lukete arazo horiei aurre egiteko. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ez diete behar den garrantzia ematen zailtasun horiei. Barnean hartzen da haurraren edo nerabearen eskolako lanen gaineko laguntza eta arreta emateko premiarik behar den garrantzia ez ematea.

³³ (1) Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza duten pertsonen haur edo nerabearen hezkuntza-programa egokia eta individualizatua eskaintzen badiote, eta (2) bestelako babesgabetasun-adierazlerik ez badago, espediente itxi egingo da. Inguruabar horiek izanez gero, egoera-mota horiek ez dira babesgabetasuntzat hartuko.

4. Egokia

- Baliteke haurra edo nerabea eskolara zenbait egunetan joan ez izana, baina ez ikasle gehienak baino egun gehiagotan, eta ez-joateak justifikatu ditu.
 - Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak komunikazio erregularra dute eskolako arduradunekin, interesa erakusten dute eta haurraren edo nerabearen eboluzioan laguntzen dute. Arazoak izan direnean (agian larriak izan dira), ikastetxearekin lankidetzan estuan aritu dira arazoei aurre egiteko, eta beren erantzuna egokia eta sendoa izan da.
-

D. BEHAR PSIKIKOEKIKO ZABARKERIA

Barnean hartzen ditu honako hauek: haurren edo nerabearen interakzio- eta afektu-beharrak, estimulazio- eta gida-beharrak, eta orientazio-beharrak ez asetzea, eta haurren edo nerabearen arazo emozional larrirentzako arreta psikologiko edo psikiatrikoa emateari uko egitea edo hori ematen atzeratzea.

- ⇒ Haurren edo nerabearen egungo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.
- ⇒ Hau da **kalte psikiko larria**: “Haur edo nerabeak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk egiaztatuta izatea: (a) nahaste psikopatologikoa, (b) antsietateko, depresioko, uzkurtsuneko sintoma klinikoak edo jokabide ukatzailea, jokabide erasotzaileak edo autosuntsigarriak, edo garapeneko atzerapenak, edo (c) garapeneko eta egokitzapen pertsonal eta sozialeko prozesua larriki eragozten duten eta berehalako tratamendu espezializatua behar duten jokabide-arazoak edo ondoez emozionaleko sintoma larriak. Diagnosi-teknika objektiboak edota fidagarritasun- eta baliotasun-indize egokiak dituzten tresnak aplikatuz erabakiko da sintoma klinikorik badagoen (jo Balora tresnaren lehen zatira, deskribapen eta irizpide tekniko zehatzagoak ikusteko).

Larritasun oso handia, handia eta ertaina dakarten egoerak

Interakzioa eta afektua

- ⇒ Era horretako beharrekiko zabarkeriaren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen edo gurasoen jokabide zabarraren intentsitatea eta maiztasuna, (2) haurren edo nerabearen adina, eta (3) haurraren edo nerabearen sumatzen diren ondorioen larritasuna.
- ⇒ Gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen jokabide zabarraren larritasuna ertaina bada (ikuski kategorian horren lehen epigrafean), baina horren ondorioz haurrak edo nerabeak pairatzen duen kalte psikikoa larria bada, larritasuna handiko kalifikazioa emango zaio egoerari.

1. Oso larritasun handia

- Gurasoek edo haurren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ez diete jaramon egiten haurren edo nerabearen interakzio-ahaleginei eta -beharrei (haurraren edo nerabearen afektu-, zaintza- eta maitasun-adierazpenik ez egitea), eta ez dute adierazten inolako emoziorik edo emozio gutxi adierazten dute haur edo nerabeekiko interakzioetan³⁴. **Ez dago haurren edo nerabearen behar emozionalen arreta edo harekiko interakzio egokirik, edo hori aldizka edo oso gutxitan egiten da.** Haurrak edo nerabeak gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen arreta lortzeko egiten dituen ahaleginek liskarra eragin dezakete. **Inoiz edo oso gutxitan daude eskura** haurrari edo nerabeari laguntzeko, behar duenean edo gida edo orientabideak eskatzen dituenetan. Haurrak edo nerabeak helduekin hitz egiteko edo haiek bere jardueretan sarrarazteko egiten dituen ahaleginen aurrean jaramonik ez egiteko edo interesik ez adierazteko joera dute. **ETA**
- Egoera hori **etengabe, intentsitate handiz eta argi ikusteko moduan** gertatzen da, guraso-figuren eta haurren edo nerabearen arteko **harremanen ezaugarri nagusi bihurtuta. ETA**
- **Familia-ingurunean** ez dago bestelako figurarik, interakzio- eta afektu-premiei arreta egokia ematen dienik eta **defizit horiek konpentsatzen dituenik. ETA**
- **Sei urtetik gorako haurrak eta nerabeak: kalte psikiko larria du** eta zentzuzko datuak daude kalte hori gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **jokabide zabarraren ondorio** dela pentsatzeko. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten.

Sei urtetik beherako haurrak: Larritasuna oso handiko kalifikazioa emango da, **haurrak kalte psikikoaren sintomak edo garapeneko atzerapen larriko sintomak izan edo ez.**

2. Larritasun handia

- **“Larritasun oso handia” kategorian deskribatutako inguruabarrak** gertatzen dira **sei urtetik gorako haur batengan edo nerabe batengan**, baina, haurrak edo nerabeak **kalte**

³⁴ Honako hauek hartzen ditu barnean:

- Haurra edo nerabea alde batera uztea edo harekin ez inplikatzeko, ezin dutelako edo motibaziorik ez duelako.
- Interakzioa behar beharrezkoa denean soilik egitea.
- Haurraren edo nerabearen inolako afektu, zaintza eta maitasuneko adierazpenik ez egitea.

psikikoaren sintomak dituen arren, **ez dira larriak** (ikusi definizioa). Hala ere, sintoma horiek **ez dute hobera egiten; aitzitik, larritasun handia hartzen doaz**, eta zentzuzko datuak daude pentsatzeko gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **jokabide zabarraren ondorio** direla. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten. **EDO**

- **“Larritasun ertaina” kategorian deskribatutako inguruabarrak** gertatzen dira, **gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen jokabideari dagokionez, eta familia-ingurunean defizit horiek konpentsatzen dituzten bestelako figurak ez egoteari dagokionez** (ikusi lehenengo bi epigrafeak). Egoera muturrekoa ez den arren, haurrak edo nerabeak **kalte psikiko larria** du (ikusi definizioa), eta zentzuzko datuak daude pentsatzeko gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **jokabide zabarraren ondorio** dela. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten.

3. Larritasun ertaina

- **Sarritan**, gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **ez diete jaramon egiten haurraren edo nerabearen interakzio-beharrei eta -ahaleginei** (haurrarekiko edo nerabearekiko afektu-, zaintza- eta maitasun-adierazpenik ez egitea), eta **ez dute adierazten emoziorik edo emozio gutxi adierazten dute** haur edo nerabeekiko interakzioetan. Era berean, **oso ohikoa da eskura ez egotea** haurrari edo nerabeari laguntzeko, behar duenean edo gida edo orientabideak eskatzen dituenen. Hala ere, egoera hau **interakzio egokiko aldi edo uneekin txandakatzen da. ETA**
- **Familia-ingurunean** ez dago bestelako figurarik interakzio- eta afektu-beharrei arreta egokia emateko eta **defizit horiek konpentsatzeko. ETA**
- Haurra edo **nerabea kalte psikiko larria pairatzeko arriskuan** dago (ikusi definizioa) eta zentzuzko datuak daude arrisku hori gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **jokabide zabarraren ondorio** dela pentsatzeko. Haurrak edo nerabeak jokabide gatazkatsu ez-larriak adieraz ditzake; jokabide horiek arreta lortzeko estrategiak izan daitezke.

Estimulazioa

- ⇒ **Era horretako beharrekiko zabarkeriaren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen edo gurasoen jokabide zabarraren intentsitatea eta maiztasuna, (2) haurraren edo nerabearen adina, eta (3) haurraren edo nerabearen sumatzen diren ondorioen larritasuna.**
- ⇒ **Gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen jokabide zabarraren larritasuna ertaina bada (ikus kategoria horren lehen epigrafea), baina horren ondorioz haurrak edo nerabeak kalte psikiko larria pairatzen badu, larritasun handiko kalifikazioa emango zaio egoerari.**

1. Oso larritasun handia

- Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **ez dizkiote ematen, eskolatik kanpo**, gaitasun kognitiboak garatzeko edo bere estimulazio- eta ikaskuntza-beharrei erantzuteko **esperientzia aberasgarriak edo hezitzaileak. Haurrak edo nerabeak eboluzio-lorpen normalak lortzeko egiten dituen ahaleginak oztopatzen dituzte edo interes oso txikia adierazten dute** (adibidez: haurra ia denbora guztian sehaskan edukitzea, hizkuntzaren edo gaitasun fisikoen edo intelektuaren garapena ez sustatzea, adinerako egokiak diren jolas- edo ikasketa-tresnak ez ematea, ez aitoritzea haurrak edo nerabeak jolasteko edo aisiarako beharra duela, haren galderei ez erantzutea, estimulu berriak ez eskaintzea). **Normalean, nahiago dute haur edo nerabea bakarrik entretenitzea**, jostailuekin, jokoekin, telebistarekin edo antzekoekin. **Komunikazioa monosilabikoa da, edo oso mugatua edo zuzentzailea** (akatsak nabarmentzea), eta ez da eraikitzailea (arrazoitzea eta bide egokia erakustea). **ETA**
 - Egoera hori **etengabe, modu bizian eta argi ikusteko moduan** gertatzen da, guraso-figuren eta haurraren edo nerabearen arteko **harremanen ezaugarri nagusi bihurtuta. ETA**
 - **Familia-ingurunean** ez dago bestelako figurarik estimulazio-behar horiei arreta egokia emateko eta **defizit horiek konpentsatzeko. ETA**
 - **Sei urtetik gorako haurrak eta nerabeak:** Haurrak edo nerabeak **kalte psikiko larria** du eta zentzuzko datuak daude gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **jokabide zabarraren ondorio** dela pentsatzeko. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten.
- Sei urtetik beherako haurrak:** Larritasun oso handiko kalifikazioa emango zaio egoera horri, **haurrak kalte psikikoaren sintomak edo garapeneko atzerapen larriko sintomak izan edo ez.**

2. Larritasun handia

- **“Larritasun oso handia” kategorian deskribatutako inguruabarrak** gertatzen dira **sei urtetik gorako haur batengan edo nerabe batengan**, baina haurrak edo nerabeak **kalte psikikoaren sintomak** dituen arren, **ez dira larriak** (ikusi definizioa). Hala ere, sintoma horiek **ez dute hobera egiten; aitzitik, larritasun handia hartzen doaz**, eta zentzuzko datuak daude pentsatzeko gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **jokabide zabarraren ondorio** direla. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten. **EDO**

- **“Larritasun ertaina” kategorian deskribatutako inguruabarrak gertatzen dira, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen jokabideari dagokionez, eta familia-ingurunean defizit horiek konpentsatzen dituzten bestelako figurak ez egoteari dagokionez** (ikusi lehenengo bi epigrafeak). Egoera muturrekoa ez den arren, haurrak edo nerabeak **kalte psikiko larria** du (ikusi definizioa), eta zentzuzko datuak daude pentsatzeko gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **jokabide zabarraren ondorio** dela. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten.

3. Larritasun ertaina

- Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **ez dizkiote behar adina sendotasunez ematen, eskolatik kanpo**, gaitasun kognitiboak garatzeko edo bere estimulazio- eta ikaskuntza-beharrei erantzuteko **esperientzia aberasgarriak edo hezitzaileak. Ekimen gutxi adierazten dute haurrak edo nerabeak eboluzio-lorpen normalak izan ditzan**, baina **haren ekimen propioak onartzen dituzte**. Normalean bakarrik ikastea edo entretenitzea nahiago dute, jostailuekin, jokoekin edo telebistarekin. Telebistako edozein programa ikusten uzten diote, nahiz eta agian programa hori ikustea gaitzetsi ahoz. Garrantzi txikia ematen diete jolasari edo jarduera ludikoei; **oso gutxitan jolasten edo parte hartzen dute jarduera horietan haurrekin edo nerabearekin, baina horiek egiten uzten diote**. Nolabaiteko murrizketa dago berezkotasunaren gainean. Haurra edo nerabea gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen dutenen gutxieneko gidarekin garatzen uzten dute. **Komunikazioa mugatua da** eta, oro har, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen gogo-aldartearen mende dago. Ez dago arreta sendo eta nahikoa haurraren edo nerabearen estimulazio- eta ikaskuntza-beharrentzat. **ETA**
- Egoera hau **oso ohikoa da, baina interakzio egokiko uneekin txandakatzen da. ETA**
- **Familia-ingurunean** ez dago bestelako figurarik interakzio- eta afektu-beharrei arreta egokia emateko eta **defizit horiek konpentsatzeko. ETA**
- Haurra edo nerabea garapeneko **kalte psikiko larria eta garapeneko atzerapen larria pairatzeko arriskuan dago** (ikusi definizioa) eta zentzuzko datuak daude arrisku hori gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **jokabide zabarraren ondorio** dela pentsatzeko.

Arazo emozional larrietarako arreta espezifikoa

- ⇒ **Era horretako beharrekiko zabarkeriaren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen edo gurasoek arretarik eza argia erakustea haurrak edo nerabeak arazo emozional **larriak** izateagatik tratamendu psikologiko edo psikiatrikoa jasotzeko duen beharrari dagokionez, eta (2) arazo horien larritasuna.**
- ⇒ **Tipologia honetan ez dago larritasun ertaineko kalifikaziorik.**

1. Oso larritasun handia

- Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen uko egiten diote haurraren edo nerabearen **bizitza arriskuan jartzen duten** eta **nahitaezko edo berehalako tratamendua** behar duten **arazo emozional oso larrientzako** (adibidez: depresio larria, buruaz beste egiteko ahalegina) tratamendu psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzeari, edo ezikusia egiten diote arazoari, edo atzerapen larriarekin ekiten diote. **EDO** ez dituzte betetzen haurrari edo nerabeari tratamendua ematen dioten profesionalen jarraibideak, edo nabarmenki arduragabe jokatzten dute. Haurraren edo nerabearen arazoan jatorria familian jasotako tratua izan daiteke edo ez.

2. Larritasun handia

- Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen uko egiten diote, ez dira sartzen edo atzerapen larriarekin ekiten diote **nahitaezko tratamendua** behar duten **arazo emozional larrientzako** (ikusi kalte psikiko larriaren definizioa) tratamendu psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzeari, haurraren edo **nerabearen bizitza arriskuan jartzen ez duten** arren. **EDO** ez dituzte betetzen haurrari edo nerabeari tratamendua ematen dioten profesionalen jarraibideak, edo nabarmenki arduragabe jokatzten dute. Haurraren edo nerabearen arazoan jatorria familian jasotako tratua izan daiteke edo ez.

Arauk, mugak eta balio moral positiboen transmisioa³⁵

⇒ Era horretako beharrekiko zabarkeriaren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen arreta-ezaren maila haurraren edo nerabearen behar horiei dagokienez, eta (2) portaerako eta egokitzapen pertsonaleko, familiarreko eta/edo sozialeko arazoak haurraren edo nerabearen, edo arazo horiek etorkizun hurbilean agertzeko arriskua.

<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">Gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dira batere sartzen mugak jartzeko eta/edo haurraren edo nerabearen jokabidea behar bezala orientatzeko zereginen. Mugen eta arauen gabezia erabatekoa eta etengabea da. Ez dira transmititzen jokabide-arau eta balio moral positiboak. ETAHaurrak edo nerabeak jokabideko eta egokitzapen pertsonaleko, familiarreko eta/edo sozialeko arazo larriak ditu, eta egoera horren ondorio dira edo egoera horrek areagotzen ditu.
<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak oso gutxitan jartzen dituzte mugak eta arauak eta/edo oso gutxitan orientatzen dute behar bezala haurra edo nerabea, edo arauak eta mugak nabarmenki desegokiak eta kaltegarriak dira haurrarentzat edo nerabearentzat, murriztailegiak edo malguegiak direlako, eta hori, gainera, batzuetan koherentziarik gabe egiten delako. Ez dira transmititzen jokabide-arau eta balio moral positiboak. ETAHaurrak edo nerabeak jokabideko eta egokitzapen pertsonaleko, familiarreko eta/edo sozialeko arazo larriak ditu, eta egoera horren ondorio dira edo egoera horrek areagotzen ditu.
<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none">Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak oso gutxitan jartzen dituzte mugak eta arauak eta/edo oso gutxitan orientatzen dute behar bezala haurra edo nerabea, edo arauak eta mugak sarritan nabarmenki desegokiak dira haurrarentzat edo nerabearentzat, murriztailegiak edo malguegiak direlako, eta hori, gainera, batzuetan koherentziarik gabe egiten delako. ETAHaurrak edo nerabeak jokabideko edo egokitzapen pertsonaleko, familiarreko eta/edo sozialeko arazoak ditu, eta, balorazioaren arabera, egoera horren ondorioz larriagotu daitezke, edo uste da arazo horiek etorkizun hurbilean agertzeko probabilitate handia dagoela.

Arrisku arineko edo babesgabetasun/arrisku gabeko egoerak (behar psikikoentzako deskribapen generikoa)

<p>1. Arrisku arina</p> <ul style="list-style-type: none">Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez diete behar adina arreta ematen haurraren edo nerabearen behar psikiko batzuei (afektiboak, komunikaziokoak, estimulaziokoak, gida eta orientabideak, jokabidearen gaineko mugak, jokabide-arauen eta balio moralen transmisioa). Denbora dutenean izaten dituzte harremanak haurraren edo nerabearekin, baina oso sarritan ematen diete lehentasun handiagoa beren behar propioei, haurraren edo nerabearen beharrei baino. Gizartean onartutako jokabideak hartzen ditu barnean (adibidez: egunerokoan haurraren edo nerabearekin interakziorik eta komunikaziorik ez izatea, edo halako harremanak oso mugatuak izatea; hirugarren pertsonen esku sarriegi uztea zaintza), eta haurraren edo nerabearen kalte psikikoko edo garapen-atzerapeneko sintomak eragin ez dituzten arren, haren garapen egokirako gabezia kaltegarriak ekar ditzakete eta etorkizunean arazo emozional eta jokabideko arazo nabarmenak eragin ditzakete.Haurraren edo nerabearen intimitate-beharrekiko errespetu falta dakarten jokabideak (adibidez: sexu-gaietan desinhibizio gehiegi, haur koskortuekin edo nerabeekin bainatzen diren edo ohea partekatzen duten pertsona helduak, modu independentean egiteko aukera izanik), baina asmo sexualik gabe eta haurrak edo nerabeak mehatxu gisa edo desegoki gisa ikusi gabe.
<p>2. Arriskurik ez</p> <ul style="list-style-type: none">Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haurraren edo nerabearekin duten harremanean noizean behin elementu negatiboak egon daitezkeen arren eta behar psikikoekiko zabarkeriatzat kalifika daitezkeen jokabide batzuk egon daitezkeen arren, intentsitate gutxiokoa dira eta noizean behin soilik gertatzen dira. Behar psikikoen gaineko ezagutza izatea, haiek kontuan hartzea eta haiei arreta ematea dira guraso-figuren eta haurraren edo nerabearen arteko interakzioaren ezaugarriak.

³⁵ "Balio moral positiboen transmisioa", besteen eskubideekiko errespetuzko jarrerak sustatzea da.

SEXU-ABUSUA

Sexu-kontaktu edo -interakzio oro pertsona helduen (aita, ama, tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten ahaideak edo gertukoak) eta haur edo nerabearen artean, non pertsona helduak, haur edo nerabearengan botere- edo autoritate-posizioa duela baliatuz, adingabea erabiltzen duen norberaren, haur edo nerabearen, edo beste pertsona batzuen sexu-estimulaziorako³⁶

- ⇒ **Tipologia horrek haurraren edo nerabearen gurasoek, tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak, edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten ahaide edo gertukoek egindako sexu-abusua hartzen du barnean.** Aipatutakoez besteko pertsona batzuek egindako sexu-abusuen kasuan, kasuaren balorazioa egingo da eta, hala badagokio, “beste pertsona batzuek eragindako babesgabatasun-egoera larrien aurkako babesa” tipologian kalifikatuko da (ikusi *Segurtasun-beharrekiko zabarkeria*).
- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da)³⁷.
- ⇒ Tipologia horretan ez dago larritasun ertaineko edo arrisku arineko kalifikaziorik.

1. Oso larritasun handia

- **Abusu sadikoa, errituala edo indarkeriarekin egina.** Sexu-abusu sadikoa edo errituala eta/edo sexu-jardueran indarkeria fisikoa erabiltzea.
- **Sexu-abusua kontaktu fisikoarekin —penetrazioarekin—.** Sexu-abusua penetrazioarekin —anala edo baginala— edo aho-kontaktu fisikoa —zakilarekin, bulbarekin edo uzkiarekin—. Penetrazio-ahaleginak barnean hartzen dira.
- **Sexu-abusua kontaktu fisikoarekin —penetraziorik gabe—.** Sexu-abusua kontaktu fisikoarekin —adibidez: bularra edo genitalak ukitzea, haurra edo nerabea pertsona helduaren aurrean biluztera behartzea, haurra edo nerabea pertsona helduaren sexu-zonaldeak ukitu edo estimulatzera behartzea, pertsona heldua eta haurra edo nerabea aldi berean masturbatzea—, baina penetraziorik gabe. Sexu-abusu gisa kalifikatuak izateko, jokabide horien helburuak pertsona helduaren sexu-estimulazioa edo -gozamina izan behar du.
- **Haurra edo nerabea prostituziorako erabiltzea.** Haurrari edo nerabeari beste pertsona batzuekin sexu-harremanak izaten uzten zaio, edo horretara bultzatzen zaio edo behartzen zaio.
- **Haurra edo nerabea erabiltzea pornografia-jardueretarako.**

2. Larritasun handia

- Pertsona helduaren **exhibizionismoa** —adibidez: genitalak erakustea, masturbatzea— sexu-gozamina lortzeko, edo haurra edo nerabea sexualki estimulatzeko saiatzeko. Baliteke haurra edo nerabea parte hartzera behartu izana baina parte hartu ez izana.
- **Sexu-estimulu edo sexu-jarduera esplizituen eraginpean jartzea, haurraren edo nerabearen zuzeneko parte-hartzerik gabe.** Haurraren edo nerabearen iruzkin sexualki probokatzailak egin dira, sexu-gaiei buruz hitz egiten zaio helburu hezitzailek gabe, pornografia-materialak erakusten zaizkio edo sexu-jardueren eraginpean jartzetik ez zaio babesten. Ez da bestelako sexu-hurbilketarik izan.
- **Haurrari edo nerabeari behartu, bultzatu edo proposatu zaio sexu-jardueretan parte hartzera, baina ez dira gertatu.**
- **Beste sexu-jarduera batzuk** —adibidez, voyeurismoa—.
- Gero eta maizago agertzea helburu sexuarekin sexu-jokabide zalantzarriak, zeinak mehatxutzat edo desagokizat hartzen baitituzte haurrek edo nerabeek (adibidez: pertsonen helduen zuhurtzarik eza sexu-harremanak dituztenean, haur koskortuekin edo nerabeekin ohea partekatzen duten edo bainatzen diren pertsona helduak, modu independentean egiteko aukera eta lekua izanik).

3. Arriskurik ez

- Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dute harengan sexu-abusurik egiten arestian adierazitako moduetan, eta ez dute inork egitea uzten.

³⁶ Pertsonen trafikoa barnean sartzen da.

³⁷ Sexu-abusuaren susmoen balorazioa egiteko, lurralde historiko bakoitzeko eskuliburu teknikoetan ezarritako adierazleak kontuan hartu eta haietan jasotako prozedurak baliatuko dira.

TRATU TXAR PSIKIKOA

Haurrak edo nerabeak kalte psikiko larria pairatu du edo pairatzeko arriskua dauka, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ekintzen ondorioz. Zenbait kasutan —ikusi “Bikote barruko edo bizikidetza-unitateko kideen arteko indarkeriazko egoerekiko esposizioa”— bizikidetza-unitatea osatzen duten beste pertsona batzuen ekintzak ere sartzen dira

- ⇒ **Hau da kalte psikiko larria:** “Haur edo nerabeak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk egiaztatuta izatea: (a) nahaste psikopatologikoa, (b) antsietateko, depresioko, uzkurtsuneko sintoma klinikoak edo jokabide ukatzailea, jokabide erasotzaileak edo autosuntsigarriak, edo garapeneko atzerapenak, edo (c) garapeneko eta egokitzapen pertsonal eta sozialeko prozesua larriki eragozten duten eta berehalako tratamendu espezializatua behar duten bestelako arazo larriak”. Diagnosi-teknika objektiboak edota fidagarritasun- eta baliotasun-indize egokiak dituzten tresnak aplikatuz erabakiko da sintoma klinikorik ote dagoen (ikusi tresnaren lehen zatia, deskribapen eta irizpide zehatzago batzuen berri izateko).

A. TRATU TXAR EMOZIONALA

- ⇒ **Haurraren edo nerabearen egungo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.**
- ⇒ **Normalean, tipologia hori dagoela zehazteko, ez da gertakari isolatu bakar bat oinarritzat hartzen —eduki traumatiko handiko gertakaria edo egoera ez bada—; haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen edo gurasoen jokabide negatiboan edo interakzio suntsikorren joera errepikakorra edo etengabea behar da, horrek eragiten baitu haurraren edo nerabearen kalte psikiko larria edo halako kaltea pairatzeko arriskua.**

JOKABIDE-MOTAK	<p>Baztertzea</p> <p>Hitzezko edo hitzik gabeko ekintzak, haurra edo nerabea baztertzen edo degradatzen dutenak. Honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arbuizatzea, iraintzea, degradatzea, eta aurkako tratamenduko edo tratamendu baztertzailerako beste forma ez-fisiko batzuk. • Haurra edo nerabea lotsaraztea eta/edo barregarri uztea emozio normalak adierazteagatik, hala nola afektua, mina edo tristura. • Beti haur edo nerabe jakin bat hautatzea kritikatu eta zigortzeko, etxeko zeregin gehienak egiteko, edo sari gutxiago emateko. • Irain publikoa. • Haurrari edo nerabeari egozte familiako kide baten suizidioaren, heriotzaren, arazo fisiko edo mental larrien, bikotearen arteko indarkeriaren edo antzekoen errua.
	<p>Ikaratzea</p> <p>Haurra edo nerabea mehatxatzea muturreko zigor batekin edo zehaztugabeko zigor maltzur batekin edo abandonatzearekin, haurraren edo nerabearen beldur handia eragiteko asmoz. Edo haurra edo nerabea edo maite dituen pertsonak edo objektuak egoera arriskutsuetan edo beldur handia ematen dioten egoeretan jartzea edo jartzearekin mehatxatzea. Honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurreanezinezko egoeretan, egoera kaotikoetan edo beldur handia eragiten dioten egoeretan jartzea edo jartzearekin mehatxatzea³⁸. • Haurraren edo nerabearen itxaropen zorrotzak edo ez-errealistak ezartzea, itxaropen horiek lortzen ez badira zerbait galtzeko, kaltetzeko edo arriskuan jartzeko mehatxuarekin. • Haurrak edo nerabeak maite dituen pertsona edo objektuen aurkako indarkeria-mehatxuak edo -ekintzak egitea.

³⁸ Haurrari edo nerabeari eraso fisiko batekin mehatxatzen zaionean, “Eraso fisikoko mehatxuak” eskalan kalifikatuko da.

<p>Isolatzea</p> <p>Etxean edo etxetik kanpo berdinekin edo beste pertsona heldu batzuekin interakzio- eta komunikazio-beharrak asetzeko aukerak ukatzea haurrari edo nerabeari. Honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Haurra edo nerabea konfinatzea edo muga zentzugabeak jartzea bere ingurunean mugitzeko askatasunaren gainean. • Muga edo murrizketa zentzugabeak jartzea komunitatean berdinekiko edo beste pertsona heldu batzuekiko harremanetan.
<p>Autonomia murriztea</p> <p>Haurra edo nerabea hertsatzea edo murriztea bere adinari dagokion autonomia- eta partaidetza-maila lortzea eragotziz, eboluzioaren aldetik desegokiak diren jokabideak ahalbidetuta edo sustatuta. Honako hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Haurraren edo nerabearen gaineko gehiegizko inplikazioa, intrusibitatea eta/edo menderatzea, bere sentimenduak, iritziak edo desioak adierazteko aukera ez emanez edo harentzako “mikromundu” bat sortuz. Harreman sinbiotikoak edo fusionalak ere barnean hartzen ditu. • Haurra edo nerabea infantilizatzea edo parentalizatzea³⁹. • Haurra edo nerabea erabiltzea pertsona helduen bete gabeko desioak gauzatzeko.
<p>Gehiegi eskatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Haurraren edo nerabearen gehiegizko presioa egitea, lortu beharreko lorpenei (akademikoak, fisikoak, jokabidekoak, hartu beharreko erantzukizunak eta abar) edo bere gain hartu beharreko erantzukizunei dagokienez, hain zuzen ere lorpen horiek argi eta garbi haurraren edo nerabearen posibilitate eta gaitasunen gainetik daudenean —haren adina eta ezaugarriak kontuan hartuta— edo, lor daitezkeen arren, estres gehiegi eta/edo murrizketa larriak eragiten dizkiotelako dagokion eboluzio-fasearen berezko beste behar edo jardura batzuei dagokienez. Zigorra ezar dakiok haurrari edo nerabeari, edo gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen afektua ken dakiok, horien itxaropenak ez betetzeagatik. • Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak etxeko zereginak egitea edo beste haur batzuk edo pertsona gaixoak edo ezinduek zaintza agintzen diote, ohituraz. Horren ondorioz, ez da eskolara joaten eta/edo ia ez dauka denbora jardura ludikoak egiteko eta atsedean hartzeko. Baliteke zeregin horiek eskola-ordutegitik kanpo edo jaiegunetan esleitzea, eta, ondorioz, denbora librea eta berdinekin harremanak izateko denbora mugatzea edo erabat murriztea.
<p>Etorkizun hurbilari dagokionez aurreikusteko ezintasuna, ezegonkortasuna edota segurtasunik eza transmititzea</p> <p>Jokabidearen edo ahozko mezuen bitartez, segurtasun falta handia transmititzen zaio haurrari edo nerabeari haren etorkizun hurbileko alderdiei buruz (adibidez: haren erreferentziako figura helduen egonkortasuna, familiaren batasuna; izatezko zaintzan dauden haurren edo nerabeen kasuan, berriz, zaintzaileengandik urrunduko dituztelako mehatxuak jasotzen dituzte aita eta/edo amaren aldetik). Segurtasun falta oinarrituna edo funtsik gabea izan daiteke. Meadow-en sindromea kasuak barnean sartzen dira (haurrari edo nerabeari etengabe transmititzen zaio zuzenean edo zeharka bere osasuna arrisku larrian dagoela).</p>

- ⇒ **Tratu txar emozionalaren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen edo gurasoen tratu txarreko jokabidearen intentsitatea eta maiztasuna, (2) haurraren edo nerabearen adina, eta (3) haurraren edo nerabearen ikus daitezkeen ondorioen larritasuna.**
- ⇒ **Gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen jokabidearen intentsitate-maila ertaina bada (ikusitako kategoria horren lehen epigrafea), baina horren ondorioz haurrak edo nerabeak kalte psikiko larria pairatzen badu, larritasuna maila handikoa dela kalifikatuko da.**

³⁹ **Parentalizatzea:** Haurrari edo nerabeari guraso-rola esleitzea. Rolak trukutzen dira, eta gurasoen eta seme-alaben arteko azpisistemen arteko muga argiak falta dira. Haurrak edo nerabeak pertsona heldu baten rola hartzen du bere gain, eta bere beharrak eta eboluzio-zereginak sakrifikatzen ditu, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen behar emozionalak eta laguntzakoak asetzeko.

LARRITASUNA	<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none"> Aitak, amak edo haur edo nerabearen tutoretza edo zaintza duten pertsonak haurraren edo nerabearen aurrean eduki traumatiko handiko tratu txar emozionaleko muturreko ekintza bat egin dute (adibidez, suizidio-saioa, haur edo nerabeak maite duen animalia bat torturatzea edo akabatzea, haur edo nerabea zigortzeko). Haur edo nerabeak beldur edo antsietate sakona pairatu ditu eta trauma-ondoko estresaren sintomak izan ditzake. Tratu txar emozionaleko jokabideak etengabe, intentsitate handiz eta argi ikusteko moduan gertatzen dira, gutxienez guraso-figurretako baten eta haurraren edo nerabearen arteko harremanen ezaugarria da. Ez dago haurraren edo nerabearen behar emozionalekiko arretako edo interakzio egokiko unerik edo une horiek oso noizbehinkakoak dira. ETA Familia-ingurunean ez dago bestelako figurarik interakzio- eta afektu-beharrei arreta egokia emateko eta defizit horiek konpentsatzeko. ETA Sei urtetik gorako haurrak eta nerabeak: Haurrak edo nerabeak kalte psikiko larria pairatzen du (ikus definizioa) eta zentzuzko datuak daude gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ekintzen ondorio dela pentsatzeko. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten. Sei urtetik beherako haurrak: Larritasun oso handiko kategorian kalifikatuko da, haurrak kalte psikikoaren sintomak edo garapeneko atzerapen larriko sintomak izan edo ez.
	<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none"> Bigarren idatz-zatian “larritasun oso handia” kategorian deskribatutako inguruabarrak gertatzen dira sei urtetik gorako haur batengan edo nerabe batengan, baina haurrak edo nerabeak kalte psikikoaren sintomak dituen arren, ez dira larriak (ikus definizioa). Hala ere, sintoma horiek ez dute hobera egiten, aitzitik, larritasun handiago baterantz bilakatzen dira eta zentzuzko datuak daude gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ekintzen ondorio direla pentsatzeko. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten. EDO “Larritasun ertaina” kategorian deskribatutako inguruabarrak gertatzen dira, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen jokabideari dagokionez, eta familia-ingurunean defizit horiek konpentsatzen dituzten bestelako figurak ez egoteari dagokionez (ikus lehenengo bi paragrafoak). Egoera muturrekoa ez den arren, haurrak edo nerabeak kalte psikiko larria pairatzen du (ikus definizioa), eta zentzuzko datuak daude gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ekintzen ondorio dela pentsatzeko. Larritasunaren baloraziorako ez da kontuan hartzen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haur edo nerabearentzako arreta psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzen duten edo arreta hori jasotzea onartzen duten.
	<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none"> Tratu txar emozionaleko jokabideak behin eta berriz gertatzen dira, baina interakzio egokiko aldi edo uneekin txandakatzen dira. ETA Familia-ingurunean ez dago interakzio- eta afektu-beharrei arreta egokia ematen dien eta defizit horiek konpentsatzen dituen bestelako figurarik. ETA Haurra edo nerabea kalte psikiko larria pairatzeko arriskuan dago (ikus definizioa), eta zentzuzko datuak daude arrisku hori gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ekintzen ondorio dela pentsatzeko. Haurrak edo nerabeak jokabide gatazkatsuak izan ditzake, baina ez dira larriak. Egoera zuzentzen ez bada, larritasun handiago har dezakete jokabide horiek.
	<p>4. Arrisku arina</p> <ul style="list-style-type: none"> Haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen edo gurasoen tratu txar emozionaleko jokabideak behin eta berriz gertatzen dira, baina interakzio egokiko aldi edo uneekin txandakatzen dira. Hala ere, familia-ingurunean badaude haurraren edo nerabearen behar emozionalei arreta egokia ematen dieten eta gabezia horiek konpentsatzen dituzten beste figura batzuk. Haurrak edo nerabeak ez ditu kalte psikikoaren sintomak adierazten.
	<p>5. Arriskurik ez</p> <ul style="list-style-type: none"> Haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonetik edo gurasoetik harremanean noizean behin elementu afektibo negatiboak egon daitezkeen arren eta tratu txar emozional gisa kalifika daitezkeen jokabide batzuk egon daitezkeen arren, intentsitate gutxiak dira eta noizbehinkakoak. Behar afektiboan gaineko ezagutza izatea, haiek kontuan hartzea eta haiei arreta ematea dira guraso-figura eta haurraren edo nerabearen arteko interakzioaren ezaugarriak.

B. HAUR EDO NERABEA ERABILTZEA GURASO-FIGUREN ARTEKO GATAZKETAN ZEIN GURASO-FIGUREN ETA HAUR EDO NERABEARENTZAT ESANGURATSUAK DIREN ETA BIZIKIDETZA-NUKLEOKO PARTE DIREN BESTE SENIDE BATZUEN ARTEKO GATAZKETAN

⇒ **Definizioa:**

- ⇒ Bi guraso-figurek aktiboki erabiltzen dute haurra edo nerabea, batak besteari kalte egiteko eta/edo haurra edo nerabea beste guraso-figurengandik behin betiko urruntzeko. Barnean dira haurra edo nerabea guraso-figura batek soilik erabiltzen dueneko kasuak ere; beste gurasoak, berriz, bere interesak defendatu nahi ditu, eta abian jarritako mekanismo edo bitarteko judizialek ez dute arazoa konpontzen, edo, areago oraindik, arazoak okerrera egiten du. Egoera horrek haurraren edo nerabearen gaitasun eta jarrerak nahasten ditu, guraso-figura batekin edo biekin harreman egokia eta positiboa ezartzeari edo mantentzeari dagokionez.
- ⇒ Guraso-figuretako batek aurreko paragrafoan deskribatutako portaera du, ez beste guraso-figura batekiko, baizik eta haurrarentzat edo nerabearentzat esanguratsua den eta bizikidetzan-nukleoko kide den beste senide batekiko⁴⁰.
- ⇒ Ebaluatzen den haurraren edo nerabearen egungo egoerarekin ondoan egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.
- ⇒ Honako bi faktore hauek hartzen dira kontuan tipologia horren larritasuna zehazteko: (1) guraso-figuren portaeraren intentsitatea, eta (2) zer-nolako eragina duen portaera horrek haurraren edo nerabearen eta guraso-figurekiko harremanaren kalitatean.

<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gutxienez guraso-figuretako batek etengabe edo biziki erabiltzen du haurra edo nerabea, beste guraso-figurari edo haur edo nerabearentzat esanguratsua den eta bizikidetzan-nukleoko parte den beste senide bati kalterik eragiteko edo harengandik zerbait lortzeko. Horren ondorioz, haurrak edo nerabeak kalte psikiko larri sintomak ditu (ikus definitiona), edo guraso-figura batenganako edo bizikidetzan-unitateko senitarteko esanguratsua batenganako erabateko eta bidegabeko muturreko ezinikusia erakusten du, eta badaude arazo horiek egoera horren ondorio direla pentsatzeko moduko zentzuzko datuak.
<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Oso larritasun handia” kategoriako egoera berdina, baina kasu honetan haurraren edo nerabearen kalte psikikoen sintomak ez dira larriak, baina, hobetu beharrean, okerrera egiten ari dira, eta badaude arazo horiek egoera horren ondorio direla pentsatzeko moduko zentzuzko datuak. Egoera hori dela medio, zailtasun handiak daude atxikimendu-lotura positiboak ezartzeko edo mantentzeko haurraren edo nerabearen eta guraso-figuretako baten edo bizikidetzan-nukleoko kide den senide esanguratsuren baten artean.
<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Oso larritasun handia” kategoriako egoera berdina, baina kasu honetan, haurrak ez du kalte psikikoen sintomarik, ez eta asaldurarik ere guraso-figurekiko edo bizikidetzan-nukleoko kide den senide esanguratsua batekiko atxikimendu-loturan. Nolanahi ere, egoera zuzendu ezean, sintoma horiek etorkizun hurbilean agertzeko probabilitatea handia dela uste da.
<p>4. Arrisku arina</p> <ul style="list-style-type: none"> • Batzuetan, aitak, amak edo tutoretza edo zaintzaren ardura dutenek haurra edo nerabea erabiltzen dute batak besteari kalte egiteko edo bestearengandik edo bizikidetzan-nukleoko senide esanguratsuren batengandik zerbait lortzeko, baina jarrera hori ez da harremanaren ezaugarri nagusia. Oro har, harreman egokia dute haurraren edo nerabearekin. Haurra edo nerabea leialtasun-gatazka baten erdian egon daiteke batzuetan, baina ez du kalte psikikoen sintomarik.
<p>5. Arriskurik ez</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gatazka egon litekeen arren, aitak, amak edo tutoretzaren edo zaintzaren ardura dutenek ez dute haurra edo nerabea erabiltzen batak besteari kalterik eragiteko edo bestearengandik edo bizikidetzan-nukleoko senide esanguratsuren batengandik zerbait lortzeko.

⁴⁰ Eskala hori, batik bat, bizikidetzan-nukleoa bizi diren senide esanguratsuei aplikatzen zaie, baina haurraren edo nerabearekin bizi ez diren senideei ere aplikatu dakieke, haur edo nerabearekin afektu-lotura estua duten figura esanguratsua badira.

C. BIKOTE BARRUKO EDO BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEEN ARTEKO INDARKERIAZKO EGOEREN ERAGINPEAN EGOTEA

- ⇒ Kasu honetan **soilik** joko da tipologia mota hori dagoela: **guraso-figuretako inor neurriak hartzeko gai ez denean, ez egoera hori desagerrarazi edo kontrolatzeko, ez haurra edo nerabea indarkeriazko egoera horretatik urrunduz babesteko.**
- ⇒ Ebaluatzen den haurraren edo nerabearen egungo egoerarekin ondoen egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.
- ⇒ Tipologia horren larritasun-maila zehazteko honako hauek hartuko dira kontuan: (1) guraso-figuren edo bizikidetza-unitateko kideen artean gertatzen den indarkeria fisikoa edo hitzeko indarkeriaren intentsitatea eta maiztasuna eta (2) haur edo nerabearengan egoera horiek sorrarazi duten edo sorrarazi dezaketen kalte fisiko eta psikikoaren larritasun-maila.
- ⇒ Genero-indarkeria eta etxeko indarkeria sartzen dira kalifikazio horretan.

<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Haur edo nerabea gutxienez guraso-figuren edo bizikidetza-unitatearen kideen arteko eraso fisiko oso larri baten lekukoa izan da (erasoan, norbait ospitaleratzea eragin duen lesioak izan dira, hilgarriak diren armekin mehatxuak gertatu dira, eta abar). • Guraso-figuren edo bizikidetza-unitateko kideen artean indarkeria fisiko oso larriko gertaerak izan dira (erasoan, norbait ospitaleratzea eragin duen lesioak izan dira, hilgarriak diren armekin mehatxuak gertatu dira, eta abar) eta nahiz eta haur edo nerabea ez den egoera horien lekuko izan eta ez dituen argi eta garbi sumatu, balioetsi da arrisku handia dagoela egoera horiek berriro gertatzeko eta haur edo nerabearen bizia edo osotasun fisikoa arrisku handian jartzeko. • Azken sei hilabeteetan guraso-figuren edo bizikidetza-unitateko kideen artean indarkeria fisikoko egoerak eta hitzeko indarkeriazko egoerak (esplizituak eta intentsitate handikoak) gertatu dira. Haur edo nerabea egoera horietan inplikatu da edo inplikatu dute eta, horren ondorioz, kalte fisiko oso larria⁴¹ pairatu du.
<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azken sei hilabeteetan guraso-figuren edo bizikidetza-unitateko kideen artean indarkeria fisikoko egoerak eta hitzeko indarkeriazko egoerak (esplizituak eta intentsitate handikoak) gertatu dira behin eta berriz. Haur edo nerabea gertakari horien lekukoa izan da edo sumatu egin ditu ETA: <ul style="list-style-type: none"> ○ Kalte fisiko larria⁴² pairatu du egoera horren ondorioz, eta/edo ○ Kalte psikiko larriaren sintomak ditu (ikus definizioa), eta kalte horiek egoera horren ondorioz direla pentsatzeko moduko arrazoizko datuak daude.
<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Larritasun handia” kategoriako egoeraren berdina baina haur edo nerabeak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Egoera horren ondorioz ez du kalte fisiko larri edo oso larririk pairatu, eta ○ egoera horrekin lotutako kalte psikikoaren sintomak izan ditzake, eta sintoma horiek larriak ez diren arren, egoera txarra bideratu ezean etorkizun hurbilean sintoma larriak izateko probabilitate handia dagoela balioesten da. • Azken sei hilabeteetan guraso-figuren edo bizikidetza-unitateko kideen artean maiz gertatu dira hitzeko indarkeriazko gertakariak baina indarkeria fisikorik ez da izan. Haur edo nerabeak gertakari horietako batzuen lekuko izan da edo argi eta garbi sumatu ditu. Egoera horri loturiko kalte psikikoaren sintomak ditu, eta, nahiz eta larriak ez diren, egoera txarra zuzentzen ez bada, larritasun handiagoko sintomak ager daitezke. Hala eta guztiz ere, guraso-figurek eta bizikidetza-unitateko kideek interakzio egokiko aldiak edo uneak izaten dituzte haur edo nerabearekin.
<p>4. Arrisku arina</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azken sei hilabeteetan guraso-figuren edo bizikidetza-unitateko kideen artean hitzeko indarkeriazko gertakari batzuk izan dira, baina indarkeria fisikorik ez da izan. Haur edo nerabea gertakari horien lekuko izan da, baina gertakarian inplikaturiko pertsonak ahalegindu dira egoera horiek haur edo nerabearen aurrean gerta ez daitezen. Guraso-figurek eta bizikidetza-unitatearen kideek orokorrean interakzio egokia izaten dute haur edo nerabearekin. Haur edo nerabeak ez dauka egoera horrekin lotutako kalte psikikoaren sintomarik, baina hitzeko indarkeriazko gertakarien aurrean ondoezaren sintomak ager ditzake.
<p>5. Arriskurik ez</p> <ul style="list-style-type: none"> • Guraso-figurek edo bizikidetza-unitateko kideek hitzeko indarkeria zein indarkeria fisikoa erabili gabe konpontzen dituzte beren gatazkak. Hitzeko indarkeriako gertakari bakanak izan litezkeen arren, haurra edo nerabea ez da horien lekuko.

⁴¹ Kalte fisiko oso larria “Tratu txar fisikoak” eskalan jasotako irizpideen arabera kalifikatuko da.

⁴² Kalte fisiko larria “Tratu txar fisikoak” eskalan jasotako irizpideen arabera kalifikatuko da.

D. ERASO FISIKOAREN MEHATXUAK

- ⇒ Ebaluatzen den haurraren edo nerabearen egungo egoerarekin ondoen egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.
- ⇒ Tipologia horren larritasuna honako hauen arabera zehazten da: (1) haurraren edo nerabearen aurkako mehatxuaren kaltearen larritasuna, (2) mehatxuek haurraren edo nerabearen sortzen duten beldurra, eta (3) mehatxuak gauzatzeko arriskua.

<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Kalte fisiko oso larria egiteko mehatxu zuzena, baina benetan kalterik egin gabe: Haurra edo nerabea, gutxienez behin, egoera oso arrisksuan jarri da (adibidez: leiho baten ertzean, irakiten dagoen uraren gainean), kalte benetan larria egitearekin mehatxatuz. Edo hiltzearekin mehatxatu zaio, horretarako agian armak erabiliz (labanak, eskopetak eta abar). Aldez aurretik pentsatuta egin dira mehatxuak, edo gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak kontrola erabat galdu duten egoera batean. Ez da kalte nahiz lesio fisikorik eragin, baina egoera horrek beldur handia sortu du haurraren edo nerabearen. Mehatxu horiek errepika daitezkeela edo gauzatu daitezkeela.
<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Kalte fisiko larria egiteko hitzeko mehatxu zuzena, baina benetan kalterik egin gabe: Zenbait alditan tratu txarren edo kalteen hitzeko mehatxu zuzenak eta espezifikoak egin zaizkio haurrari edo nerabeari. Mehatxuek barnean hartzen dituzte, gauzatu balira, kalte fisiko handia eragingo luketen ekintzak (adibidez: tratu txar fisiko larriekin mehatxatzea, ura edo janaria denbora-tarte luzeegian kentzearekin mehatxatzea). Aldez aurretik pentsatuta egin dira mehatxuak, edo gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak kontrola erabat galdu duten egoera batean. Ez da kalte nahiz lesio fisikorik eragin, baina egoera horrek beldur handia sortu du haurraren edo nerabearen. Mehatxuak aurrera eramateko ahaleginik egin ez den arren, gauzatu daitezkeela balioetsi da.
<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none">• Hitzeko mehatxu inplizitua: Ez zaizkio tratu txarreko mehatxu zuzenak eta espezifikoak egin haurrari edo nerabeari, baina gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak adierazten dute gainezka egiten ari direla sentitzen dutela, haurra edo nerabearen ondorioz, hari kalte egiteko edo istripuren bat eragiteko beldurra dutela eta abar (esaterako, estres handiaren eraginpean dauden pertsona helduak edo oso haur txikiak hazte-lanengatik gainezka egiten ari direnak). Zeharkako mehatxu horiek pentsarazten dute haurra edo nerabea kalte fisiko handia pairatzeko edo zabarkeria pairatzeko arriskuan dagoela. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak laguntza eska dezakete (edo ez) beren mehatxuak gauzatzeko saihesteko.
<p>4. Arrisku arina</p> <ul style="list-style-type: none">• Hitzeko mehatxu inplizitua, gauzatzeko arriskua dagoenik balioetsi gabe: Ez zaizkio tratu txarrean edo kalte egitearen mehatxu zuzenak eta espezifikoak egin haurrari edo nerabeari, edo noizbait egin zaizkio, baina gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak gaindituak sentitzen dira, eta haurra edo nerabea kaltetzeko, istripu bat eragiteko eta bestelako beldurrak dituzte. Mehatxu horiek gurasoen frustrazioaren adierazpenak direla balioetsi da, eta ez dago ageriko arrazoirik gauzatu direla pentsatzeko.
<p>5. Arriskurik ez</p> <ul style="list-style-type: none">• Ez zaizkio tratu txarreko edo kaltetzeko hitzeko mehatxuak edo mehatxu fisikoak egin haurrari edo nerabeari. Gorputz-zigor arinen mehatxuak (ikus definizioa tratu txar fisikoaren tipologian) ez dira "kalte fisikoko mehatxu" gisa hartu behar.

ABANDONUA

⇒ Honako egoera hauek barnean hartzen ditu:

- Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak bakarrik uzten dute nahita, itzultzeko asmorik gabe.
 - Hirugarren pertsonekin adostu dute haurraren edo nerabearen zaintza beren gain har dezaten, eta adostutako denbora igaro ondoren, ez dira itzultzen haren zaintzaz arduratzeko, eta hirugarren pertsona horiek jada ezin dute denbora gehiagoz haren zaintza beren gain izan.
 - Sarritan, beste pertsona batzuen ardurapean uzten dute haurra edo nerabea (harentzat ezezagunak direnak edo gutxi ezagutzen dituenak), haren arreta bermatzeko plan egonkor bat edo erantzukizuna beste batengan uzteko aldi baterako aurreikuspena adostu edo eduki gabe⁴³.
 - Haurraren edo nerabearen arreta beren gain hartzeari uko egiten diote egoitza-zentro batetik irten ondoren.
- ⇒ “Abandonuaren” eta “artatze-zabarkeriaren” arteko aldea honako honetan oinarritzen da: aitak, amak edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza duten pertsonak haur edo nerabeaz arduratzera itzultzeko asmorik baduten edo ez (esplizitua edo ikus daitekeena). “Abandonua” gertatzen den kasuetan, itzultzeko asmorik ez dago, epe laburrera behintzat.
- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Tipologia horren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak zenbat denboraz eta zenbateko maiztasunez uzten duten haurraren edo nerabearen zaintzaren ardura hirugarren pertsonen eskuetan, (2) hori zer egoeratan egiten den (noren esku uzten den, eta haurra edo nerabea horretarako prestatzen den), eta (3) gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak asmorik ote duten haurraren edo nerabearen zaintza berriz ere beren gain hartzeko.

1. Oso larritasun handia

- Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haurra edo nerabea **kalean edo ospitalean abandonatu dute, eta desagertu egin dira.**
- Egiaztatu da gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haurra edo nerabea **bakarrik utzi dutela, eta ez dutela itzultzeko asmorik, ezta haurra edo nerabea etxera itzultzen uzteko asmoa ere.**
- Haurra edo nerabea etxe batetik bestera bizi da. Gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **orain dela urtebete edo luzaroago ez dira bizi haurrarekin edo nerabearekin batera,**; ez dirudi egoera aldi baterakoa denik. **Ez dute harremana** haurrarekin edo nerabearekin, edo **ia ez dago harremanik.** Haurraren edo nerabearen zaintza hirugarren pertsonen **esku uzten dute erabat.** Haren etorkizunari buruzko plan argirik ez dago.
- Haurra edo nerabea **egoitza-zentro** batean utzi dute. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **haren zaintza berriz ere beren gain hartzeari uko egin diote.**

2. Larritasun handia

Ustekabeko aldaketa asko egoten dira haurraren edo nerabearen zaintza beren gain hartzen duten pertsona helduen inguruan, haurraren edo nerabearen **inpaktu emozional negatibo larria** izanik:

- **Hirutan baino gehiagotan aldatu dira azken urtebetean** haurraren edo nerabearen zaintzaz arduratu diren pertsona helduak. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **bat-batean** bestelako **pertsona desegokien** zaintzapean edo, arreta egokia eman dioten arren, **ezagutzen ez dituen edo oso gutxi ezagutzen dituen** pertsonen zaintzapean utzi dute **denbora-tarte luzeetan.**
- Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **bat-batean** utzi dute, horretarako prestatu gabe. **Azken urtean,** haurra edo nerabea gutxienez **hiru familia-nukleotan** bizi izan da, **familiakoak nahiz hurbilekoak ez diren pertsonen** zaintzapean. Hala ere, gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **beti itzuli dira haren zaintza beren gain hartzeko.** Haurra edo nerabea ez dute behin betiko abandonatu.

Egoera horrek **estres handiko egoera bat edo aztoramen emozional handia eragin du haurraren edo nerabearen.**

3. Larritasun ertaina

Ustekabeko aldaketa asko haurraren edo nerabearen zaintza beren gain hartzen duten pertsona helduen inguruan, haurraren edo nerabearen **inpaktu emozional negatibo** larririk izan gabe:

- **Aurreko atalean deskribatutako egoerak** gertatu dira, baina haurrak edo nerabeak garapen egokia dauka, eta **ez ditu erakusten** horren ondoriozko **estresa edo nahaste emozionala izateko** sintomak.

⁴³ Haurraren edo nerabearen eguneroko zaintza pertsona desegokien edo behar adina arduratsu ez diren pertsonen esku utzea “Segurtasun-beharrekiko zabarkeria” - artzea tipologian jaso eta kalifikatzen da.

4. Arrisku arina

Zortzi urtetik beherako haurren kasuan, ustekabeko aldaketa batzuk haren zaintza beren gain hartzen duten pertsona helduengan:

- Azken urtean, zortzi urtetik beherako haur bat **egunerokoan zaintzen ez duen eta familiakoa nahiz gertukoa ez den pertsona batek** zaindu behar izan du **bi aldiz gutxienez eta hilabetetik gorako denboraldi batean**, baina gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **ez dute bat-batean abandonatu**. Bertan ez daudenean, **harremanetan** daude haurrarekin. **Beti itzuli dira** zaintza berriz ere beren gain hartzeko, **edo epe laburrean egingo dutela espero da**.

5. Arriskurik ez

- Aurreko atalean deskribatutako zirkunstantziak gertatzen dira, baina zortzi urtetik gorako haurra edo nerabea da.
 - Egiatatu da guraso-figurek zaintza egonkorra eman diotela haurrari edo nerabeari.
 - Guraso-figuretako bat ez da familia-etxebizitzan egon modu egonkorrean, edo kanpoan dago denboraldi luze batean (lan-arrazoiengatik, zentroren batean barneratua egoteagatik eta abar). Baliteke guraso-figurak legez bananduta egotea, eta, beraz, zaintza ez duen gurasoak bisitak soilik egiten dizkio haurrari edo nerabeari. Egoera horrek egokitzapenak eragin ditu familiako kideen bizitzan.
-

GURASOEN GAITASUNIK EZA HAURRAREN EDO NERABEAREN PORTAERA KONTROLATZEKO

- ⇒ Oro har, tipologia horrek nerabeak edo adin horren inguruko haurrak hartzen ditu barnean.
- ⇒ Haurraren edo nerabearen egungo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.
- ⇒ Tipologia horren larritasuna honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurraren edo nerabearen egokitzapen pertsonaleko, familiarreko, sozialeko edo eskola-egokitzapeneko arloan kanporatutako arazoen presentzia eta larritasuna, eta (2) gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen gaitasuna arazo horiek kontrolatu eta konpontzeko.
- ⇒ Gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen gaitasuna portaera gatazkatsuk dituzten haur edo nerabeen jokabidea kontrolatzeko, norberaren borondatearen edo guraso-gaitasunen mende egoteaz gain, haurraren edo nerabearen arazoan ezaugarrien eta intentsitatearen mende ere badago. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haur eta nerabeen jokabidea kontrolatu nahi duten arren eta guraso-gaitasun egokiak dituzten arren, haur edo nerabeek kanporatutako arazo larriak badituzte eta haien jokabidea kontrolatzea ezinezkoa bada (ikus deskribapena larritasun oso handiko eta larritasun handiko kategorietan), larritasun handiko edo oso handiko kategorian kalifikatuko dira egoera horiek. Zerbitzu soziosanitarioen inplikazioa ezinbestekoa da kasu horietan, batik bat haurrak edo nerabeak nahaste psikopatologikoak edo mendekotasun larriak baditu (dela diagnostikatuta, dela horren susmoa egonda).

1. Oso larritasun handia

- **Arazoak familian:** **Gatazka larria** dago guraso-figura eta haurraren edo nerabearen artean. Familia-harremanak oso gatazkatsuk dira, **eraso fisikoak mehatxuak** izan dira familiako kideen artean, eta agian gertatu ere gertatu dira, **intentsitate handiko hitzeko eraso gogorak daude etengabe** guraso-figura eta haurraren edo nerabearen artean, **haurraren edo nerabearen jokabidea oso gatazkatsua da** etxebizitzan. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **ezin dute egoera kontrolatu**; gain egin dutela sentitzen dute. Baliteke haurra edo nerabea baztertea eta arazo guztien errua hari egotea. Baliteke haurrak edo nerabeak edozein motatako esku-hartzeri uko egitea eta etxetik irten nahi izatea. **Bizikidetzaren bidera ezina edo jasanezina da. Gutxienez une honetan, ez dago aukerarik laguntzako esku-hartze bat garatzeko eta haurra edo nerabea etxean mantentzeko, hark edo/eta haren aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak uko egin diotelako edo lankidetzarako prest ez daudelako.**
- **Arazoak familian kanpo:** Haurraren edo nerabearen jokabidea **oso gatazkatsua eta desagokitu** da maila pertsonalean, sozialean eta eskola-mailan. Honako hauek egon daitezke: delituzko jokabideak, beste haur, nerabe edo pertsona helduen aurkako erasoak, drogen edo alkoholaren kontsumoa, arriskuko portaerak teknologia berrien erabilera (sare sozialak, gailu elektronikoak eta abar) eta/edo jokabide sexual arriskutsuak. Gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **ez dira arduratzen beren erantzukizun** haurraren edo nerabearen gaineko kontrolari dagokionez, edo horretarako **erabateko ezgaitasuna** adierazten dute; baliteke haurraren edo nerabearen arazoan garrantzia gutxitzea, edo kanpoko arazoiei egotea. **Ez gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak, ez haurrak edo nerabeak, ez dute kanpoko laguntza bilatzen edo onartzen, edo, laguntza hori baliatu badute, ez da inolako emaitzarik lortu.**
- Agian, etxetik **ihes eginda egon dira luzaroan**, egoera horiekin lotuta.

2. Larritasun handia

- **Arazoak familian:** **LARRITASUN HANDIKO LEHEN EPIGRAFEAREN GAUZA BERA:** Gatazka larria dago guraso-figura eta haurraren edo nerabearen artean. Familia-harremanak oso gatazkatsuk dira; **eraso fisikoak mehatxuak** izan dira familiako kideen artean, eta agian erasoak gertatu ere gertatu da; **intentsitate handiko hitzeko eraso gogorak daude etengabe**, eta **haurraren edo nerabearen jokabidea oso gatazkatsua da** etxebizitzan. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **ezin dute egoera kontrolatu**; gain egin dutela sentitzen dute. Bizikidetzaren oso zaila da. Hala ere, bai gurasoek, bai haurrak edo nerabeak, **laguntza profesionala onartu dute beren zailtasunak konpontzeko eta haurra edo nerabea familia-etxebizitzatik irtetea saihesteko.**
- **Arazoak familian kanpo:** **LARRITASUN OSO HANDIKO LEHEN EPIGRAFEAREN GAUZA BERA:** Haurraren edo nerabearen jokabidea **oso gatazkatsua eta desagokitu** da maila pertsonalean, sozialean eta eskola-mailan. Honako hauek egon daitezke: delituzko jokabideak, beste haur, nerabe edo pertsona helduen aurkako erasoak, drogen edo alkoholaren kontsumoa, teknologia berrien erabilera gaineko arriskuko portaerak (sare sozialak, gailu elektronikoak eta abar) eta/edo jokabide sexual arriskutsuak. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **ezin dute egoera kontrolatu**; gain egin dutela sentitzen dute. Hala ere, bai gurasoek, bai haurrak edo nerabeak, **laguntza profesionala onartu dute beren zailtasunak konpontzeko eta haurra edo nerabea familia-etxebizitzatik irtetea saihesteko.**
- Agian, etxetik **ihes eginda egon dira luzaroan**, egoera horiekin lotuta.

3. Larritasun ertaina

- **Arazoak familian:** Gatazka larria dago guraso-figuren eta haurraren edo nerabearen artean. Familia-harremanak oso gatazkatsuak dira, **eztabaidak eta hitzezko erasoak sarritan gertatzen dira, baina ez da eraso fisiko larririk izan**. Baliteke familiako kideen artean **eraso-mehatxuren** bat gertatu izana. **Haurraren edo nerabearen jokabidea oso gatazkatsua da** etxean. Baliteke arazoak konpontzeko ahalegin batzuk egin izana. **Bizikidetzeta zaila da**, baina guraso-figuren eta haurraren edo nerabearen arteko **harremanean alderdi positibo** batzuk badaude. **Gatazka larriagotzeko arriskua** dago.
- **Arazoak familiarik kanpo:** Haurrak edo nerabeak **egokitzapen** pertsonaleko, sozialeko eta/edo eskola-**egokitzapeneko arazo nabarmenak** ditu. Honako hauek gerta daitezke: jokabideko zailtasunak eta ikastetxeko bertaratze-faltak, arauak betetzeari uko egite orokorra, delituzko jokabide txikiak, drogen eta/edo alkoholaren kontsumoan hasatea, harremanak ingurune marjinaletako edo delitu-inguruetako pertsonekin; arrisku-jokabideak izaten hasatea teknologia berriak erabiltzean (sare sozialak, gailu elektronikoak eta abar). Hala ere, **zenbait arlotan, funtzionamendu egokia du**. **Lotura afektibo positiboa** dago gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen eta haurraren edo nerabearen artean. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **ezin dituzte kontrolatu** haurraren edo nerabearen arazoak. Haurraren edo nerabearen **arazoak larriagotzeko arriskua** dago.
- Agian, etxetik **ihesaldiren** bat gertatu da, egoera horiekin lotuta.

4. Arrisku arina

- **Arazoak familian:** Gatazka batzuk daude guraso-figuren eta haurraren edo nerabearen artean, baina horien arteko **harremaneko alderdi garrantzitsu** batzuk **positiboak** dira. Gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **arazo horiek kudeatzen saiatzen dira**, baina **askotan ez dituzte estrategia egokiak erabiltzen edo ez dakite nola egin behar den**. Arazoak konpontzeko ahalegin batzuk egin dira, baina agian ez dute arrakasta izan. Haurra edo nerabea familia-jarduera batzuetatik baztertu dezakete aldi baterako, edo pribilegio batzuk kendu. **Hitzezko indarkeriako gertakariak** gerta daitezke familiako kideen artean, baina **ez indarkeria fisikorik**. **Gatazka larriagotzeko arriskua** dago.
- **Arazoak familiarik kanpo:** Haurrak edo nerabeak **egokitzapen** pertsonaleko, sozialeko eta/edo eskola-egokitzapeneko **arazo batzuk** ditu, **nerabezaroan edo nerabezaro aurrean oso ohikoak edo tipikoak direnak**. Gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak arazo horiei aurre egiten saiatzen dira, baina **sarritan, erabiltzen dituzten kontroleko edo diziplinako estrategiak ez dira egokiak**. **Hitzezko indarkeriako gertakariak** gerta daitezke familiako kideen artean, baina **ez indarkeria fisikorik**. Haurraren edo nerabearen **arazoak larriagotzeko arriskua** dago.

5. Arriskurik ez

- Haurrak edo nerabeak egokitzapeneko arazoak edo aurka egiteko jokabideak ditu etxe barruan eta kanpoan, bere eboluzio-fasean tipikoak edo ohikoak direnak. Horrek eztabaidak edo gatazkak eragin ditzake familian, baina egoera hori ez da familia-harremanen ezaugarri nagusia. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak, oro har, estrategia egokiak erabiltzen dituzte haurraren edo nerabearen jokabide desegokiak kontrolatu eta kudeatzeko. Oro har, zentzuzko akordioak egitea lortzen dute. Ez dago indarkeria fisikoa gatazketan; hitzezko indarkeria egon daiteke, baina noizbehinkakoa da, eta, gero, gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak eta haurra edo nerabea gai dira horri buruz hitz egiteko eta gatazka konpontzeko. Harreman afektibo positiboa dago beren artean. Oro har, haurrak edo nerabeak bere gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ezarritako arauak errespetatzen ditu, nahiz eta hasieran aurkako iritzia eman dezakeen.

A. JAIO AURREKO TRATU TXARRA

- ⇒ **Definizioa:** Amak edo aitak haurdunaldian nahita izandako portaera edo zabarkeriazko portaera da, jaioberriak gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo sentsorial larriak izatea eragiten duena.
- ⇒ “Jaio aurreko tratu txarra” kategoriak oso larritasun handiko kalifikazioa izango du beti.
- ⇒ “Jaio aurreko tratu txarra” egon den haurra jaio ondoren zehaztuko da, eta gurasoek haurdunaldian izandako portaera eta haurrak dituen gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo sentsorialak lotzen dituen balorazio medikoa izan beharko da.
- ⇒ “Jaio aurreko tratu txarra” eta “Jaio aurreko arriskua” bereizi behar dira. “Jaio aurreko tratu txarra” babesgabetasun-egoera bat da, eta haurra jaio ondoren zehaztu behar da horrelakorik ote den edo ez. “Jaio aurreko arriskua”, berriz, haurdunaldiari dagokio. “Jaio aurreko arriskua” badago, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuek prebentzio-jarduna egin behar dute, eta edozein kasutan, haurraren egoeraren ebaluazio osoa egingo dute, umea jaio ondoren. 1/1996 Lege Organikoaren 17.9 artikuluan (uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan) arreta berezia ematen zaio «jaio aurreko arriskuari», eta, horregatik, sakonago garatzen da tresna honen III. zatian⁴⁴.

I. Oso larritasun handia

- Jaiotzean, haurrak alkohol-sindrome fetala, abstinentzia-sindromea edo kalte neurologikoak izatea, edo droga-testak egitean emaitza positiboak izatea, amak haurdunaldian droga eta/edo alkohol gehiegi kontsumitzeagatik⁴⁵.
- Jaiotzean, haurrak gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo sentsorial larriak izatea. Gaixotasun edo anomalia horiek mehatxua dira haurraren biziarentzat; ezintasun edo narriadura iraunkor eta larria eragiten diote, edo ezintasun edo narriadura hori pairatzeko arriskuan jartzen dute. **Badago gaixotasun eta anomalia horiek aitak edo amak haurdunaldian izandako portaerarekin lotzen dituen balorazio medikoa.**

⁴⁴ “Jaio aurreko arrisku-egoeratzat hartuko da haurdun dagoen emakumea fisikoki ez zaintzea, edo mendekotasun-sortzaileak izan daitezkeen substantzia gehiegi kontsumitzea, bai eta emakumeak gauzatutako edo hirugarren batek gauzatu eta berak onartutako ekintzaren bat ere, baldin eta jaioberriaren ohiko garapenean kalte egiterik badu edo harengan gaixotasunak edo anomalia fisikoak, mentalak edo zentzumenezkoak eragin ahal baditu” (1/1996 Lege Organikoaren 17.9 artikulua —uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan—).

⁴⁵ Batzuetan, egun batzuek igaro behar dute sindromea edo kalteak agerikoak izateko.

B. TRATU DESEGOKIA⁴⁶

- JANARIA EDO URA APROPOS KENTZEA -

Apropos edo nahita ez zaio janaria edo ura eman haurrari edo nerabeari egun batean gutxienez (denbora gutxiagoz haur txikien kasuan), edo janari-kantitate oso txikia eta/edo nutrizioaren aldetik janari desegokia eman zaio egun batzuez⁴⁷.

- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa, funtsean, honako hauen arabera ezartzen da: (1) egoerak haurraren edo nerabearen izan duen inpaktua, eta (2) gosea eta egarria sentitzea.

1. Oso larritasun handia <ul style="list-style-type: none">Janaria edo ura nahita kentzearen ondorioz, haurrak edo nerabeak desnutrizio edo deshidratazio larria dauka (adibidez: pisu asko galtzea, malnutrizioa, deshidratazioa, anemia), eta arrazoi medikoengatik ospitaleratu egin behar izan dute.
2. Larritasun handia <ul style="list-style-type: none">Janaria edo ura nahita kendu izanaren ondorioz, haurrak edo nerabeak desnutrizioko edo deshidratazioko sintoma fisiko batzuk ditu. Haurraren edo nerabearen egoera dela eta, arreta medikoa eta errehabilitazioko dieta bat behar du. Ez dago arrazoi medikoengatik ospitaleratu beharrik (baina aldi baterako ospitaleratu daiteke haurra edo nerabea, bere segurtasunerako).Ohituraz edo sarritan, janaria edo ura kenduta zigortzen dute haurra edo nerabea. Desnutrizioko edo deshidratazioko sintoma fisikoak ez dauden arren, gose edo egarri handia izan dezake haurrak edo nerabeak.
3. Larritasun ertaina <ul style="list-style-type: none">Haurra edo nerabea zigortzeko, janaria edo ura kendu diote nahita. Gabetze horrek gainditu egiten ditu kulturalki onartutako mugak. Hau behin edo behin baino gehiagotan gertatu da, baina ez da ohikoa edo ez da sarritan gertatzen. Haurrak edo nerabeak ez ditu inoiz izan desnutrizioko edo deshidratazioko sintoma klinikoak, baina gose edo egarri handia pairatu du agian.
4. Arrisku arina <ul style="list-style-type: none">Diziplina-estrategia gisa erabiltzen da janaria nahita edo apropos kentzea. Erabilitako zigor-mota kulturalki onartutako mugen barruan dagoen arren (adibidez: haurra edo nerabea afaldu gabe ohera bidaltzea), sarriegi edo ohitura handiegiz erabiltzen da. Ura ez da inoiz ukatzen.
5. Arriskurik ez <ul style="list-style-type: none">Noiz edo noiz janaria eman gabe utzi zaio nahita edo apropos, baina kulturalki onartutako mugen barruan (adibidez: haurra edo nerabea afaldu gabe ohera bidaltzea). Ura ez da inoiz ukatzen.Haurrari edo nerabeari ez zaio inoiz nahita edo apropos kentzen janaria eta ura, horiek daudenean. Hori ez da inoiz zigor gisa erabiltzen. Janari-mota jakin batzuen gaineko murrizketak egon daitezke (adibidez, gozokiak, postreak); murrizketa hori diziplina-neurri bat izan daiteke, edo osasuneko, ekonomiako edo beste arlo batzuetako arrazoiengatik izan daiteke.

⁴⁶ Era horretako egoerak balioesteko kontuan hartu beharreko alderdiak: (1) haurraren edo nerabearen adina, eta (2) egoeraren iraupena

⁴⁷ Barnean dira premia fisikoekin lotutako antzeko beste gabetze batzuk ere (esate baterako, atsedena).

- KONFINAMENDUA EDO MURRIZKETA FISIKOA -

- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurraren edo nerabearen mugimenduen murrizketa fisikorako edo konfinamendurako erabilitako metodoak eta iraupena, eta (2) egoera horrek haurraren edo nerabearen eragin duen edo eragin dezakeen kalte fisiko eta/edo emozionala.

<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurra edo nerabea gela batean konfinatu dute egun batzuetan edo gehiagotan; leku txiki edo ilun batean konfinatu dute (adibidez: komuna, armairua), iraupena dena delakoa izanda ere; ez zaio kalera irteten uzten astebetetz edo gehiago; zentzumenezko murrizketa eragin zaio edo beldurra ematen dion egoera batean jarri dute; mugimenduak murriztu dizkiote, krokaduren, loturen, kateen eta abarren bitartez, egun batez edo gehiago. Hori behin gutxienez gertatu da. Haurrak edo nerabeak kalte fisiko bat pairatu du (adibidez: loturengatik erredurak edo zauriak) egoera horren ondorioz, edo tentsio edo ezinegon emozional larria adierazten du, edo era horretako kalte pairatzeko probabilitatea dago.• Konfinamenduaren edo murrizketa fisikoaren iraupena laburra da, baina zenbait alditan gertatu da, eta pertsona helduak ez daude beti haur edo nerabearengandik gertu begiratzeko edo, behar badu, laguntza emateko.• Konfinamenduaren edo murrizketa fisikoaren iraupena laburra da, baina sei urtetik beherako haur bati edo, urte gehiago izanik, muga fisikoak, intelektualak edo osasun mentaleko nahasteak dituen haur bati ezarri zaio.
<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Konfinamendua eta/edo murrizketa modu onartezinean erabiltzen da kultura-ohituren ikuspegitik, eta ohiturazko edo sarritan erabiltzen den diziplina-neurri bat da. Adibidez: haurra edo nerabea bere logelan konfinatu dute egun osoan eta gau osoan, edo haren mugikortasuna fisikoki murriztu dute (loturekin, krokadurekin eta abar), baina ez ordu gutxi batzuk baino gehiago.
<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none">• Konfinamendua eta/edo murrizketa modu onartezinean erabiltzen da kultura-ohituren ikuspegitik (adibidez: haurra edo nerabea bere logelan konfinatu dute egun osoan eta gau osoan, edo haren mugikortasuna fisikoki murriztu dute loturekin, krokadurekin eta abarrekin, baina ez ordu gutxi batzuk baino gehiago). Estrategia horien erabilera ez da ohikoa edo oso ohikoa, baina zenbait alditan gertatu da.
<p>4. Arrisku arina</p> <ul style="list-style-type: none">• Etxean bertan konfinatzen da haurra edo nerabea, diziplina neurri modura. Beti kulturalki onartutako parametroen barruan egiten den arren (adibidez: bere logelatik irten gabe mantentzea zentzuzko denbora batez bere adinari edo ezaugarriei dagokienez, edo egun osoan lagunekin jolastera edo haiekin egotera irteten ez uztea, asteko arratsalde batzuetan edo asteburu osoan), eta mugikortasuna lotuta edo helduta inoiz murrizten ez zaion arren, ohiturazko neurri gisa edo sarriegi erabiltzen da. Ez da aplikatzen gizarte-jokabide oso arriskutsua duten nerabeak barnean hartzen dituzten egoeretan.
<p>5. Arriskurik ez</p> <ul style="list-style-type: none">• Kasu batzuetan etxean bertan konfinatzea erabiltzen da haurra edo nerabea diziplinatzeko, baina kulturalki onartutako parametroen barruan egiten da (adibidez: bere logelatik irten gabe mantentzea zentzuzko denbora batez bere adinari edo ezaugarriei dagokienez, edo egun osoan lagunekin jolastera edo egotera irteten ez uztea, asteko arratsalde guztietan edo asteburu osoan), betiere mugikortasuna lotuta edo helduta inoiz murriztu gabe. Ez da inoiz arrisku fisiko edo emozionaleko egoeran jartzen.• Aurreko egoerako neurria ohituraz edo sarritan aplikatzen zaio arrisku handiko gizarte-jokabidea duen nerabe bati.• Haurra edo nerabea ez da inoiz nahita itxita, lotuta edo konfinatuta uzten zigor-modu gisa.

- ETXETIK BIDALTZEA EDO ETXEAN SARTZEN EZ UZTEA —

- ⇒ Ebaluatzen den haurren edo nerabearen egungo egoerarekin ondoen egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa, funtsean, honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurrak edo nerabeak zer adin eta gaitasun duten, (2) gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen zein neurritan ziurtatu duten haurrak edo nerabeak joateko leku segurua bat izatea, eta (3) nolako arriskua eragin duen egoera horrek haurren edo nerabearen egoera fisiko eta/edo emozionalean.

<p>1. Oso larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Hamabi urtetik beherako haur bati —edo helduagoa, baina muga fisiko edo intelektual nabarmenak dituena— behin gutxienez ukatu zaio etxean sartzea, edo etxetik bidali dute nora joan izan gabe; haurrak ezezagun bati laguntza eskatu behar izan dio; agian, eguraldi txarrarekin egon behar izan du kalean zenbait orduz. Etxean sartzea ukatu izanaren edo etxetik bidali izanaren ondorioz, haurrak edo nerabeak istripu edo gaixotasun bat pairatu du agian, edo ezbehar larri bat (adibidez: eraso fisiko edo sexuala jasan du, edo lapurreta egin diote), edo hori gertatzeko arriskuan egon da argi eta garbi. Egoera horrek tentsio edo ezinegon emozional larria eragin dio.
<p>2. Larritasun handia</p> <ul style="list-style-type: none">• Zenbait alditan etxean sartzea ukatu zaio hamabi urtetik gorako nerabe bati (13 urte edo hortik gora), edo etxetik bidali dute, nora joan izan gabe. Baliteke etxetik alde egin izana, eta gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen berriz ere onartzeari uko egitea. Egoera horren ondorioz, haurrak edo nerabeak, agian, arreta medikoa behar izan duen istripu edo gaixotasun bat pairatu du; eraso fisiko edo sexual baten biktima izan da, edo delituzko ekintzetan nahasi da. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ez zuten jakin nerabea zer arrisku-egoeratan jartzen zuten ongi balioesten.
<p>3. Larritasun ertaina</p> <ul style="list-style-type: none">• Behin, etxean sartzea ukatu zaio nerabe bati (13 urte edo hortik gora), edo etxetik bidali dute, nora joan izan gabe. Baliteke etxetik alde egin izana, eta gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen berriz ere onartzeari uko egitea. Baliteke polizia edo gizarte-zerbitzuetara jo izana laguntza eskatzeko. Egoera horren ondorioz, haurrak edo nerabeak, agian, arreta medikoa behar izan duen istripu edo gaixotasun bat pairatu du; eraso fisiko edo sexual baten biktima izan da, edo delituzko ekintzetan nahasi da. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen ez zuten jakin ongi balioesten nerabea zer arrisku-egoeratan jartzen zuten.
<p>4. Arrisku arina</p> <ul style="list-style-type: none">• Gutxienez behin, etxean sartzea ukatu zaio nerabe bati (13 urte edo hortik gora), edo etxetik bidali dute, nora joan izan gabe. Baliteke etxetik alde egin izana, eta gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen berriz ere onartzeari uko egitea. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen bazekiten joateko lekuren bat zuela (ahaide, lagun, bizilagun baten etxea) eta nerabea bertara joateko gai zela. Gaua etxetik kanpo igaro badu, leku segurua batean egon da.
<p>5. Arriskurik ez</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurrari edo nerabeari ez zaio inoiz ukatu etxean sartzea, eta ez dute inoiz etxetik bidali. Hori ez da inoiz erabiltzen diziplina-estrategia edo zigor-estrategia gisa.

C. GALBIDERATZEA

- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa, funtsean, honako hauen arabera ezartzen da: (1) zer-nolako larritasuna duen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen jokabide antisozialak, (2) zein neurritan onartzen edo sustatzen duten haurra edo nerabea jokabide horien mende jartzea edo horietan parte hartzea, eta (3) zer inpaktu izan duen edo izan dezakeen egoera horrek haurraren edo nerabearen gizarte-egokitzapenean.

1. Oso larritasun handia

- **Delinkuentziara indutitzea:** Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **jokabide antisozialeko eta desbideratuko ereduak sustatu, indartu edo onartzen dituzte** (bereziki agresibitatearen, delituzko jokabideen, sexualitatearen eta drogen arloan), haurraren edo nerabearen garapen sozial eta gizarteratze normala eragozten dutenak. **Horren ondorioz**, haurrak edo nerabeak **gizarte-egokitzapeneko arazo larriak** ditu edo era horretako **arazoak garatzeko arrisku larriko** egoera argian dago. Era berean, barnean hartzen dira haurra edo nerabea **delituzko ekintzak gauzatzeko erabiltzen den** egoerak (adibidez: drogak garraiatzea, ebasketak egitea), daukan adina eta portaeran ikus daitezkeen ondorioak dena delakoak izanda ere.
- **Guraso-eredu asozial larriak:**
 - Haurra edo nerabea bizi den etxean **bizitza-eredu desegokia** dago bere garapen normalerako, **delituzko jokabide larriekin** (bereziki beste pertsona batzuegan kalteak eragiten dituztenak), droga-trafikoarekin, eta oso droga suntsitzailen kontsumoarekin lotutako eredu antisozialak izateagatik. **Era horretako egoera bat dagoela zehaztu ahal izateko:**
 - a) gutxienez arestian adierazitako egoeretak batek behin eta berriz eta/edo etengabe agertu behar du, haurraren edo nerabearen zaintzan erantzukizunak beren gain hartzen dituzten pertsona heldu guztiak eraginpean hartuta,
 - b) horren presentzia argi eta garbi ikusi behar da,
 - c) eredu desegokiak haurrak edo nerabeak eguneroko elkarreraginean argi eta garbi ikusteko modukoa izan behar du, eta
 - d) haurrak edo nerabeak ereduarekiko zaugarritasuneko behar adina baldintza bildu behar ditu: behar adinako gaitasun kognitiboa, eta arrazoimen morala garatzen.
 - Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen onartu, aktiboki sustatu eta erraztu egiten dute haurrak edo nerabeak bere adinarentzako gehiegizko alkohol-kantitateak behin eta berriz kontsumitzea edo drogak edo bestelako gai toxikoak kontsumitzea, familia-etxebizitzan zein kanpoan. Onespen edo tolerantzia hori dagoela joko da jokabide horiek arintzeko behar diren ahaleginak egin ez badira; esaterako, aholkularitza eskatzea, edo tratamenduan behar adinako lankidetzak ez erakustea, jokabideen berri izan denean.**Horren ondorioz**, haurrak edo nerabeak **gizarte-egokitzapeneko arazo larriak** ditu, edo era horretako **arazoak garatzeko arrisku larriko** egoera argian dago.
- **Indarkeriara indutitzen duten edo beste pertsona batzuekiko mendekotasuna dakarten beste egoera batzuk:** Beren portaera eta/edo jarreraren bitartez, aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen honako hauek sustatzen dituzte haur edo nerabearengan: beste pertsona batzuekiko gorroto- eta mespretxu-sentimenduak, indarkeriazko jarrera eta jokabideak, eta beste pertsona batzueganako mendekotasuna, beren sexua, erlijioa, jatorria, sexu-orientazioa, ezaugarri fisikoak edo antzeko arazoak direla eta. **Era horretako egoera bat dagoela zehaztu ahal izateko:**
 - a) egoera horrek behin eta berriz gertatu behar du,
 - b) haurrak edo nerabeak argi eta garbi ikusteko modukoa izan behar du, eta
 - c) haurrak edo nerabeak ereduarekiko zaugarritasuneko behar adina baldintza bildu behar ditu: behar adinako gaitasun kognitiboa, eta arrazoimen morala garatzen.**Horren ondorioz**, haurrak edo nerabeak **oso portaera gatazkatsuk eta desegokituak** ditu: **indarkeria, gorrotoa edo mendekotasuna** beste pertsona batzuekiko, familiaren etxean edo etxetik kanpo. Ez dago aukerarik familian zuzentzeko esku-hartze bat garatzeko, haur edo nerabearen eta/edo haren aitaren, amaren edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak aurka daudelako edo lankidetzarako prest ez daudelako.

2. Larritasun handia

- **Guraso-eredu asozialak:** Haurra edo nerabea bizi den etxean **bizitza-eredu desegokia** dago bere garapen normalerako, **delitu arinen inguruko jokabideekin** (adibidez: indarkeriarik gabeko ebasketak) lotutako jokabide antisozialak edukitzeagatik. **Era horretako egoera bat dagoela zehaztu ahal izateko:**
 - a) gutxienez arestian adierazitako egoeretak batek behin eta berriz eta/edo etengabe agertu behar du, haurraren edo nerabearen zaintzan erantzukizunak beren gain hartzen dituzten pertsona heldu guztiak eraginpean hartuta,
 - b) horren presentzia argi eta garbi ikusi behar da,
 - c) eredu desegoki horrek haurrak edo nerabeak eguneroko interakzioan argi eta garbi ikusteko modukoa izan behar du, eta
 - d) haurrak edo nerabeak ereduarekiko zaugarritasuneko behar adina baldintza bildu behar ditu: behar adinako gaitasun kognitiboa, eta arrazoimen morala garatzen.**Horren ondorioz**, haurrak edo nerabeak **gizarte-egokitzapeneko arazoak** ditu edo era horretako arazoak garatzeko **arrisku larriko egoera argian** dago.
- **Indarkeriara indutitzen duten edo beste pertsona batzuekiko mendekotasuna dakarten beste egoera batzuk:** OSO LARRITASUN HANDIARI BURUZKO EPIGRAFEAREN BERDINA, baina haur edo nerabeak eta haren aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen beren arazoak konpontzeko laguntza profesionala onartzen dute.

3. Larritasun ertaina

- **Guraso-eredu desegokiak:**

- Haurrarekin edo nerabearekin bizi diren eta haren zaintza-erantzukizunak dituzten **persona helduetako bat edo batzuk** eredu desegokia dira haur edo nerabearentzat, **gizartearen aurkako jokabideak edo jokabide desbideratuak (larritasun-maila handiagokoak edo txikiagokoak)** dituztelako, edo haur edo nerabearengan sustatzen dituztelako gorroto- eta mespretxu-sentimenduak, indarkeriazko jarrera eta jokabideak, eta beste pertsona batzueganako mendekotasuna, beren sexua, erlijioa, jatorria, sexu-orientazioa, ezaugarri fisikoak edo antzeko arazoak direla eta. Hala ere, **haurrak edo nerabeak ez du egoera hori modu argian sumatzen** eguneroko interakzioan, **eta/edo** orain arte baditu **eredu positiboak** diren erreferentziako figura helduak familia-ingurunean, eta badirudi haiek eredu heldu desegokiak efektu negatibo potentziala **indargabetzen** dutela. Haurra edo nerabea **gizarte-egokitzapeneko arazoak izaten hasi da, edo horrelako arazorik ez badu ere**, etorkizunean gara ditzake.
- Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak **jarrera permisiboa** dute edo erakusten dute haurraren edo nerabearen aurrean **alkoholaren kontsumo erregularrari edo noizbehinkako gehiegizko kontsumoari** dagokionez, edo **gizartean gaitasun suntsitzaille “oso txikiko” droga gisa hartutako drogen** kontsumoari dagokionez, baina **ez diote** haurrari edo nerabeari gai horiek eskuratzeko **aukera errazten**.

4. Arrisku arina

- Haurrarekin edo nerabearekin bizi ohi diren eta haren gaineko zaintza-erantzukizunak dituzten **persona helduetako baten batek delitu txikiko jokabideak** izan ditu (adibidez: indarkeriarik gabeko ebasketak), **noizbehinkako alkohol- eta/edo droga-kontsumo gehiegizkoak** egin ditu, edo **beste pertsona batzuen aurkako gorroto-, mespretxu-, indarkeria- edo menderatze-adierazpenak egin ditu, haien sexua, erlijioa, jatorria, sexu-orientazioa, ezaugarri fisikoak edo antzeko arazoak direla eta**, eta, haurrak edo nerabeak horien berri izan badezake ere, baditu **eredu positibo** gisa jarduten duten erreferentziako figura helduak familia-ingurunean.

5. Arriskurik ez

- Haurrarekin edo nerabearekin bizi diren eta haren zaintzako erantzukizunak dituzten pertsona helduek ez dituzte delituzko jokabideak edo jokabide desbideratuak adierazten, eta behar bezala kontrolatzen dituzte haurrak edo nerabeak izan ditzakeen era horretako jokabide hasiberriak. Gizarte-egokitzapeneko eta gizarte-jokabideko eredu egokiak dira.

D. ESKEKOTASUNA

*Leku publikoetan dirua edo baliabide materialak eskuratzea*⁴⁸

- ⇒ Haurraren edo nerabearen egungo egoerara gehien egokitzen den larritasun-maila kalifikatuko da.
- ⇒ Larritasun-mailaren kalifikazioa, funtsean, honako hauen arabera ezartzen da: (1) haurrak edo nerabeak eskekotasuna zer baldintzetan eta zenbateko maiztasunez gauzatzen duen, (2) gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak mehatxuak edo hertsapenak egin dituzten ala ez haurra edo nerabea eskean aritu dadin, eta (3) egoera horrek osasun fisikoan eta ikastetxerako asistentzian duen edo izan dezakeen eragina.

1. Oso larritasun handia <ul style="list-style-type: none">• Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haurra edo nerabea behartzen dute eskean aritzera. Baliteke eraso izana, edo agian erasoekin mehatxatzen dute, diru-kopuru jakin bat etxera ekartzea lortzen ez badu. Haurra edo nerabea eskean ibiltzeko uzten dute, bakarrik edo taldean, beste haur edo nerabe batzuekin. Baliteke lapurtzera iristea, bere gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak eskatzen dioten diru-kopurua lortzeko. Ez da eskolara joaten edo huts egin ohi du askotan, eskean aritzeko, edo eskola-ordutegitik kanpo edo jaiegunetan aritzen da eskean.
2. Larritasun handia <ul style="list-style-type: none">• Gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak sarritan aritzen dira eskean haurrarekin edo nerabearekin, diru gehiago lortzeko edo hura zaintzeko inor dutelako. Eskean aritzen diren tokiko baldintza klimatikoak edo osasunekoak txarrak dira batzuetan, eta haurra edo nerabea gaixotasun bat pairatzeko arriskuan jartzen da. Egoera hori haurra edo nerabea gaixo egonik ere gertatu da agian. Haurra edo nerabea ez da eskolara joaten edo huts egin ohi du arrazoi horregatik, edo baliteke eskean aritzea eskolatik kanpoko ordutegian edo jaiegunetan soilik. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak gizarte-zerbitzuen laguntza ekonomikoak edo bestelako laguntza materialak jasotzen dituzte, baina eskean aritzeari ez diote utzi; era horretako jokabideari eusten diote, eta gizarte-zerbitzuek horren berri izan ez dezaten saiatzeko dira (adibidez: beste udalerrri batera joanda).
3. Larritasun ertaina <ul style="list-style-type: none">• Gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak sarritan aritzen dira eskean haurrarekin edo nerabearekin, etekin ekonomiko handiagoa lortzeko edo zainduko duen inor ez dutelako. Eskean aritzen diren tokiko baldintza klimatikoak edo osasunekoak batzuetan txarrak dira, eta haurra edo nerabea gaixotasun bat pairatzeko arriskuan jartzen da. Baliteke haurra edo nerabea eskolara ez joatea edo huts egin ohi izatea arrazoi horregatik, edo baliteke haurrarekin edo nerabearekin eskean aritzea eskolatik kanpoko ordutegian edo jaiegunetan soilik. Eskekotasunarekin lortutako etekin ekonomikoak funtsezko diru-sarrera dira familia mantentzeko.
4. Arrisku arina <ul style="list-style-type: none">• Noiz edo noiz, gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak eskean aritu dira eta haurra edo nerabea eraman dute beraiekin, hura zaintzeko inor ez zutelako, baina inoiz ez haurra edo nerabea gaixo egonik edo osasun-baldintza txarretan egonik. Edo noizbait eskean aritu dire harekin, familia-zailtasun larriko uneetan, baina ez da ohiko jokabidea.
5. Arriskurik ez <ul style="list-style-type: none">• Gurasoak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dira inoiz eskean aritu haurrarekin edo nerabearekin.

⁴⁸ Klean, establezimendu publikoetan edo etxebizitza pribatueta dirua eskatuz egin daiteke eskekotasuna. Baina barnean hartzen ditu, halaber, "ezkutuko eskekotasuneko" egoerak, non gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haurra edo nerabea bidaltzen duten elikagaiak edo objektuak erostera edo zerbitzu jakin batzuk eskuratzea, horretarako nahikoa ez dela badakiten diru-kopurua emanez, edo balio gutxiko objektuak emanez (adibidez: paperezko mukizapiak, zuhaitz-adarrak, postalak), erosten dituen pertsonaren borondatea eskatuta sal ditzaten.

E. LAN-ESPLOTAZIOA

Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak etengabe agintzen dizkiete honako ezaugarri hauek dituzten lanak (etxeko antolamenduarekin lotutako zereginak ez dira barnean hartzen): (a) ohiko lanen mugak gainditzen dituztenak, (b) pertsona helduek egin behar lituzketenak, (c) argi eta garbi haurraren edo nerabearen gizarte- eta/edo eskola-arloko jarduerak eta beharrak oztopatzen dituztenak, eta (d) funtsean, gurasoentzako edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonentzako edo familia-egiturarentzako etekin ekonomikoa edo antzeko etekina lortzeko helburuarekin esleitzen zaizkionak.

- ⇒ Larritasun-maila jakin batean kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Larritasun-maila baten kalifikazioa, funtsean, honako hauen arabera ezartzen da: (1) gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak mehatxuak edo hertsapenak egin dituzten ala ez, haurrak edo nerabeak etekin ekonomikoak edo gauzako etekinak ekarriko dizkien jarduera bat egin dezan, (2) haurrak edo nerabeak zein maiztasunekin egin behar duen lana eta lanaren iraupena, eta (3) egoera horrek zer inpaktu duen haurraren edo nerabearen prestakuntza-jardueretan, jarduera ludikoetan eta jarduera sozialetan edo haren atsedeen-beharretan.

1. Oso larritasun handia <ul style="list-style-type: none">• Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak lan gogorregiak egitera eta/edo bere adinarentzat eta/edo egoerarentzat luzeegiak diren lanaldietan jardutera behartzen dute, —pertsona helduek egin beharko lituzkete lan horiek—. Baliteke haurra edo nerabea behartu izana gaixo egonik lan egitera, eta zigortzea, espero den errendimendua ez badu. Ez da eskolara joaten arrazoi horregatik, eta ia ez dauka denborarik jarduera ludikoetarako eta atsedeen hartzeko.
2. Larritasun handia <ul style="list-style-type: none">• Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak, ezkutuko ekonomiako lanak egiteko agindu ohi diote. Ez da eskolara joaten arrazoi horregatik, eta ia ez dauka denbora jarduera ludikoetarako eta atsedeen hartzeko. Baliteke zeregin horiek eskola-ordutegitik kanpo edo jaiegunetan eginaraztea, denbora librea eta berdinkideekin harremanak izateko denbora mugatzea edo erabat murriztea eraginez.• 16-18 urteko nerabe baten gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak prestakuntza akademikoa uztera behartzen dute lanean hasteko, nerabeak errendimendua onartzen duen arren eta ikasten jarraitu nahi duen arren. Lanaren bitartez lortzen duen diru guztiaren edo zati baten jabe egiten dira, familiaren sostengurako ezinbestekoa ez den arren edo pertsona helduen lanarekin ordezkatu daitekeen arren.
3. Larritasun ertaina <ul style="list-style-type: none">• Behin eta berriz, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak berekin eramaten dute eskolatutako haurra edo nerabea denboraldi jakin batzuetan (adibidez: produktu naturalen bilketa-aldian), lan-jardueraren batean lagun diezaien. Hori eskola-aldietan gertatzen da, eta, horren ondorioz, haurrak edo nerabeak eskolara joateari uzten dio, eta zailtasun nabarmenak ditu eskola-egokitzapenean eta/edo -errendimenduan.• Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak, ezkutuko ekonomiako lanak esleitu ohi dizkiete eskola-ordutegitik kanpo edo jai-aldietan. Lan horiek gehiegi mugatzen dute —baina ez erabat— haren denbora librea eta berdinekin harremanak izateko denbora.
4. Arrisku arina <ul style="list-style-type: none">• Urtean behin, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak beraiekin eramaten dute eskolatutako haurra edo nerabea denboraldi jakin batean (adibidez: produktu naturalen bilketa-aldian), lan-jarduera batean lagun diezaien. Aldi hori ez da inoiz izaten hiru aste baino luzeagoa. Eskola-aldian gertatzen da hori, eta, horren ondorioz, haurrak edo nerabeak ikastetxera joateari uzten dio. Agian laguntza bereziak behar izan ditu atzerapen akademikoa errekupeartzeko.
5. Arriskurik ez <ul style="list-style-type: none">• Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haurrak edo nerabeak jarduera akademikoa edo prestakuntzako osatzea sustatu eta errazten dute. Etxeko zereginak esleitzen dizkiete edo bere eboluzio-mailari dagokion moduan familian laguntzeko eskatzen diote, betiere zeregin horiek eskolako jarduerak oztopatzen ez dituztela eta denbora librea eta berdinekin harremanak izateko aukerak dituztela bermatuta.

ARRISKU LARRIA EDO DESANPAROA DAKARTEN BESTE EGOERA ESPEZIFIKO BATZUK

- ⇒ Jarraian deskribatzen ditugun egoeretan, gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ezaugarri edo muga jakin batzuk dituzte, **haurraren edo nerabearen oinarritzko osotasuna eta bizitza arrisku larrian egon daitezkeela** pentsarazten dutenak, **eta, familia-ingurunean, ez dago gabezia horiek konpentsatu eta haurraren edo nerabearen oinarritzko beharrekiko gutxieneko arreta egokia bermatzeko kontrol-elementurik.**
- ⇒ Egoera horien existentzia kalifikatzeko nahikoa izango da epigrafeetako batean deskribatutako inguruabarrak gertatzea (epigrafe bakoitza puntu batekin adierazten da).
- ⇒ Inguruabar horien existentzia **kasu guztietan aztertu beharko da**, babesgabetasuneko beste tipologia bat identifikatuta ere, eta horren larritasun-maila dena delakoa izanda ere.
- ⇒ Arestian adierazitako babesgabetasun-tipologietako bat bera ere gertatzen ez bada ere, atal honetan adierazitako inguruabarretako bat badago, **kasua larritasun handiko kategorian kalifikatuko da automatikoki.**

A. AITAK, AMAK EDO TUTORETZA EDO ZAINZA BETETZEN DUTEN PERTSONEK ERAGINDAKO BABESGABETASUN LARRIKO AURREKARIAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasoak edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak beste haur edo nerabeekiko sexu-erasoen protagonista izan dira, tratamendu arrakastatsurik izan gabe. • Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak haur edo nerabe horrekiko edo beste haur edo nerabe batzuekiko tratu txar, sexu-abusu edo zabarkeria larriak egin zituzten iraganean, eta egoera hori eragin zuten inguruabarrak edo orduko testuingurua dira aldatu (adibidez: ez dute tratamendurik jaso, alkoholismoko, droga-abusuko edo nahaste mentaleko arazo larriak dituzte oraindik, edo oso nortasun disfuntzionalak dituzte). • Gurasoak edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak bikote-indarkeriako edo familiako beste pertsona helduekiko indarkeriako egoeretan egon dira iraganean, eta egoera horiek kalte larria eragin dute haurraren edo nerabearen, eta pertsona horrek era horretako harremana ezarri du berriz ere, iraganean eragin zuten arazoak konpondu gabe (adibidez: etxeko indarkeriako arazoak dituen eta zailtasunak konpondu gabe berriz ere elkartzen den bikotea, alkoholismoko arazo larrien iraunkortasuna).
B. GURASOEN EDO TUTORETZA EDO ZAINZA BETETZEN DUTEN PERTSONEN ZAILTASUN PERTSONAL LARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak nahaste psikopatologiko bat dute, eta, ondorioz, errealitatearekiko kontaktua galdua dute, judizioko eta erabakiak hartzeko gaitasunak nabarmen murriztuta dauzkate eta ez dira gai bizitza autonomoa garatzeko. Nahastea kronikoa edo hasiberria izan daiteke; etengabe edo denboraldi jakin batzuetan ager daiteke. Baliteke pertsona horrek medikazioa hartzea, baina medikazioak edo hartzeko baldintzek ez dute bermatzen kontrol-galera larriak izango ez direnik. Honako hauek gerta litezke: suizidioko ahaleginak edo adierazpenak, eldarnioak, haurraren edo nerabearen muturreko gaitzespenak, edo kontrola galtzeko eta larriki kaltetzeko beldurra izatearen adierazpenak. • Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak adimen-urritasuna dute (adimen-atzerapen ertaina edo sakona), eta bizitza autonomo bat garatzeko ezgaitzen ditu. Horietako inork ez dauka autonomia izateko behar adina adimen-gaitasun. • Gurasoek edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak alkoholaren eta/edo drogen kontsumoko arazo larria eta kronikoa edo iraupen luzekoa dute. Denbora gehiena drogen eta/edo alkoholaren eraginpean daude. Ez dute tratamendurik jasotzen. Baliteke tratamenduan egotea, baina tratamenduaz arduratzen diren profesionalak ez dute bermatzen epe laburrean berriz eroriko ez denik edo kontsumorik ez dagoenik. Baliteke arestian tratamenduak gauzatu izana, baina ez dute arrakastarik izan. • Gurasoak adingabeak dira, eta ez dute laguntzarik beren ingurunean, eta heldugabetasun edo ezegonkortasun handia dute, eta ez dute gaitasuna seme-alabaren beharrei behar adina lehentasuna emateko beren beharren gainetik, eta ez dute epe ertainerako edo epe luzerako etorkizuna planifikatzeko gaitasunik.

<p>C. GURASOEN EDO TUTORETZA EDO ZAINTZA BETETZEN DUTEN PERTSONEN ALDI BATERAKO EDO BEHIN BETIKO EZINTASUNA BABES-BETEBOHARRAK BETETZEKO</p>	<ul style="list-style-type: none"> Gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen aldi baterako edo behin betiko ezintasuna adingabeen zaintzarako ezarritako babes-beteboharrek betetzeko, behar den laguntza morala edo materiala galtzerainoko modukoa, honako arrazoi hauengatik: heriotza, espetxea, gaixotasun fisikoa, mentala edo toxikomania ezgaitzaileak, bitarteko materialen muturreko gabezia (edo antzeko kausa), eta haurra edo nerabea zaintzeaz arduraz daitezkeen ahaiderik ez izatea (barnean hartzen dira inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrak).
<p>D. INOREN KARGURA EZ DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> Inoren kargura ez dagoen adingabe atzerritarra (IKEDAA): hemezortzi urtetik beherako adingabea, Europar Batasuneko araubidea aplikatzen ez zaion estatu batekoa, zeina legez edo ohituraz bere gaineko arduraz duen pertsona heldurik gabe iristen baita Espainiako lurraldera, eta, ondorioz, adingabea babesgabetasun arriskua izanik; bai eta behin Espainiara iritsita, egoera horretan dagoen adingabe oro ere, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onartutako atzerritarrei buruzko erregelamenduaren 189. artikularekin bat.

III. ZATIA

Beste inguruabar batzuk balioesteko irizpide teknikoak

Jaio aurreko aldian, jaio aurreko arriskurik eta babesgabetasunarekiko zaugarritasunik detektatu den

1/1996 Lege Organikoaren 17.9 artikuluan (uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan), hau xedatzen da: “Arrisku-egoeran esku hartzeko administrazio publiko eskudunak, dagozkion osasun-zerbitzuekin lankidetzan arituta, jaio aurretik egon daitezkeen arrisku-egoerak prebenitzeko, horietan esku hartzeko eta horien jarraipena egiteko neurri egokiak hartuko ditu, gero jaioberriaren arrisku- edo desanparo-egoerarik ez egoteko. Horretarako, jaio aurreko arrisku-egoeratzat hartuko da haurdun dagoen emakumea fisikoki ez zaintzea edo mendekotasun-sortzaileak izan daitezkeen substantzia gehiegi kontsumitzea, bai, halaber, emakumeak berak gauzatuta edo hirugarren batek gauzatu eta berak onartuta, ekintzaren bat egitea zeinak jaioberriaren ohiko garapenean kalte egin baitezake edo harengan gaixotasunak edo anomalia fisikoak, mentalak edo zentzumenezkoak eragin baititzake. Osasun-zerbitzuek eta osasun-langileek egoera horren berri eman beharko diote administrazio publiko eskudunari, bai eta Fiskaltzari ere. Umea jaio ondoren, adingabearekin eta haren familia-unitatearekin esku hartzen jarraituko da, beharrezkoa izanez gero adingabearen arrisku- edo desanparo-egoera adierazteko eta behar bezala babesteko”.

Jaio aurreko arriskuko egoeretako esku-hartzea oso garrantzitsua da, ez soilik haren ondoko jaio aurreko tratu txarra eragozteko, baita beste babesgabetasun-egoera batzuk eragozteko ere, adin txikiko haurrak oso zaugarriak baitira egoera horiekiko, erabateko mendekotasuna dutelako, hizkuntzaren bidez komunikatzeko edo beren burua babesteko neurriak hartzeko gai ez direlako, gizartean “ikusezinak” direlako eta familia-nukleotik kanpoko pertsonekin harreman gutxiago dituztelako. Inguruabar horiek, haurtzaro goiztiarreko hauskortasun fisiko, afektibo eta zerebralarekin batera, areagotu egiten dituzte babesgabetasun-egoerek haurraren garapen fisikoan eta psikikoan izan ditzaketan ondorio negatiboak.

Jaio aurreko arriskuan bikoteen edo emakume haurdunen egoera hauek sartuko lirateke:

- Behin eta berriz eta modu nabarmenean, ez dituzte betetzen medikuek haurdunaldia egokia izateko agindutako higie- eta osasun-neurriak (esaterako, substantzien kontsumoa, kontrol medikoak, atsedena, elikadura, medikazioa), hori egitea justifikatuko lukeen ezinbesteko kanpo-arrazoirik egon gabe.
- Drogak, alkohola edo mendekotasuna sortzen duten beste droga batzuk gehiegi kontsumitzen dituzte.
- Haurdunaldirako arriskutsuak diren ekintzak egin dituzte ohartuki.
- Dituzten bikote-harremanetan indarkeria fisikoa pairatzen dute.
- Emakumeak gauzatutako edo hirugarren batek gauzatu eta berak onartutako ekintzak, baldin eta jaioberriaren ohiko garapenean kalte egiterik badute edo harengan gaixotasunak edo anomalia fisikoak, mentalak edo zentzumenezkoak eragin ahal badituzte.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuen esku-hartzea beharrezkoa da, halaber, aurreko kasuen antzekoak izanik legearen definizioaren arabera “jaio aurreko arriskua” kategorian sartzen ez diren kasuetan, **jaio aurreko aldian detektatutako babesgabetasunarekiko zaugarritasunaren** kategorian sartzen direnak. Familia horietan, aitak edo amak dituzten ezaugarriak edo zailtasunak direla-eta, gurasoek neurri handian dute mugatuta haurra jaio ondoren behar bezala zaintzeko gaitasuna. Oro har, guraso-gaitasunak murrizten dituzten ezaugarriak edo zailtasunak ez dira ezaugarri edo zailtasun bakar bat izaten, bat baino gehiago izaten dira aldi berean, eta ez dira jaio aurreko aldiko berariazkoak

(hau da, babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna eragiten dute haurtzaroan eta nerabezaroan ere). Zerrenda oso-oso bat aurkeztea ezinezkoa den arren, zaurgarritasun-faktore hauek aipa daitezke:

- Haurdunaldiaren eta jaioko den haurraren kontrako gaitzespena edo sentimendu negatibo biziak.
- Aurretiko babesgabetasun-historia izatea beste seme-alaba batzuekiko.
- Babesgabetasun-historia norberaren haurtzaroan edo nerabezaroan.
- Ezaugarri hauek izatea: 20 urtetik beherako adina, muga kognitiboak edo heldutasunik eza, eta babes-iturri gutxi edo batere ez.
- Zailtasun ekonomiko edo material esanguratsuak.
- Gizarte-bazterkeria edo hura izateko arriskua.
- Nahaste psikopatologikoak, ondoez psikologikoko sintoma esanguratsuak (depresio-sintomak batez ere), edo agresibitatea kontrolatzeko arazo handiak.
- Ezegonkortasuna edo gatazka garrantzitsua bikote-harremanean.
- Guraso-rolarekin lotutako estres-maila handia (esate baterako, amatasuna/aitatasuna bakarrik bizitzea, seme-alaba asko izatea, eta gaixotasun edo ezigaitasun fisiko, mental edo sentsozialak dituzten beste seme-alaba batzuk izatea).

Kasu horietan, esku-hartze goiztiarra egin behar da, bigarren mailako prebentzio-programen bidez; aukeran, haurra jaio baino lehen, eta egokia litzateke lehen aldiz guraso izan behar direnekin egitea, etorkizunean arrisku- edo desanparo-egoerarik ez izateko. Oro har, kasu horietan, udal-mailako gizarte-zerbitzuei dagokie esku hartzea, eta horretan jarraitu beharko dute umea jaio ondoren ere, haurrak familian arreta egokia jasotzen duela bermatzeko.

Jaio ondoren umearen oinarritzko osasunerako eta segurtasunerako arrisku handiko egoerak daudela balioesten bada, haurdun dagoen emakumeak (1) Balora tresnan “Arrisku larriko edo desanparoko beste egoera espezifiko batzuk” atalean jasotako beste inguruabar batzuk baditu edo (2) haurdunaldian duen portaerak umea gaixotasun edo anomalia fisiko, psikiko eta sentsozial larriak pairatzeko arrisku nabarmenean jartzen badu, esku-hartzea lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek egin beharko dute. Nolanahi ere, lurralde historiko bakoitzak erabaki ahal izango du kasu horiek lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek kudeatuko dituzten, edo udal-mailako gizarte-zerbitzuek hartu behar duten beren gain kasuaren arreta eta jarraipena erditzeko unera arte, lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek hortik aurrera esku-hartzea beren gain hartzeko. Azken kasu horretan, garrantzitsua da udal-mailako gizarte-zerbitzuek lurralde-mailako gizarte-zerbitzuak jakinaren gainean jartzea umea jaio baino lehen, une horretatik aurrera egingo den esku-hartzea behar bezala planifikatzeko eta koordinatzeko.

Zer lankidetz-maila dagoen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen eta haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gizarte-zerbitzuetako profesionalen artean

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuetako profesionalerikiko mesfidantza izatea, arazoak ez jabetzea edo aldatzeko barne-motibaziorik ez izatea, eta erresistentzia edo lankidetzarik eza espero daitezkeen arazoak dira, eta sarritan izaten dira haurren babesgabetasun-arazoak dituzten familiekin esku hartzean. Erresistentzia eta lankidetzarik eza, neurri handi batean, familiaren ezaugarriekin eta inguruabarrekin lotuta dago, baina badaude beste faktore batzuk ere; esaterako, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gizarte-zerbitzuen eta familiaren arteko aurreko harremanen historia, emandako laguntza-zerbitzuen eta -baliabideen egokitasuna eta profesionalen jarduna. Faktore horiek guztiek erabateko eragina dute arazo horiek gaingintzeko, irauteko edo areagotzeko orduan. Horregatik, zailtasun horiek denboraren joanean irauten badute, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuetako profesionalak zailtasun horien kausak aztertu beharko dituzte, eta estrategia berri batzuk aplikatu jarduteko moduan eta familiarekiko harreman-formetan, mesfidantza eta erresistentzia horiek lankidetzari bihurtu ahal izateko.

Haur edo nerabearen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen eta haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuen artean lankidetzari aktiborik ez dagoela jotzeko, honako hauek behar bezala frogatu eta dokumentatu beharko dira: zer jardun profesional egin diren lankidetzari hori lortzeko (esaterako, zer baliabide eskaini diren, zer unetan eskaini diren, zer profesionalak esku hartu duten); haurraren edo nerabearen gurasoek edo tutoretza eta zaintza betetzen duten pertsonak esku-hartze horiek jaso dituztela edo haien berri izan dutela; haien lankidetzari aktibo nahikoa jaso ez dela —lankidetzari falta zertan gauzatu den zehaztu beharko da—; eta egoera horrek haurrak edo nerabeak pairatzen duen babesgabetasun-egoera zuzentzea eragozten duela. Adin Txikikoen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren — aurrerantzean, 1/1996 Legea— 17.4 artikuluan xedatutakoarekin bat (Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legean emandako idazketan), hor sartzen da frogatzea haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuek ahalegin guztiak egin dituztela, garaiz eta forma egokian, familiarentzako gizarte- eta hezkuntza-erloko esku hartzeko proiektu bat martxan jartzeko edo arreta individualizatuko arreta-plan bat martxan jartzeko, familiaren arazoak konpontzeko, eta ahalegina egin dela gurasoek, tutoreek, zaintzaileek eta hartzaileek proiektu edo plan hori egiteko prozesuan parte hartzeko, bai eta haur edo nerabeak parte hartzeko ere (nahikoa heldutasun badu eta, beti, hamabi urtetik gora baditu). Eta ahalegin horiek guztiak eginda ere, gurasoek, tutoreek, zaintzaileek edo hartzaileek uko egin diotela plan hori izenpetzeari eta gerora ere ez direla lankidetzari aritu plana gauzatzearan.

Haur edo nerabearen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen eta haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuetako profesionalen arteko lankidetzeta-mailaren balorazioa egiteko irizpideak ⁴⁹		
BAI	Egokia	<ul style="list-style-type: none"> Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak aitortzen dituzte haur edo nerabearekiko harremanetan edo hura zaintzeko eginkizunetan dituzten zailtasunak, zailtasun horien kausak, eta egoera horrek haur edo nerabearen eragiten dituen ondorio negatiboak. Arazoak konpontzeko gogoia adierazten dute. Gizarte-zerbitzuen laguntza eskatzen edo onartzen dute. Ados daude gizarte-zerbitzuetako profesionalarekin, aldatu behar diren familia-inguruabarren inguruan, horretarako eskaintzen zaizkien baliabideak onartzen dituzte, eta inplikatzeko eta lankidetzeta aktiboa izateko asmoa dutela adierazten dute. Ez dago haien konpromisoa fidagarria ez denik pentsarazteko moduko informaziorik.
	Nahikoa	<ul style="list-style-type: none"> Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak aitortzen dituzte haur edo nerabearekiko harremanetan edo hura zaintzeko eginkizunetan dituzten zailtasun nagusietako batzuk, zailtasun horien kausak, eta egoera horrek haur edo nerabearen eragiten dituen ondorio negatiboak. Zailtasunak dituzte beste arazo batzuk aitortzeko. Zailtasunen errua haur edo nerabeari, beste pertsona batzuei edo kanpo-inguruabarrei egozten badiete ere, aitortzen dute berei dagokiela erantzukizunaren zati handi bat. Arazoak konpontzeko gogoia adierazten dute. Gizarte-zerbitzuen laguntza eskatzen edo onartzen dute. Ados daude gizarte-zerbitzuetako profesionalarekin, aldatu behar diren familia-inguruabarren inguruan; horretarako eskaintzen zaizkien baliabideak onartzen dituzte, eta inplikatzeko eta lankidetzeta aktiboa izateko asmoa dutela adierazten dute, baina balorazioetako eta proposamenetako batzuk ulertzeko eta onartzeko nolabaiteko erresistentzia eta zailtasunak izan ditzakete. Ez dago esku-hartzearekiko duten konpromisoa fidagarria ez denik pentsarazteko moduko informaziorik. Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak esku-hartzearen planifikazioarekiko erakusten duten inplikazio-maila nahikoa da, baina ez da maila egokira iristen. Esku-hartzearen helburu gehienak onartzen dituzte, baina baliteke emandako edo gomendatutako zerbitzuak egoki ez erabiltzea.
EZ	Gutxiegi	<ul style="list-style-type: none"> Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak aitortzen dituzte haur edo nerabearekiko harremanetan edo hura zaintzeko eginkizunetan dituzten zailtasunetako batzuk eta egoera horrek haur edo nerabearen eragiten dituen ondorio negatiboetako batzuk. Hala ere, zailtasunak dituzte haiei eta familiari eragiten dieten arazo nagusi batzuk aitortzeko. Zailtasunen errua haur edo nerabeari, beste pertsona batzuei edo kanpo-inguruabarrei egozteko joera dute. Baliteke arazoak konpontzeko gogoia adierazi eta gizarte-zerbitzuei laguntza eskatzea, baina ez daude ados gizarte-zerbitzuko profesionalak egindako diagnostikoarekin, aldatu behar diren familia-inguruabarrei dagokienez. Esku-hartzea onar dezakete, baldin eta inplikatu behar ez badute. Erresistentzia edo zailtasunak dituzte gizarte-zerbitzuen balorazioak eta proposamenak ulertzeko eta onartzeko. Badaude esku-hartzearekiko duten konpromisoa fidagarria ez dela pentsarazteko moduko aurrekariak edo informazioa. Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak zerbitzuak onartzen dituzte ahoz, baina ez dute lankidetzan aritu nahi (erresistentzia aktiboa edo pasiboa). Zerbitzuekiko inplikazio-maila minimoa erakusten dute. Profesionalek etengabeko artatze eta kontrol zuzena egiten dutenean soilik eusten diote beren inplikazioari eta parte-hartzeari. Profesionalek manipulatu eta haien kontrola eragozten saiatzen dira. Erabateko zurikeriaz edo etsaitasunez jarduten dute. Esku-hartzearekin agertzen duten inplikazioa hori lortzeko kanpo-presioaren emaitza baino ez da.
	Deuseza	<ul style="list-style-type: none"> Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dituzte onartzen haur edo nerabearekiko harremanetan edo hura zaintzeko eginkizunetan dituzten zailtasunak, ezta egoera horrek haur edo nerabearengan eragiten dituen ondorio negatiboak ere. Ez dituzte aitortzen haiek eta familiak babesgabetasun-egoera dela-eta dituzten arazoak. Zailtasunen errua haur edo nerabeari, beste pertsona batzuei edo kanpo-inguruabarrei egozteko joera dute. Ez dute beren arazoak konpontzeko gogorik adierazten, ezta gizarte-zerbitzuen laguntza jasotzeko gogorik adierazten ere. Erresistentzia handiz jokatzeko dute dute gizarte-zerbitzuen balorazioak eta proposamenak ulertzeko eta onartzeko. Gurasoak edo tutoretza eta zaintza betetzen duten pertsonak uko egiten diote argi eta garbi esku-hartzearen plangintzan edo garapenean lankidetzan aritzeari. Erresistentzia aktiboa edo pasiboa erakusten dute zerbitzuekin inolako kontakturik edo hartu-emanik izatearekiko. Esku hartzea boikotatzen dute. Iheskorra dira, hitzeko etsaitasunez jarduten dute, edo profesionalei eraso fisikoak edo eraso fisikoaren mehatxuak egiten dizkiete. Zailtasun handiak daude haiekin harremanetan jartzeko edo harremanari eusteko. Proposatutako tratamendua jarraitzearen aurka daude argi eta garbi.

⁴⁹ Murtziako Eskualdeko dokumentaziotik egokitua

IV. ZATIA

Dokumentazio osagarria

Glosarioa

ARRISKU-EGOERA (1/1996 Lege Organikoaren 17. artikulua —uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan—): “Arrisku-egoeratzat joko da, familia-, gizarte- edo hezkuntza-eremuko inguruabar, gabetasun edo gatazkak tarteko, adingabea bere garapen pertsonalean, familiakoan, sozialean edo hezkuntzakoan, bere ongizatean edo eskubideetan kaltetuta ateratzen denean, baina desanparo-egoeraren deklarazioaren eta legearen arabera tutoretza hartzeko oinarri izango lirakekeen garrantzia, intentsitatea eta iraunkortasuna eduki gabe, hain zuzen, beharrezko egingo lukeena administrazio publiko eskudunak esku hartzea, adingabea eragiten duten zailtasunak edo egokitu ezina ezabatzeko, murrizteko edo konpentsatzeko eta babesgabetasuna eta gizarte-bazterkeria saihesteko, familia-ingurunetik banatu behar izan gabe.”

DESANPARO-EGOERA (Kode Zibilaren 172.1 artikulua —uztailaren 28ko 26/2015 Legean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoan, emandako idazketan— eta 3/2005 Legearen 56. artikulua): “Desanparo-egoera dagoela joko da egitez hala gertatzen denean arrazoi hauetako bat tarteko: adingabeen zaintzari buruz legeek ezartzen dituzten babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo eginbehar horien egikaritzea ezinezko nahiz desegoki izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala”. Desanparo-egoeraren adierazpena egiten bada, administrazio publiko eskudunak haurraren edo nerabearen tutoretza legearen aginduz hartuko du bere gain, gurasoei edo tutoreei guraso-ahala edo tutoretza arrunta kenduko zaie, eta dagokion babes-neurriak aplikatuko dira.

LARRITASUN-MAILA ERTAINEKO, HANDIKO EDO OSO HANDIKO BABESGABETASUNA: Adingabe baten tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak edo gurasoak honako egoera hauetan daudenean gertatzen dena:

- babes-betebeharrak gauzatzeko gaitasuna edo ezintasuna dute, edo
- modu desegokian betetzen dituzte: haurrak edo nerabeak ase gabeko oinarrizko beharrak ditu, eta, horrek, ziur asko, kalte esanguratsua egin dio edo egingo dio haren osasunari eta garapenari,
- eta nahitaezko duten laguntza morala edo materiala galtzeraino irits daiteke.

Babesgabetasuneko egoerek arrisku- edo desanparo-egoerak izan daitezke, larritasunaren arabera.

HAUR ETA NERABEEN GARAPEN-ARLOAK:

1. Garapen fisikoa.
2. Garapen psikikoa. Honako arlo hauek biltzen ditu: *emozionala* (batik bat, nortasunaren eraikuntza; autoestimua; norberarengan eta inguruan segurtasuna eta konfiantza izatea; emozioak identifikatzea, kudeatzea, adieraztea eta kontrolatzea; sexu-nortasuna), *soziala* (beste pertsonetikiko —berdinekiko nahiz helduekiko— komunikazio- eta harreman-jarraibideak), *kognitiboa* (oinarrizko prozesu kognitiboak —pertzepzioa, arreta, memoria, irudimena eta goi-mailako prozesu kognitiboak —hizkuntza eta pentsamendu-arrazoinamendua—) eta *sexuala* (sexu-identitatea eta -orientazioa eraikitzekeo prozesua, sexualitatearen adierazpena eta sexu-portaera).

KALTE ESANGURATSUA GARAPENEAN: Haur edo nerabe batek pairatutako kaltea *kalte esanguratsutzat* hartuko da honako zirkunstantzia hauetako bat edo batzuk agertzen direnean:

- Haurrak edo nerabeak garapen-arlo batean edo batzuetan (fisikoa, emozionala, soziala, kognitiboa edo sexuala) pairatzen duen kaltea dela-eta:
 - bere adinerako eta egoerarako espero daitekeenaren mugetan jartzen du, edo funtzionamendu erabat mugatua edo nahasia du,
 - garapen-arlo bateko edo batzuetako zailtasunek iraun egiten dute eboluzio-etapetan, edo

- kalteak gutxienez bi garapen-arlori eragiten die aldi berean (arlotu fisiko, emozional, soziala, kognitiboa edo sexuala) (*eragindako arloaren arabera, osasunaren, hezkuntzaren, psikologiaren edo psikiatriaren arloko profesional baten balorazioa beharko da*).
- Babesgabetasunak heriotzako, ezintasun iraunkorreko, edo gaixotasun eta nahaste fisiko oso larriko arriskuan jarri du haurra edo nerabea.
- Haur edo nerabeak lesio fisikoak ditu gorputzaren zona jakin batzuetan (aurpegian, buruan, gorputzaren barruko lesioak, uzkie, genitaletan) edo ospitaleratzea edo tratamendu medikoa behar du tratatu txar baten ondorioz.
- Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen haurra edo nerabea abandonatu dute, itzultzeko asmorik erakutsi gabe.
- Haurrak edo nerabeak familiaren barruko sexu-abusua pairatu du —kontaktu fisikoarekin edo gabe—.
- Haurra edo nerabea delitu-ekintza larriak egitera edo prostituzioan aritzera behartu dute, edo sexualki esplotatu dute.

KALTE PSIKIKO LARRIA: *“Haur edo nerabeak honako inguruabar hauetako bat edo batzuk izatea, egiaztatuta: (a) nahaste psikopatologikoa, (b) antsietateko, depresioko, uzkurtsuneko sintoma klinikoak edo jokabide ukatzailea, jokabide erasotzaileak edo autosuntsigarriak, edo garapeneko atzerapenak, edo (c) garapeneko eta egokitzapen pertsonal eta sozialeko prozesua larriki eragozten duten eta berehalako tratamendu espezializatua behar duten bestelako arazo larriak”*. Diagnosi-teknika objektiboak edota fidagarritasun- eta baliotasun-indize egokiak dituzten tresnak aplikatuz erabakiko da sintoma klinikorik ote dagoen.

LEHEN MAILAKO PREBENTZIO-PROGRAMAK: Biztanleria osoari zuzendutako jardunak, familien eta haurren eta nerabeen bizitza-kalitate globala hobetzeko eta babesgabetasuneko egoera berriak agertzea saihesteko helburuarekin.

Lehen mailako prebentzioko jardunen ezaugarriak:

- proaktiboak dira, ez erreaktiboak, prebenitu beharreko arazoak gertatu baino lehen egiten dira, eta ez pertsonengan eragina izan ondoren,
- arazoa biztanlerian eragiten edo zabaltzen duten ingurune-egoeretan edo gizarte-prozesuetan oinarritzen dute beren ekintza, arazo horiek agertzea edo zabaltzea eragozten saiatzeko, eta
- arazoaren eraginpean ez dauden pertsonen edo taldeen zuzentzen zaizkie.

BIGARREN MAILAKO PREBENTZIO-PROGRAMAK. Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek garatzen dituzte. Babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeran edo arrisku arineko egoeran dauden familientzako ekintzak antolatzen dituzte. Haien helburu nagusia arrisku ertaineko, arrisku larriko edo desanparoko egoerak sortzea eragozte da.

- Horretarako, familia babesgabetasun-egoera bat sortzeko arriskuan jartzen duten faktoreak desagerrarazi, murriztu, kontrolatu edo indargabetzen saiatzen da, eta
- familiaren barruko heziketako edo zaintza, tratatu edo harremaneko ohitura desagokiak zuzentzen dira.

Esku-hartzea zenbait testuingurutan gauza daiteke (familia-etxebizitzan, komunitate-ingurunean, bulegoan eta abar), kasu bakoitzaren beharren arabera, baina, beti, zerbitzu komunitarioekin lankidetzan estuan arituta eta izaera normalizatuarekin.

FAMILIARI EUSTEKO PROGRAMAK: Udala- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek garatzen dituzte. Esku-hartze sozioedukativo eta psikosoziala egiten da arrisku ertaineko edo larriko egoeran dauden haurrak edo nerabeak dituzten familiekin, haurrak edo nerabeak familia-etxebizitzan bizitzen jarraitzen dutenean. Helburu nagusiak honako hauek dira:

- haurren edo nerabearen oinarritzko beharren estaldura bermatzea bere familia- eta gizarte-ingurunean,
- babesgabetasuneko egoerarekin amaitzea eta berriz agertzea saihesteko beharrezko baldintzak ezartzea,
- familia-unitatea mantentzea,
- haurren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak edo gurasoak gaitzea edo haien osagarri izatea guraso-papera behar bezala gauzatzeko, eta
- babesgabetasunak haurrengan edo nerabearengan izan dituen ondorioak konpontzea.

Esku-hartzea testuinguru batean baino gehiagotan egin daiteke (familia-etxebizitzan, komunitate-ingurunean, bulegoan eta abar), kasu bakoitzaren beharren arabera.

FAMILIA BERRELKARTZEKO PROGRAMAK: Lurralde-mailako gizarte-zerbitzuek garatzen dituzte. Esku-hartze sozioedukativo eta psikosoziala egiten da legezko babes-neurri bat ezartzea behar izan duen arrisku larriko edo desanparoko egoeran dauden haurren edo nerabeen familiei. Helburu nagusiak honako hauek dira:

- haurra edo nerabea familiara itzultzea lortzea ahal den denbora laburrean, horren oinarritzko beharren estaldura bermatuta,
- babesgabetasuna berriz agertzea eragozteko beharrezko baldintzak ezartzea,
- guraso-figurak gaitzea edo haien osagarri izatea babes-betebeharrak behar bezala gauzatzeko, eta
- babesgabetasunak haurrengan edo nerabearengan izan dituen ondorioak konpontzea.

Esku-hartzea testuinguru batean baino gehiagotan egin daiteke (familia-etxebizitzan, komunitate-ingurunean, bulegoan eta abar), kasu bakoitzaren beharren arabera.

BALORAZIOA: Oro har, informazio-multzo baten inguruan iritzia emateko ekintza eta ondorioa.

EBALUAZIOA: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuen esku-hartzearen fase bat da. Hartan, familia baten aurretiko historiari eta gaur egungo egoerari buruzko informazioa biltzen da, familiaren zailtasunen eta babesgabetasun-egoeraren kausak identifikatzeko eta esku hartzeko plana diseinatzeko.

Tresnaren laburpen-orria

ARRISKU- ETA DESANPARO-EGOEREN LARRITASUNAREN BALORAZIOA: LABURPEN-ORRIA

HAURRAREN EDO NERABEAREN IZEN-ABIZENAK ETA ADINA:
PROFESIONALAREN IZEN-ABIZENAK:


DATA:
ZERBITZUA:

	Informaziorik gabe	Ez dago Ez dago	Susmoa (*)	Arrisku arina (*)	Larritasun ertaina	Larritasun handia	Larritasun oso handia
1.- TRATU TXAR FISIKOA							
• Tratu txar fisikoa							
2.- ZABARKERIA							
• Behar fisikoekiko zabarkeria							
○ Elikadura							
○ Osasun fisikoaren zaintza							
○ Jantziak							
○ Higiene pertsonala							
○ Etxebizitzaren higiene-baldintzak							
○ Etxebizitzaren egonkortasuna eta bizigarritasun-baldintzak							
• Segurtasun-beharrekiko zabarkeria							
○ Etxebizitzako segurtasuna eta arriskuen prebentzioa							
○ Artatzea							
○ Beste pertsona batzuek eragindako babesgabetasun larriko egoerekiko babesak							
• Prestakuntza-beharrekiko zabarkeria							
• Behar psikikoekiko zabarkeria							
○ Interakzioa eta afektua							
○ Estimulazioa							
○ Arazo emozional larriekiko arreta							
○ Arauak, mugak eta balio moral positiboaren transmisioa							

	Informaziorik gabe	Ez dago Ez dago	Susmoa (*)	Arrisku arina (*)	Larritasun ertaina	Larritasun handia	Larritasun oso handia
3.- SEXU-ABUSUA							
• Sexu-abusua							
4.- TRATU TXAR PSIKIKOA							
• Tratu txar emozionala							
• Gatazketan erabiltzea							
• Indarkeria-egoeren eraginpean jartzea							
• Eraso fisikoko mehatxuak							
5.- ABANDONUA							
• Abandonua							
6.- GURASOEN EZGAITASUNA HAURRAREN EDO NERABEAREN PORTAERA KONTROLATZEKO							
• Gurasoen ezgaitasuna haurraren edo nerabearen portaera kontrolatzeko							
7.- BESTE BATZUK							
• Jaio aurreko tratu txarrak							
• Tratu desegokia							
○ Janaria eta ura nahita kentzea							
○ Konfinamendua edo murrizketa fisikoa							
○ Etxetik bidaltzea edo etxean sartzea ukatzea							
• Galbideratzea							
• Eskekotasuna							
• Lan-esplotazioa							

8.- ARRISKU LARRIA EDO DESANPAROA DAKARTEN BESTE EGOERA ESPEZIFIKO BATZUK	Informaziorik gabe	Ez	Susmoa	Bai
• Gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak eragindako babesgabetasun larriko aurrekariak				
• Zailtasun pertsonal larriak gurasoengan edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonengan				
• Gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen aldi baterako edo behin betiko ezintasuna adingabeen zaintzan ezarritako babes-betebeharrak betetzeko.				
• Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrak (IKEDAA)				

KASUAREN LARRITASUN-MAILA KALIFIKATZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTELAKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA (Iankidetzak aktiboak, arazoak jabetzea, aldatetarako motibazioa, beste batzuk)

	INFORMAZIORIK GABE	EZ DAGO ARRISKURIK	SUSMOA	ARRISKU ARINA	ARRISKU ERTAINA	ARRISKU LARRIA	DESANPA ROA
 LARRITASUN-MAILAREN BALORAZIO GLOBALA							
EGIN BEHARREKO JARDUNA (Arrisku- edo desanparo-egoeraren administrazio-adierazpena sartu behar da, hala badagokio)							

LABURPEN-ORRIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK:

- **Laburpen-orri bat bete behar da haur edo nerabe bakoitzeko.**
- **Atal guztiak bete behar dira. Atalen bati buruzko informaziorik ez badago, adierazi egin beharko da.**
- **Babesgabetasun-tipologien kalifikazioa:**
 - **“Informaziorik gabe”:** Ez dago informaziorik balorazioaren xede den egoera gertatzen den edo ez jakiteko, edo dagoen informazioa ez da nahikoa, argi eta garbi. Ez dago horrelako egoerarik dagoen pentsarazteko moduko adierazlerik, baina egon egon daiteke (*Adibidez:* Osasun fisikoaren eta higie pertsonalaren arloan zabarkeria larria eta prestakuntza-beharretan zabarkeria ertaina pairatzen duen bi urteko haurra deskribatzeko txosten bat. Ez da inongo informaziorik jakiteko nola artatzen duten gurasoek edo bere tutoretza edo zaintza duten pertsonak. “Artatze-zabarkeria” tipologia egon daitekeenez, “informaziorik gabe” kalifikazioa adieraziko da atal horretan)
 - **“Ez dago edo Ez dago arrastorik”:** Haur edo nerabeari buruz bildutako edo eskuragarri dagoen informazioaren arabera, ondorioztatzen da ez dagoela babesgabetasun-tipologia hori eta ez dagoela horrelako egoera gertatzen ari dela susmatzera daraman daturik ere.
 - **“Susmoa”:** Bildutako informazioa erabakigarria ez bada ere, horrelako egoera gertatzen ari dela pentsarazteko moduko adierazleak daude.

Horrelako kasuetan, **laburpen-orrian honela zehaztuko dira:** **S**=Susmoa, larritasun-maila zehaztu gabe, **S-LA**=Larritasun arineko egoeraren susmoa, **S-E**=Larritasun ertaineko babesgabetasunaren susmoa, **S-H**=Larritasun handiko babesgabetasunaren susmoa, **S-OH**=Larritasun oso handiko babesgabetasunaren susmoa.

Haurtzaroko eta nerabezaroko oinarrizko beharren taxonomia eta horiek ebaluatzeko adierazleak

HAURTZAROKO ETA NERABEZAROKO OINARRIZKO BEHARREN TAXONOMIA⁵⁰

BEHAR FISIKOAK	SEGURTASUNA	BEHAR EMOZIONALAK	BEHAR SOZIALAK	BEHAR KOGNITIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Elikadura ✓ Temperatura ✓ Higienea ✓ Osasuna ✓ Loa ✓ Jarduera fisikoak: ariketa egitea eta jolastea 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurraren edo nerabearen osotasun fisikoaren arriskuan jartzen duten inguruneen baldintzen aurkako babesa ✓ Kaltetzen duten edo kalte dezaketzen pertsona helduen edo adingabeen aurkako babesa ✓ Haurrak edo nerabeak bere buruari egin diezaiokkeen kaltearen aurkako babesa 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Segurtasun emozionala: <ul style="list-style-type: none"> ○ Harreman seguruak, egonkorak eta afektiboak izatea pertsona heldu esanguratsuekin ○ Haurraren edo nerabearen beharrekiko sentsibilitatea eta erresponsibitatea ○ Kontaktatu fisiko egokia ○ Afektu eta errefortzu positiboak jasotzea ○ Senideekiko eta beste pertsona heldu esanguratsuekiko harreman jarraituak ✓ Pixkanakako parte-hartzea eta autonomia ✓ Garapen psikosexualeko prozesua errespetatzea ✓ Irudizko arriskuen aurkako babesa ✓ Ondoez emozionaleko arazoak edo sintomak konpontzeko laguntza izatea 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Jokabide-mugak eta -orientabideak izatea ✓ Emozioak kontrolatzen ikastea, bai eta gizartean parte hartzeko eta beste pertsona batzuekin harreman egokiak ezartzeko jokabide egokiak ikastea ere ✓ Gizarte-harremanen sarea ✓ Interakzio ludikoa 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Estimulazio sensoriala: Esplorazio- eta ikaskuntza-esperientziak izatea ✓ Ezagutzak eta abileziak lortzea antolatutako heziketa-prozesu baten bitartez (eskola edo homologatutako beste bat) ✓ Esplorazio fisiko eta soziala ✓ Errealitate fisiko eta soziala ulertzea

⁵⁰ Oinarria: López, F. (1995). *Necesidades de la infancia y protección infantil I. Fundamentación teórica, clasificación y criterios educativos de las necesidades infantiles*. Madril: Gizarte Gaien Ministerioa, eta *Guías de actuación en situaciones de desprotección infantil en la Comunidad de Cantabria y el Ayuntamiento de Madrid*.

**ONARRIZKO BEHARRAK HAURTZAROAN ETA NERABEZAROAN:
EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**

BEHAR FISIKOAK		
Beharrak	Asebetetzearen adierazleak	Gabezien adierazleak
Elikadura	<ul style="list-style-type: none"> ○ Amaren elikadura egokia haurdunaldian eta edoskitzaroan. ○ Elikadura nahikoa, askotarikoa, denboran sekuentziatua, adinari egokitu. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Umekia kaltetzen duten gaiak hartzea. Desnutrizioa edo gehiegizko elikadura, osasunean arazo nabarmenak eraginez. ○ Adinerako egokia ez den elikadura.
Temperatura	<ul style="list-style-type: none"> ○ Etxebizitzako baldintza eta arropa egokiak. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Hotza etxebizitzan; hezetasuna; oinetakoak ez izatea, arropa ez izatea.
Higienea	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gorputz-higienea, etxebizitzakoa, elikadurakoa, arropakoa, ingurunekoa. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Zikinkeria; ingurunearen kutsadura; germen kutsakorrak; parasitoak eta karraskariak.
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> ○ Adinari eta osasun-egoerari egokitutako osasun-azterketak; txertaketak. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Osasun-kontrolik eza; sintomak eragitea; txertorik ez jartzea.
Loa	<ul style="list-style-type: none"> ○ Espazio babestua eta isila, nahikoa adinaren arabera, eta siestak egitea, haurra txikia bada. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Segurtasunik eza; zarata-kutsadura; etenaldiak sarritan; denbora gutxi; egunez atseden hartzeko lekurik eta denborarik gabe.
Jarduera fisikoa: ariketa egitea eta jolastea	<ul style="list-style-type: none"> ○ Mugimendu-askatasuna espazioan; espazioa jostailuekin eta beste haur eta nerabe batzuekin; kontaktua elementu naturalekin (ura, lurra, landareak, animaliak eta abar); ibilaldiak, irteerak, txangoak eta abar. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Gorputza ez mugitzea; espaziorik ez; objekturik ez; jostailurik ez; jarduerarik ez; mugimendu gutxi.

SEGURTASUNA		
Beharrak	Asebetetzearen adierazleak	Gabezien adierazleak
<ul style="list-style-type: none"> ○ Haurraren edo nerabearen osotasun fisikoa arriskuan jartzen duten inguruneko baldintzen aurkako babesa. ○ Kaltetzen duten edo kalte dezaketen pertsona helduen edo haur edo nerabeen aurkako babesa. ○ Haurrak edo nerabeak bere buruari egin diezaiokeen kaltearen aurkako babesa. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Etxea segurtasun-baldintzak izateko egoki antolatzea (entxufeak, garbigarriak, tresnak eta erremintak, eskailerak eta abar). ○ Artatzea: Haurraren edo nerabearen harremanen eta dagoen lekuren gaineko ezagutza eta kontrola. ○ Orientabideak eta gida: Haurrari edo nerabeari oinarrizko segurtasun-arauak irakastea. ○ Eskura egotea: Laguntzako eta babeseko zuzeneko esku-hartzea, beste pertsona batzuek haurra edo nerabea kaltetzen dutenean edo kalte dezaketenean, edo bere burua kalte dezakeenean. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Etxeko istripuak. Haurrak istripuak edo erasoak pairatzen ditu arretafaltaren ondorioz. ○ Haurra edo nerabea pertsona helduek minimizatzen dituzten edo arretarik eman gabe uzten dituzten arriskuko jokabide edo harremanetan inplikatzeko da etengabe. ○ Haurrak edo nerabeak beste pertsona batzuen erasoak pairatzen ditu behin eta berriz. ○ Haurrak edo nerabeak jokabide autosuntsigarri larriak edo suizidio-ideiak erakusten dituztenean, atzeratzea arreta espezializatua eskuratzerako orduan, edo arreta hori eskuratzeari uko egitea.

BEHAR EMOZIONALAK		
Beharrak	Asebetetzearen adierazleak	Gabezien adierazleak
Segurtasun emozionala: <ul style="list-style-type: none"> ○ Harreman seguruak, egonkorak eta afektiboak izatea pertsona heldu esanguratsuekin ○ Haurraren edo nerabearen beharrekiko sentsibilitatea eta erresponsibitatea ○ Kontaktu fisiko egokia ○ Afektu eta errefortzu positiboa jasotzea ○ Senideekiko eta beste pertsona heldu esanguratsuekiko harreman jarraituak 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Baldintzarik gabeko atxikimendua (onarpena, prestasuna, eskaerekiko erantzun egokia eta gaitasuna); kontaktu goxoa (ukimenekoa, ikusmenekoa, hitzekoa eta abar); afektu-adierazpen fisikoak eta hitzekoak; haurraren edo nerabearen lorpenen eta alderdi positiboen errefortzua eta balioespena; kontrolatzeko gaitasuna; gatazkak moral inductiboaren bidez konpontzea (azalpenak, adinari egokitutako eskakizunak, koherentzia eskakizunetan, ikuskatzeko aukera haurra edo nerabea erabakiaz kezaten denean); interakzio ludikoa guraso-figurekin eta beste ahaide batzuekin. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Baztertzea; ez egotea; guraso-figurek denbora ez izatea; eskuragarri ez egotea; afektu-adierazpen fisikoak eta hitzekoak ez izatea; haurra edo nerabea balioegabetzea, lorpenen gaineko errefortzurik ez egitea, hitzez erasotzea, mezu negatiboen nagusitzea; ez hautematea; ez interpretatzea; ez erantzutea; kontingentziarik gabe erantzutea; inkoherentzia erantzunean; haurra edo nerabea kontrolatzeko gaitasunik ez izatea; arriskuen aurrean babesteko gaitasunik ez izatea; autoritarismoz jokatzea; guraso-figuren bizitza-tonu tristea edo goibela izatea. ○ Hausturak haurraren edo nerabearen harreman esanguratsuetan; ○ maitasuna hausteko edo kentzeko mehatxuak. ○ “Guraso-alienazioaren sindromea” egotea.
Pixkanakako parte-hartzea eta autonomia	<ul style="list-style-type: none"> ○ Haurraren edo nerabearen parte-hartzea, bai bere buruari eragiten dizkioten gauzen kudeaketan, bai eta familian, eskolan eta gizartean bere buruaren alde eta gainerako pertsonen alde egin dezakeen gauzen kudeaketan ere. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Haurrari edo nerabeari ez entzutea; kontuan ez hartzea; mendekotasuna.
Garapen psikosexualeko prozesua errespetatzea	<ul style="list-style-type: none"> ○ Galderak erantzutea; jolasak eta autoestimulazio sexuala onartzea; abusetatik babestea. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ez entzutea; ez erantzutea; iruzur egitea; sexu-adierazpenak zigortzea haurtzaroan edo nerabezaroan; sexu-abusua.
Irudizko arriskuen aurkako babesa	<ul style="list-style-type: none"> ○ Haurraren edo nerabearen beldurrak entzutea, ulertzea eta erantzutea (abandonuari beldurra, anai-arreben arteko lehia, heriotzari beldurra); beldurra adierazteko aukera ematea; beldurrak sustatzen dituzten hitzak eta jokabideak saihestea (hitzezko indarkeria edo indarkeria fisikoa, eztabaida desegokiak, hitzezko mehatxuak, kontrola galtzea, inkoherentzia jokabidean). 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ez entzutea; ez erantzutea; ez lasaitzea; emozionalki inhibitzea; hitzezko indarkeria erabiltzea; indarkeria fisikoa izatea ingurunean; mehatxuak egitea; kontrola galtzea; inkoherentziak jokatzeko harremanean.
Ondoez emozionaleko arazoak edo sintomak konpontzeko laguntza izatea	<ul style="list-style-type: none"> ○ Ondoez emozionaleko arazoak edo sintomak identifikatzea edo atzematea haurraren edo nerabearen; sintomen garrantziaren balorazio egokia; arreta espezifiko ematea horiek konpontzeko; arreta espezializatua eskuratzea familiako esku-hartzea nahikoa ez denean. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Haurraren edo nerabearen ondoez emozionaleko arazoak edo sintomak ez ikustea; horien garrantzia minimizatzea; arreta espezializatua lortzean atzeratuta ibiltzea edo hura lortzeari uko egitea haurrak edo nerabeak ondoez psikologikoko sintoma nabarmenak dituztenean.

BEHAR SOZIALAK		
Beharrak	Asebetetzearen adierazleak	Gabezien adierazleak
Jokabide-mugak eta -orientabideak izatea	<ul style="list-style-type: none"> Mugak ezartzea haurraren edo nerabearen jokabide desegokien gainean; diziplina sendoz jokatzeko, irakaskuntza gisa ulertuta, eta enpatiaz eta afektuz transmituta; diziplina induktiboa erabiltzea; haurraren edo nerabearen jarduerak begiratzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Mugak ez ezartzea haurraren edo nerabearen jokabidearen gainean; inplikazio edo artatze eskasez jokatzeko; botere-adierazpenean edo afektua kentzean oinarritutako diziplina-estrategiak erabiltzea; diziplina modu inkoherentean erabiltzea, suminkorra edo leherkaria izatea edo zurruna edo tinkoa.
Emoziak kontrolatzen ikastea, bai eta gizartean parte hartzeko eta beste pertsona batzuekin harreman egokiak ezartzeko jokabide egokiak ikastea ere	<ul style="list-style-type: none"> Balio moralak irakastea; bulkadak kontrolatzen irakastea; desberdintasun indibidualakiko errespetua irakastea; enpatia-gaitasuna garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Jokabide-eredu bortitzen eraginpean jartzea; gurasoen edo pertsona helduen eredu asozialen, abusuzko ereduaren edo eredu oso desegokien eraginpean jartzea; jokabide asozialak indartzea edo onartzea; haurraren edo nerabearen bulkada eta jokabide bortitzak ez kontrolatzea edo indartzea.
Gizarte-harremanen sarea	<ul style="list-style-type: none"> Berdinekiko adiskidetasun- eta laguntasun-harremanak eratzea (berdinekiko kontaktuak eta interakzioa sustatzea familia-ingurunean eta eskolan; kontaktuatarako denbora hartzea eta abar); jarraipena ematea harremanei; seme-alabak dituzten beste familia batzuekin batera jarduerak egitea; beste haur edo nerabe batzuek parte hartzen duten taldeetan sartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Gizartetik bakartzea; lagunengandik denbora luzez banatzea; lagunekin ezin kontaktuan egotea; lagunak debekatzeko; arriskuko konpainiak izatea.
Interakzio ludikoa	<ul style="list-style-type: none"> Interakzio ludikoa berdinekin eta familiatik kanpoko pertsonekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Inguruan parekorik ez izatea; interakziorik ez izatea familiatik kanpoko pertsonekin; jostailuak edo objektu ludikoak ez izatea; jostailu desegokiak edukitzea.
BEHAR KOGNITIBOAK		
Beharrak	Asebetetzearen adierazleak	Gabezien adierazleak
Estimulazio sensoriala: Esplorazio- eta ikaskuntza-esperientziak izatea	<ul style="list-style-type: none"> Zentzumenak estimulatzea; estimuluak dituen ingurunea (ikusmenekoak, ukimenekoak, entzumenekoak eta abar); estimuluen kantitatea, aniztasuna eta kontingentzia; interakzio ludikoa familian; hizkuntza-estimulazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> Zentzumenak lantzeko aukerak kentzea; zentzumen-aukera urriak izatea; estimuluen monotonia; erantzuna kontingentea ez izatea; hizkuntza-estimulaziorik ez egotea.
Ezagutzak eta abileziak lortzea antolatutako heziketa-prozesu baten bitartez (eskola edo homologatutako beste bat)	<ul style="list-style-type: none"> Heziketa egituratu ematea modu egonkorrean, eskolaren bitartez edo behar bezala homologatutako beste eredu baten bitartez. 	<ul style="list-style-type: none"> Heziketa egituratu egonkorra ez ematea, dela eskolaren bitartez, dela behar bezala homologatutako beste eredu baten bitartez.
Esplorazio fisikoa eta soziala	<ul style="list-style-type: none"> Kontaktua objektu, jostailu, elementu natural eta pertsona asko dituen ingurune fisiko eta sozialarekin; ingurune fisiko eta sozialak esploratzea; "haur txikienei segurtasun-oinarria" ematea, esperientziak partekatzea haiekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Ingurune pobrea; laguntzarik ez ematea esplorazioan; esperientziak ez partekatzea pertsona helduekin eta berdinekin.
Errealitate fisikoa eta soziala ulertzea	<ul style="list-style-type: none"> Galderak entzutea eta haiei erantzun kontingenteak ematea; egia esatea; haurrak edo nerabeak bizitzaren, sufrimenduaren, gozamenaren eta heriotzaren ezagutzan parte har dezaten egitea; bizitzaren, harremanen eta loturen ikuspegi positiboa transmititzea; gizartearen eta egokitzapenaren aldeko jarrerak, balioak eta arauak transmititzea; desadostasunekiko eta ezberdintasunekiko (sexua, arraza, minusbalotasunak eta abar) tolerantzia. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez entzutea; ez erantzutea; une desegokian erantzutea; gezurra esatea; errealitatea ezkatzea; bizitzaren, harremanen eta loturen gaineko ikuspegi pesimista izatea; gizartearen aurkako balioak transmititzea; dogmatismoz edo arrazakeriaz jokatzeko.

**OINARRIZKO BEHARRAK HAURTZAROAN ETA NERABEZAROAN:
EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK ADIN-TALDEEN ARABERA⁵¹**

0-2 urte
3-4 urte
5-9 urte
10-14 urte
15-18 urte

⁵¹ Hemendik hartua: *Framework for the assessment of children in need and their families* (2000). Department of Health, UK Government.
Testuan, "guraso-figura" erabiltzen da gurasoak edo haurraren edo nerabearen tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak adierazteko.

BEHARREN EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK - 0-2 URTE

Behar fisikoak	Segurtasuna	Behar emozionalak	Behar sozialak	Behar kognitiboak
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Osasun ona du oro har; ohiko gaixotasunak ✓ Pisua eta tamaina espero den neurrian ✓ Dieta egokia eta elikagarria ematen zaio haurrari ✓ Baisu erregularrak ✓ Eguraldiari egokitutako arropa darama ✓ Arropa normalean garbi (pixa-, kaka- edo janari-hondarrrik gabe) ✓ Etxea garbi dago, baita haurraren ohea ere ✓ Ohiko pediatria-kontroletara joatea ✓ Txertoak jartzen zaizkio; hori ez bada egiten, azalpen egokia dago ✓ Lo-ordutegi erregularra ✓ Guraso-figurak arduratu egiten dira haurrak behar adina lo egin dezan eta isiltasuna egon dadin ✓ Ordutegi egonkorra eta egokiak (otorduak, loa, bainua) 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurrak izan dituen lesioen gaineko arreta egokia ✓ Haurrak edo nerabeak dituen lesio edo marka fisikoak azalpen onargarria dute ✓ Guraso-figurek neurriak ezartzen dituzte istripuak prebenitzeko ✓ Beste pertsona batzuen erasoen edo abusuen aurka babesten dute haurra ✓ Jolasteko erabiltzen dituen jostailuak edo objektuak seguruak dira ✓ Guraso-figurek ziurtatzen dute haurra leku seguruetan jolasten dela, etxetik kanpo dagoenean ✓ Haurra beti pertsona arduratsu eta gaitu baten zaintzapean dago, etxetik kanpo dagoenean ✓ Guraso-figurek haurraren eta horren anai-arreben arteko harremana begiratzen dute ✓ Oro har, anai-arrebeak ondo tratatzen dute haurra ✓ Haurra zaintzen duten pertsona helduak beti pertsona ezagunak dira eta haien kopurua mugatua da ✓ Beharrezkoa denean, haurra pertsona arduratsuen eta gaituen zaintzapean uzteaz arduratzen dira guraso-figurak ✓ Guraso-figurek pertsona ezagunen eta ezezagunen artean bereizten irakasten diote haurrari <hr style="border-top: 1px dashed black;"/> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Istripuengatiko lesio gehiegi ✓ Haurrak eraso edo zigor fisikoak jasotzen ditu 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurrak harreman egonkorra dauka pertsona heldu batekin gutxienez ✓ Oro har pertsona heldu berberekin zaintzen dute haurra ✓ Esna dagoenean, normalean guraso-figurretako baten zaintzapean dago haurra ✓ Guraso-figurek haurra kontsolatzen dute gaixo dagoenean, haserre dagoenean edo mina hartu duenean ✓ Komunikatzeko eta hitz egiteko egiten dituen ahaleginei erantzuten diete ✓ Ondo pasatzen dute haurraren komunikatzen dituzte eta haiekiko onespina adierazten dute ✓ Haurraren aurrerapenak eta lorpenak indartzen dituzte eta haiekiko onespina adierazten dute ✓ Errutina batzuk daude haurraren egunerokotasunean ✓ Guraso-figuren arteko desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dira ✓ Kontaktua fisiko positiboa dago guraso-figuren eta haurraren artean. Pertsona helduek ondo pasatzen dute hori egiten ✓ Guraso-figurek haurraren duten jokabidea eta ematen dituzten erantzunak aurreikusteko modukoak eta koherenteak dira ✓ Bat-bateko afektu-adierazpenak egiten dizkiote sarritan haurrari ✓ Haurra den bezala balioesten da ✓ Guraso-figurek haurraren harro daudela adierazten dute ✓ Familiako kide gisa onartzen dute haurra ✓ Familiako ospakizunetako partaide egiten zaio ✓ Guraso-figurek lotura positibo eta sendoa garatzeko behar adina denbora igarotzen dute haurraren ✓ Modu sentikorrean erantzuten diote haurrari ✓ Familian afektuzko harremanak ezartzea indartzen dute <hr style="border-top: 1px dashed black;"/> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurrak sarritan ikusten ditu ondoez emozionaleko sintomak guraso-figuringan ✓ Haurrak kritikak edo areriotasuneko adierazpenak pairatzen ditu askotan 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurrak aukera asko ditu beste pertsona batzuekin jolasteko eta komunikatzeko ✓ Beste pertsona heldu batzuekin eta beste haur batzuekin harremanak izatea sustatzen da ✓ Beste haur batzuekin jolastera animatzen zaio ✓ Sarritan bisitatzen ditu lagunak eta ahaideak ✓ Guraso-figurek laguntza edo aholkularitza bilatzen dute, haurraren jokabidea kontrolatzeko zailtasunak badituzte ✓ Guraso-figurek metodo egokiak erabiltzen dituzte haurraren jokabidea kudeatzeko (errefortzu positiboa ematea, negoziatzea, ereduak ezartzea, sariak ematea, entretenitzea, konbentitzea, jokabide desegokiak itzaltzea eta abar). ✓ Muga eta arau argiak daude familian portaera egokiari dagokionez ✓ Muga eta arau horiek sendoak dira eta guraso-figurek errespetatu egiten dituzte ✓ Haurrak laguntza jasotzen du bere sentimendu negatiboak kontrolatzen eta modu egokian adierazten ikasteko ✓ Beste haur batzuekin eta beste pertsona heldu batzuekin harremanak izateko modua irakasten zaio ✓ Beste pertsona batzuk eta horien jabetzak errespetatzen irakasten zaio haurrari ✓ Txandak errespetatzen irakasten zaio ✓ Negoziatzera animatzen dute ✓ Guraso-figurek beste pertsona batzuekin harremanak izateko modua eredu egokia da haurrarentzat ✓ Portaera bortitza edo krudela izan behar ez duela irakasten zaio haurrari 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurra estimulatzen da ingurunea esploratzeko eta aktiboa izateko ✓ Ikas dezan animatzen dute haurra ✓ Gauzak bere kabuz egin ditzan animatzen dute ✓ Erabakiak hartzeko aukera ematen zaio alternatiba errazak eskainiz ✓ Independentea izateko egiten dituen ahaleginak errespetatzen dira ✓ Bultzatzen zaio jolas egiten dezan ✓ Nolabaiteko askatasuna dauka bere ingurunea esploratzeko ✓ Bere inguruneari buruzko jakin-mina adierazten du (pertsonak, jostailuak eta abar) ✓ Bere adinerako jostailu egokiak ditu ✓ Bere adinerako espero daitekeen moduan jolasten da ✓ Haurraren jostailuak/liburuak arretaz tratatzen dira ✓ Etxetik kanpo paseatzera eraman ohi zaio ✓ Haurra bere adinerako espero daitekeen moduan adierazten eta hitz egiten ikasten ari da ✓ Soinuei eta ahotsei behar bezala erantzuten die ✓ Bi urterekin jada aginduei erantzuten die ✓ Guraso-figurek haurraren hitz egiten, abesten eta jolas egiten dute ✓ Guraso-figurek liburuak irakurtzen/begiztatzen dituzte edo telebista ikusten dute haurraren

BEHARREN EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK — 3-4 URTE

Behar fisikoak	Segurtasuna	Behar emozionalak	Behar sozialak	Behar kognitiboak
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Osasun ona du oro har; ohiko gaixotasunak ✓ Pisua eta tamaina espero den neurrian ✓ Haurrak dieta egokia eta elikagarria dauka ✓ Bainu erregularrak ✓ Eguraldiari egokitutako arropa darama ✓ Arropa normalean garbi (pixa-, kaka- edo janari-hondarririk gabe) ✓ Etxea garbi dago, baita haurraren ohea ere ✓ Ohiko pediatria-kontroletara joatea ✓ Txertoak jartzen zaizkio; hori ez bada egiten, azalpen egokia dago ✓ Behin baino gehiagotan hartzen du gaixotasun bera, baina azalpen medikoa du ✓ Lo-ordutegi erregularra ✓ Erregularlari garbitzen ditu hortzak ✓ Guraso-figurak arduratu egiten dira haurrak behar adina lo egin dezan eta isiltasuna egon dadin ✓ Haurrak ordutegi egonkorrak eta egokiak ditu (otorduak, loa, bainua) 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurrak izan dituen lesioen gaineko arreta egokia da ✓ Haurrak edo nerabeak dituen lesio edo marka fisikoak azalpen onargarria dute ✓ Guraso-figurek neurriak ezartzen dituzte istripuak prebenitzeko ✓ Beste pertsona batzuen erasoen edo abusuen aurka babesten dute haurra ✓ Jolasteko erabiltzen dituen jostailuak edo objektuak seguruak dira ✓ Etxean leku seguruen bat dago haurra jolastu ahal izateko ✓ Guraso-figurek ziurtatzen dute haurra leku seguruetan jolasten dela, etxetik kanpo dagoenean ✓ Haurra beti pertsona arduratsua eta gaitu baten zaintzapean dago, etxetik kanpo dagoenean ✓ Guraso-figurek haurraren eta haren anai-arreben arteko harremana begiratzen dute ✓ Oro har, anai-arrebek ondo tratatzen dute haurra ✓ Haurra zaintzen duten pertsona helduak pertsona ezagunak dira beti, eta bakanak izaten dira ✓ Beharrezkoa denean, haurra pertsona arduratsuen eta gaituen zaintzapean uzteaz arduratzen dira guraso-figurak ✓ Guraso-figurek pertsona ezagunen eta ezezagunen artean bereizten irakasten diote haurrari ✓ Bere burua babesteko gaitasunak irakasten dizkiote ✓ Haurra eskolara joaten bada, beti dago hura jasoko duen norbait. ✓ Haurra eskolara eraman eta jasotzen duten pertsonak gutxi dira, ezagunak dira eta horretarako gaitasuna dute 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurrak harreman egonkorra dauka pertsona heldu batekin gutxienez ✓ Oro har pertsona heldu berberek zaintzen dute haurra, ✓ Esna dagoenean, normalean guraso-figurretako baten zaintzapean dago haurra ✓ Guraso-figurek haurra kontsolatzen dute gaixo dagoenean, haserre dagoenean edo min hartu duenean ✓ Haurraren aurrerapenak eta lorpenak indartzen dituzte eta haiekiko onspena adierazten dute ✓ Oro har, modu positiboan erantzuten diete haren solasaldiei ✓ Adorea ematen diote gauza berriak egiten saiatzen denean ✓ Laguntza ematen diote gauza berriak egiten dituzte eta haiekiko porrot egiten duenean ✓ Errutina batzuk daude haurraren egunerokotasunean ✓ Guraso-figuren arteko desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dira ✓ Kontaktu fisiko positiboa dago guraso-figuren eta haurraren artean Guraso-figurek ondo pasatzen dute hori egiten ✓ Bat-bateko afektu-adierazpenak egiten dizkiote sarritan haurrari ✓ Haurra den bezala balioesten da ✓ Guraso-figurek haurrarekin harro daudela adierazten dute ✓ Familiako kide gisa onartzen dute haurra ✓ Familiako ospakizunetako partaide egiten zaio ✓ Guraso-figurek lotura positibo eta sendoa garatzeko behar adina denbora igarotzen dute haurrarekin ✓ Familian afektuzko harremanak ezartzea indartzen dute ✓ Haurra bere beldurrei eta kezkei buruz hitz egitera bultzatzen dute ✓ Haurrak etxean jasotzen dituen erantzunak sendoak eta aurreikusteko modukoak dira 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurrak beste pertsona heldu eta adingabe batzuekin harremana izatea sustatzen da ✓ Sarritan bisitatzen ditu lagunak eta ahaideak ✓ Beste haur batzuekin partekatzea eta jolastera animatzen dute ✓ Guraso-figurek laguntza edo aholkularitza bilatzen dute, haurraren jokabidea kontrolatzeko zailtasunak badituzte ✓ Guraso-figurek metodo egokiak erabiltzen dituzte haurrari behar bezala portatzen irakasteko (erfortzu positiboa ematea, negoziatzea, ereduak ezartzea, sariak ematea, entretenitzea, konbentzitzea, jokabide desegokiak itzaltzea eta abar). ✓ Muga eta arau argiak daude familian portaera egokiari dagokionez ✓ Muga eta arau horiek sendoak dira, eta bi guraso-figurek errespetatzen dituzte ✓ Beste pertsona batzuk eta horien jabetzak errespetatzen irakasten zaio haurrari ✓ Txandak errespetatzen irakasten zaio ✓ Bere emozioak kontrolatzen irakasten dute ✓ Guraso-figurek beste pertsona batzuekin harremanak izateko modua eredu egokia da haurrarentzat ✓ Portaera bortitza edo krudela izan behar ez duela irakasten zaio haurrari ✓ Eskolara garaiz iritsi ohi da ✓ Helduen jokabide xelebreak edo beldurra eragin diezaioketen jokabideak ikustea saihesteko ahalegina egiten da ✓ Leku publikoetan portaera egokia izatea sustatzen eta irakasten diote guraso-figurek haurrari 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurra estimulatzeko da ingurunea esploratzeko eta aktiboa izateko ✓ Ilkas dezan animatzen dute haurra ✓ Gauzak bere kabuz egitera animatzen zaio ✓ Elkarrizketetan hitz egitera eta parte hartzea animatzen zaio ✓ Erabakiak hartzeko aukera ematen zaio alternatiba errazak eskainiz ✓ Bere adinerako jostailu egokiak eta askotarikoak ditu ✓ Haurraren jostailuak/liburuak arretaz tratatzen dira ✓ Etxetik kanpo paseatzera eraman ohi zaio ✓ Guraso-figurek normalean liburuak irakurtzen dizkiote, ipuinak kontatzen dizkiote, haurraren jolasten dira edo telebista ikusten dute harekin ✓ Haurrak etxetik kanpoko leku berriak esploratzen ditu, begiratuta <hr style="border-top: 1px dashed black;"/> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurra eskolatuta badago, erregularlari joaten da eskolara ✓ Eskolatuta badago, guraso-figurak tutoretzetara eta irakasleekin hartutako hitzorduetara joaten dira
	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Istripuengatik lesio gehiegi ✓ Haurrak eraso edo zigor fisikoak jasotzen ditu 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurrak askotan ikusten ditu ondoez emozionaleko sintomak guraso-figurengan ✓ Haurrak kritikak edo areriotasuneko adierazpenak pairatzen ditu askotan ✓ Guraso-figurek haurraren laguntza bilatzen dute arazoak dituztenean 		

BEHARREN EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK — 5-9 URTE

Behar fisikoak	Segurtasuna	Behar emozionalak	Behar sozialak	Behar kognitiboak
